

JAKIN

J.M. DIAZ DE GUEREÑU

JUAN LARREA: POESIAZ IHESI

JOSE RAMON ZABALA

ANGELA FIGUERA: IBILBIDE POETIKOA

GOTZON AURREKOETXEA

EUSKAL DIALEKTOLOGIA ETORRIZUNAREN ATARIAN

IÑAKI IÑURRIETA

TELEBISTAKO LEHIAKETEN AZTERKETA-SAIOA

PRUDEN GARZIA

MITOAREN FUNTZIO POLITIKOAZ

MARIANO FERRER

EGUNEN GURPILEAN

AMAIA ITURBIDE

ADJEKTIBAZIOA BIFORIANO GANDIAGAREN
"ELORRI" N

67

AZAROA-ABENDUA 1991



JAKIN

67

AZAROA-ABENDUA 1991



Kultura eta Turismo Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	AI NAGUSIA	11
	JUAN MANUEL DIAZ DE GUEREÑU JUAN LARREA: POESIAZ IHESI	31
	JOSE RAMON ZABALA ANGELA FIGUERA: IBILBIDE POETIKOA	
G	AIAK	53
	GOTZON AURREKOETXEA EUSKAL DIALEKTOLOGIA ETORKIZUNAREN ATARIAN	65
	IÑAKI IÑURRIETA TELEBISTAKO LEHIAKETEN AZTERKETA-SAIOA	
H	AINBAT ABURU	89
	PRUDEN GARZIA MITOAREN FUNTZIO POLITIKOAZ	
E	GUNEN GURPILEAN	101
	MARIANO FERRER	
I	IBURUAK	119
	AMAIA ITURBIDE ADJEKTIBAZIOA BITORIANO GANDIAGAREN "ELORRI" N	133
	IDAZKARITZA JASO DITUGU	

SUMMARY

JUAN LARREA: WITH POETRY ELSEWHERE

JUAN MANUEL DIAZ DE GUEREÑU

The poetry of Juan Larrea (1895-1980) constitutes a small proportion of his writings: barely two hundred poems, almost all of them written over a period of a little more than a decade (1919-1932) and in French. The author explains the main formal characteristics of his poetry, tracing the ups and downs of Larrea's life.

ANGELA FIGUERA: A POETIC ITINERARY

JOSE RAMON ZABALA

The author restores the reputation of Angela Figuera from Bilbao (1902-1984), who has remained unduly unknown in her own country. Her ten works, together with the odd poems, reveal her very own poetic world whose dominant themes are the human being, motherhood and death. Her poetry, assessed by the author as being veritable and authentic, is more notable for its quality than its quantity.

BASQUE DIALECTOLOGY WITH REGARD TO THE FUTURE

GOTZON AURREKOETXEA

To mark the occasion of the hundredth anniversary of the death of Louis Lucien Bonaparte, the creator of modern Basque dialectology, the Academy of the Basque Language has just held an International Congress of Dialectology. The author, who is one of the organizers, presents an overview of the congress and the themes discussed, and the future outlook for Basque dialectology.

AN ANALYSIS OF TELEVISION QUIZ PROGRAMMES

IÑAKI IÑURRIETA

This deals with a survey of five quiz programmes on the following channels: ETB1, TVE1, TVE2, A3, TELE5. The first part of the work consists of a theoretical analysis of both the characteristics of television language and the peculiarities of the genre here examined —that of the quiz programme. In the second part, these concepts are applied to each one of the analyzed programmes.

ABOUT THE POLITICAL FUNCTION OF MYTH

PRUDEN GARZIA

The author summarizes the views of Georges Sorel concerning the characteristics and function of myth and its political use. He subsequently carries out a personal exegesis on violence in the Basque Country by studying two cases: the myth of the armed struggle and the myth of peace.

NEWS TODAY

MARIANO FERRER

The journalist Mariano Ferrer comments on the facts that took place in October that he considers to be worth underlining. The subjects are, among others: the crisis of the industry, the division within the political party EE (Euskadiko Ezkerra), the Security law proposed by the Government, the affaire of the American judge Thomas, the election of the new Chancellor for the University of the Basque Country, eccetera.

THE ADJECTIVIZATION IN "ELORRI"

AMAIA ITURBIDE

After demonstrating that adjectivization is one of the least worked-on areas in the Basque language, the author emphasizes the wealth, variety and abundance of adjectives in the work "Elorri" by the Basque poet Bitoriano Gandiaga.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 67. zenbakia da eta 1991ko seigarrena, aurtengo azkena. Aldizkariaren historia osoa kontuan hartuta, 102. zenbakia da honoko hau.

Zenbaki honetako *Gai Nagusia* saila Euskal Herriko bi erdal idazleri eskaintzen diegu, Juan Larreari (1895-1980) eta Angela Figuerari (1902-1984). Bi idazle on olerkigintzaren aurkezpena egiteko eskatu diegu egileei, bi adituri. Juan Manuel Díaz de Guereñuk Juan Larrearen bizitzaren haritik aztertzen du honen olerkigintza. Eta modu berean Jose Ramon Zabalak, Angela Figueraren ibilbide poetikoa.

Gaiak sailean beste bi artikulua ditugu. Louis Lucien Bonaparteren mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak ospatu berri dituen Dialektologi Ihardunaldien berri zehatz eta oparoa ematen du Gotzon Aurrekoetxeak. Iñaki Iñurrietak, bere alde-

tik, bost telebista-lehiaketen azterketa semantikoa eskaintzen du.

Hainbat aburu sailean, Pruden Garziak, Georges Sorel-en lanean oinarrituz, Borroka Armatua eta Bakea bi mito politiko gisa aztertzen ditu.

Egunen gurrpilean sailean, aurtengo zenbaki guztietan bezala, Mariano Ferrer-en egutegia dugu, oraingo honetan urriko zenbait gertakariren inguruan.

Liburuak sailean, azkenik, Amaia Iturbidek Bitoriano Gandiagaren *Elorri* berrargitaraberriko adjektiboen ugaltasuna eta aberastasuna azpimarratu eta ikertu egiten ditu.

Zenbaki honekin isten dugu aurtengo gure ibilbidea. Aldizkariaren hobekuntzari begira agindu genuen hitza bete dugulakoan gaude, eta bete dugun lan hori zure gogokoa izan dela pentsatu nahi genuke.

G AI NAGUSIA

JUAN MANUEL DIAZ DE GUEREÑU

JUAN LARREA: POESIAZ IHESI

JOSE RAMON ZABALA

ANGELA FIGUERA: IBILBIDE POETIKOA

JUAN LARREA: POESIAZ IHESI

JUAN MANUEL DIAZ DE GUEREÑU

Be rgamín-ek, Vallejo-ren *Trilce* (1930) liburuari egin zion “Prólogo”ko esaldi ezagun batean, goraipatu egiten zuen «la poesía extremadamente conmovida, delicadamente agudizada de Juan Larrea: poesía tan directa y pura que puede aplicársele aquella opinión de Debussy sobre un trozo de Bach: “que no sabe uno cómo ponerse ni lo que hacer para sentirse digno de escucharla”.»¹ Handik urte askotara, 1984ean, Gabriel Celaya-k honela bukatzen zuen bere hitzaldia Larrea-ren obraren azterketari eskainitako ihardunaldietan: “Y si alguien es poeta, no podrá leer a Juan Larrea sin quedarse absolutamente fulminado, *fulminada* esa es la palabra”.² Iritzi biek, eta elkarren arteko alde kro-

nologikoa, baliagarriak izan daitezke Larrea-ren poesiak izan duen harrera sutsua antzemateko inoiz edo behin gorabeherak ezagutu dituen arren.

Poesigintzak haren obraren zati bat baino ez du osatzen. Guztira berrehunen bat poema dira, gehienak 1919-1932 bitartean eta frantsesez idatziak. Harrezkero bertan behera utzi zuen poesigintza, prosan buru-belarri murgilduz eta idatziko zituen lan mardulen —hogeiren bat liburuk osatzen duten— sorkuntzari lotuz. Hau dela eta, poemak berandu eta, maiz, era desegokian eman ziren argitara. Duen ospea hogeii eta hogeitamarreko hamarkadetan sortu zen, 27ko taldearen izenik aipatuenen artean eta, honenbestez, ondorengo belau-naldiko poetengana hedatu zen.

Kritika akademikoak autorerik garrantzitsuenen —besteak beste Guillén, Alberti, Cernuda, Altolaguirre, Huidobro, León Felipe, Vallejo, Buñuel, Barral, Vivanco-ren— iruzkin gore sgarriak bildu ditu. Guztien buru, Gerardo Diego dugu, bera izan bait zen Larrea-ren sorkuntz garaiko larreazalerik porrokatuena eta haren propagandistarik handiena. Bergamín-en iritziak —oso adierazgarriak Larrea irakurtzen zuten poeten erreakzioa ezagutzeko— kontutan hartzeko modukoak dira, eman zituen garaian haren poesiak liburuetan nahiz antologietan jaso gabe bait zeuden, 1932 eta 1934ean Diego-k bildu artean, alegia. Argitara eman zituen hogeitamar poemak aldizkari desberdinetan banan-banan emanak izan ziren. Erdiak hamar urte lehenago, ultraismoaren edo Bergamín-ek “pueriles ‘boy-scouts’ literarios”³ jotzen zituenen aldizkarietan.

Agian Larrea-ren obraren gauzarik bitxienak onspen horrekin zerikusia izan zuen. Talde ultraistaren desagertzearen ondoren, 1922an, eta seguru asko haren ekarpen poetiko hut-salen erreakzioz, penintsulako giro literarioak erakutsia zuen bere etsipena abangoardiarekiko, tradiziora bihurtuz:⁴ lehen uholde abangoardistaren porrotari, kritikoren batek “vanguardismo racionalista, distante y negador de sí mismo, sostenido por la *Revista de Occidente*”⁵ bezala definitu zuenak darraio, alegia, beste eredu edo iturri espresiboetatik edaten zuen formalismo eklektiko batean suntsitu eta asimilatutako

abangoardismoak. Ultraismoak, kanpotik ekarritako berrikuntzak eta modak besterik gabe nahasten zituen mugimenduak, ondorengo urteetan beren obraren onena eskainiko zuten poetei utzi zien gauzarik garrantzitsuena, izan ere, ausardia espresiboekiko nolabaiteko interesa izan zen eta baita haiek defendatzen zituzten eskolekiko higuin nabarmena ere. Hau Larrea - rangan beste inorengan baino argiago ikusten da eta honek adierazten du argi eta garbi mugimendu surrealistak izan zuen arrakastarik eza. Idazkera abangoardistak, bada, hamarkadaren hondarretan ezagutuko zuen bultzadarik handiena, Aleixandre, Cernuda, Lorca eta Alberti-ren obra irrazionalista handiei esker. Bitartean, poeta gutxi izan ziren poesi mota hura egin ohi zutenak: Huidobro eta Hinojosa, gutxi estimatuak beren jauntxo-izakera bitxiagatik; Diego, aldizka abangoardista, aldizka klasiko eta Larrea - ren lehen-tasuna edo buruzagitza aldarrikatzen zuena; eta Larrea, osperik handiena zuena eta 1926tik aurrera Paris-en — abangoardiarik esanguratsuenaren eta bere eskuragaitz pertsonalaren egoitzan— biziko zena. Bilbotarraren uzkurdurak eta era espresibo horietan erakutsitako egoskorkeriak libratu zuten hura ultraisten prediku zaratasuen deskreditutik. Larrea besteen kontrako bidea hartuz aldendu zen ultraismotik. Tradiziorantz jo ordez abangoardiaren hizkeran etsi gabe murgildurik, hura sakontzen eta lantzen jarraitu zuen albora utziz mugimenduaren ibilera oihulari eta publizitarioa. Erdiespen espresibo nabarietara, izaera enigmatiko eta iheskorrekin batera, bere publikazioek izan zuten nolabaiteko bixikeri usaina erantsi zitzaizkien. Gauza ezaguna da: 1932an Diego-ren *Poesía Española. Antología 1915-1931* lehen antologia argitaratu zenean, zenbait giro ikasitan, “Juan Larrea” Diego-ren beraren goitizena baino ez zela zioen zurrumurrua zabaldu zen. Hau gezurtatu nahirik, bere bigarren antologian, 1934ekoan, bilbotarraren argazki bat erantsi zuen. Larrea-ren poesiak, beraz, zokoratze bitxi baten usaina harteaz gain erabatekotasun eta pisu bereziak zituen adierazpidea eskaintzen zuen. Urte haietan, bere garaikideentzat abangoardiaren ahalmen poetikoen eredu izan zen nonbait bere

poesia: benetakoa, zirrarez betea, bide berritzaileak ausartasun handiz urratuz adierazia. Larrea zen, beraz, abangoardista.

Celaya-ren iritzia oroimen baten eraginez sortzen da, Larrea-ren *Versión Celeste* (1969) poema-liburuaren aurkikuntzaren eraginez alegia. Bi iritziek mugatzen duten garaira hedatzen da Larrea-ren poesiaren eta honen argitalpenaren historia osoa. Argitalpena bera ere ez zen samurra suertatu. Hamaika gorabehera eta ustegabe ezagutu zituen. Larrea pertsonaiaren islada izan zela esan liteke. Eta hain zuzen horrexegatik gertatzen da, enigma guztiak bezalaxe, hain erakargarria. Celaya-k gaztetan irakurri zituen Larrea-k —gehienetan Diego-ren bitartez— noizbehinka eta banaka argitaratzen zituen poesiak. *Versión Celeste* argitaratu arte ezagutzen ziren poemak ez ziren berrogeitamarrera heltzen, 1934ean argitaraturiko bere lehen liburua —*Oscuro Dominio* “plaquette”^{a6}— barne. Gerra zibilarengatik ez zen argitaratu bere poemak bilduko zituen *Versión celeste* liburua. Proiektua bazterturik geratu zen eta Larrea bere interesa erakarri zuten beste hainbat eginkizuni lotu zitzaion. 1969an, berak kontatutako⁷ gorabehera korapilatsu baten ondoren agertu zen Italian lehen edizioa eta hurrengo urtean, edizio espainola. Berriki, 1989an alegia, ezagutu du liburuak edizio berri bat.⁸ Dena den, eta Celaya-ren hitzak erabat adierazgarriak dira —“era el libro que yo estaba buscando desde que tenía veinte años” (268 or.)—, Larrea-ren izena ez zen eztabaidagai gutxiengo hautatu batentzat eta nahikoa izan dira ustegabeko berragertze horiek gure literatur giroan gero eta arreta handiagoa eta laudoriotsuagoa eskain dakizkion. Autore gutxi izan dute aldi berean bi ezaugarri kontradiktorioz markatutako harrera: hain ezezaguna izaki, besteengan halako entzute handia izatea.

Baina bere irakurleek eman dioten estatutu paradoxiko hau, Larrea-ren sormenaren eta izakeraren berezitasunen emaitza da. Hauek dira, hain erabakiak eta zehaztuak dauden bere espresabideez gain, bere literatur itxura edertzen eta iluntzen duten hainbat enigmen berri ematen dutenak: zergatik idatzi zuen abangoardista-eran eta frantsesez? Zergatik

argitaratu zuen hain poesia gutxi? 1932tik aurrera zergatik lotu zitzaion soil-soilik prosari, poesigintzari uko eginez? Puntu hauek argitzea laguntza handia litzateke bere obrarekiko iritzi egokiago bat eduki ahal izateko. Poetaren biografiara jo beharra dago, beraz, eta ez espedienterik errazenera jotzearren edo bere obraren analisisa saihestearren, inkognita guzti hauen adierazpidea bat eta bakarra delako eta Larrea-ren izakeraren muinaren baitan dagoelako baizik. Bestalde, bera izan zen poesiaren “gaurkotasuna” defendatu zuena eta hau ez da ulertu behar zentzurik ohizkoenean, bere garaiko era espresiboekiko egokitze batean, alegia. Larrea, batez ere, bere poesigintzaren modernotasunaz, berrikuntza espresiboaz arduratuta zegoen poeta dugu, baina beti ulertu zuen hura “zirrara”ren⁹ menpe zegoen zerbait bezala. Kontzeptu harekin poetaren barrena isladatzen duen poesia proposatzen du, bere biziune, barne-egoera eta garapen pertsonalaren lekuko dena; hitz batean, bere izaera, bere ibilbide intimoa sinbolo bihurtuko duen poesigintza. Larrea-rengan, beraz, poesiak eta bizitzak bide paraleloak daramatzate, eta ez bizi izandako gertaerek sormena baldintzatzen dutelako bakarrik, olerki batek existentzia isladatzen den zirraren transkripzio izan nahi duelako baizik. Eta hau hitz gutxitan ere laburbil daiteke: bizi behar izan zuen bizitzaren aurrean (bilbotar jauntxo batena, bere aitonaren bigamiagatik gaitzetsia, baina hala ere bere negozioen garapenaren eragile izatera deitua) Larrea hain etsiturik sentitu zen, ezen bere bizitza osoa erdeinuan, beste zerbaiten bilaketan oinarritu bait zen. Data goiztiar batean idazten dio Diego-ri egungo ikuspegi batetik bere bizitza-abentura izango zenaren egitaraua dirudiena: “Mi ideal sería dejar, como Rimbaud, literatura y casa, que en mí, como creo que en él, sólo son un *sustitutivo* de la *inercia*, de la aventura constante, del ritmo del camino.”¹⁰ Bere bizitza eta poesiaren ibilbidea, paraleloak zentzu askotan, mesprezu eta bilaketa-tentsio bikoitz batetik uler daitezke.

Larrea-ren biografia ondo ezagutzen dugu gaur egun.¹¹ Bilbon jaio zen 1895ean, familia dirudun baten baitan. Gaztetandik hasi zen poesia idazten, nahiz eta bere funtsezko

obraren abiapuntua 1919an kokatu, hau da, Vicente Huidobro-ren poemetan¹² abangoardia rekin topo egiten duenean eta mugimendu ultraistaren aldizkaritan parte hartzen hasten denean. Handik aurrera, bere poemarik gehienak abangoardia desberdinen arauak jarraituz idatziko ditu eta bere begien aurreran “testimonios de una experiencia poética total”¹³ bezala agertuko dira. Garai horretarako baztertuak zituen bere poesigintzan ezaugarri modernistak, “de un artificio y un convencionalismo imponentes y mandados ya desaparecer”¹⁴, nahiz eta ordezeko egokirik aurkitu gabe zuen oraindik. Huidobro-ren poesigintzan, ordea, bere berrikuntza-nahiekin bat zetorren espresabide poetiko baten benetako ahalbidea aurkitu zuen. Abangoardiaren hizkuntza poetikoak, errealtatearekiko sorkuntza independentzian oinarritzen zenak, eskainiko zion egunerokotasun erdeinagarritik aldendutako poesia entsimismatu baten sorkuntzan murgiltzeko aukera. Izan ere, handik aurrera erabili zuen estilo literarioa bere mundutik ihes egiteko bide bezala agertu zitzaion, baina modernismoaren exotikotasun estetizistaren ildo hartu ordez, “zirrara”ren espresabide egoki baten bilaketaren bidetik jo zuen, hauxe bait zen poetikotasunaren baldintza bakarra: “Se me ocurre preguntar ¿Es necesaria la comprensión para la sensación estética? Y estoy por estampar un rotundo NO. Y un poeta venidero, estoy por asegurarlo, nos hará llorar con las imágenes y palabras solas, sin que comprendamos la sucesión, como con sonidos dispersos. Y ésta será la perfección.”¹⁵

“Poeta venidero” hori izateko zuen irrika poetiko handiak bultzatu zuen heldu gabeko hizkera batez forma egoki bat bilatzera, espresabide desberdinak eta talentu handiko txinpartak zerizkien konposizioak erdietsiz. Larrea-ren olerkiek, garai horretan, Huidobro-ren eta ultraisten obretan isladatzen zen lehen abangoardiako lengoaiaren ildo jarraitzen dute: bertso eta ahapaldi laburrak, sintaxi sinplea, irudi solteak bata bestearen ondoan ezartzea ahalbidetzen duena, eta konpaginazioaren erabilera sistematikoa, testuak orrialdean barrena izango duen kokapenarekin eta bere irudikatze grafikoarekin jolastuz. Honen adierazgarri “Faro” poema aipa

genezake, hots, mugimendu ultraistaren aldizkarietan egilearen baimenik gabe plazaratu zen Larrea-ren azken poema:¹⁶

FARO

Para cazar calvarios
 en la vida remota
 hemos puesto un reclamo
 Alguien muere estrangulado por su sombra
 Alondras incendiarias
 patrullaban las ondas
 Y tú pájaro tartamudo
 plumado
 como un carcaj
 sobre los mundos
 Tú sabes portar tu dolor en la solapa
 Para las cruces extenuadas
 hemos bajado al camposanto
 collares salvavidas

Campanario

Campanario náufrago como un cimbel
 Un velero de tres palos
 bogaba en aguas de Israel

1921ean, Artxibategi Historiko Nazional-ean lehiaketaz irabazitako lanpostuaren aitzakiaz, Larrea Madrilerara joango da, Bilbo eta bere familiak zuen negozioa utziz. Han, literatur bokazio inseguru eta hegazkor bat gauzatzeko modua topatzea espero zuen. Baina ultraistek beregan sorturiko etsipenaren eraginez laster asko utziko zuen: “Esto no es nuevo. Esto es el gongorismo con pantalón largo, cuya oscuridad nace de un deseo de distinción y no de una emoción.”¹⁷ Lehen abangoardista espainolen kontzepzioek koherentziarik gordetzen ez zutenez, beren emaitzek ere ez zuten estetikoki bilatzen

zutena aurkitzen. Larrea, falta zitzaien “zirrara” gatik haiek gaitzesten zituena, ez zen, bestalde, inoren ildoan denbora luzez jarraitzen zuen poeta. Bere abangoardismo-garaiaren hastapenetan, 1919an, Huidobro-ren eragina eta haren teknikak arakatzen eta jorratzen saiatu zela onartu arren, berehala hasi zen bere ahots propioaren bila, alde batera utzi ahal izateko gogoko ez zuen “amaneramiento”¹⁸ hura, hots, eskola poetikoaren lengoia. 1920ko apirilaren 16an, txiletarraren poesiaz txunditurik geratu zenetik urtebetera, argi eta garbi adierazi zituen “creacionismo” artekiko gordetzen zituen aldeak: “Pero que conste que no admito más *ismo* que juanlarreísmo.” Beraz, Madrileran joan bazen ere, ez zen poesia berriak beregan eragiten zuen liluragatik edota hiriburuko giro literarioa usaitzeagatik joan, bere familiaren, merkatarien eta kultur probintziakeriaren Bilbo hartatik ihes egin nahi zuelako baizik.

Vicente Huidobro-k bere hainbat ideien originaltasuna defendatzeko zenbait ultraistarekin eztabaidatu zuenean, Larrea-k, hain arrotza suertatzen zitzaion eztabaidan jendaurrean esku hartu ez bazuen ere, ez zuen zalantzarik izan bere eremuaren hautaketan: txiletarrarekin zegoen benetako poesia eta baita, zergatik ukatu, Paris-ek zuen erakarmena ere. Hara bizitzera joan arte, bere animoak gorabehera handiak ezagutu zituen: poesiari buru-belarri lotzeko erabakiari “en mí la edad del poeta ha muerto”¹⁹ onarpenak darraio, eta baita famili eta lan-konpromisuak hausteko nahia ere, hiriburu frantsesean bere sorkuntzarentzat bide irekia aurkitzeko itxarropenez. Gorabehera hauek, Diego-ri igorritako gutunetan behin eta berriro aipaturik agertzen direnak, bere izakeraren konstante bat izango dira poemak idazten dituen urteetan eta, ikusiko dugunez, erabat baldintzatuko dituzte bere argitaratzeko nahiak eta, hain zuzen ere, bertsoak egiteko bultzadarekin bakarrik suntsituko dira. Paris-era heltzeak sekulako bizipoza eman zion eta berehala argitaratu zuen *Favorables París Poema* aldizkaria. Aldizkari honekin zera nahi zuen: “que (...) sostuviera una actitud poética de verdadera vanguardia y que al mismo tiempo fuese algo así como un acto de discriminación y repudio contra la literatura vigente en la

península”.²⁰ *Favorables*en bi zenbakiak garai hartako poetika aurreratua ermidazlerik onenetakoen lanak biltzea lortu zuten; besteak beste, Huidobro, Tristan Tzara, César Vallejo, Juan Gris, Diego edo Neruda aipa daitezke, baina Larrea-ren poesiaren ulermenerako aldizkarian jasotzen zena baino esanguratsua goa da handik kanpo zer uzten zen jakitea. Parisen argitaratua izan arren, aldizkaria gaztelaniaz agertzen zen, baina bere orrialdeetatik at gelditzen ziren, Diego izan ezik, penintsulako poeta berri guztiak. Lehen zenbakiari Larrea-ren manifestu gogor batek —“Presupuesto vital”ek— ematen zion hasiera. Poesia espainolaren aurka idatzia, poesiarekiko sortzaileen benetako konpromisu-ezagatik hizkuntza “rechinate e incurtido” bati estekaturik zegoena. Testu honek argi eta garbi erakusten du nola Larrea-k ultraisteekiko zuen mesprezua poesia espainiar osora hedatu zuen: “nuestra historia literaria se reduce a una simple suposición de flores a porfia en el vacío.”²¹

Larrea-ren deia zen poesiaren berrikuntza bilatzeko eta benetako jarrera poetiko sortzaile bat izateko, konpromisuetatik libre, manifestu abangoardista baten lengoia zirikatzaile batean esana. Aldizkariaren porrota ukaezina da, Larrea-k bertan jarri zituen literatura espainiarraren aldaketa-nahien arabera neurtuz gero. Garai hartan Gerardo Diego-ri idatzitako gutunetan garbi asko antzeman daiteke Larrea-ren etsipena. Diego-k helerazten zizkion kritikei honela erantzun zien: “Gerardo, España está en ruinas. Nadie es capaz de darse en amor ni en odio.” Eta “no saber la lengua de las islas Marquesas” sentitzen du, bere poemetan erabili ahal izateko.²² Larrea-k, gutxienez 1922az gero, frantsesez idatzi zituen bere olerkiak. Frantsesez idaztearen arrazoiaren artean garai hartan bere irakasletzat zuen Huidobro-ren eragina nabari daiteke. Honek, bere teoria poetikoan (neurri handi batean Larreak bere egina) mezu poetikoaren itzulgarritasuna defendatzen zuen, kontutan izanik haren espezifikotasuna ez zetzala hotsetan, musikalitatean edo erritmoan, baizik eta lorturiko irudietan, olerkiko hitzek sorteraziriko gertakari berrian. Zalantzarik gabe, Paris-en —garai hartako iharduera abangoardistaren gunearen— erakarmenak ere bere eragina izan

zuen, eta baita frantsesaren tradizio abangoardista luzeak ere, gaztelaniak ez zuena. Frantsesak Larrea-ri ausardia handiz erabilitako hizkuntza bat eskaintzen zion, gaztelaniak ezagutzen ez zuena: “encontraba más dúctil y matizado aquel idioma”.²³ Larrea-ren erreakzioak, bere aldizkariak izandako oihartzun-ezaren aurrean, erakusten du hizkuntza arrotz bat erabiltzeko beste eragingarri bat izan zela literatura espainola-rikiko eta penintsulan gailentzen zen giro kulturalarekiko mesprezua: frantsesa erabiltzeak gaztelera ez erabiltzea zekarren, hots, errazkerian oinarritutako azaleko kultura batetik aldentzea: “ligereza cervical (...) que huye arrojando al azar todo lo que pudiera comprometerle.”²⁴ Olerkiak sortu zituen garaian, Larrea-k gutxitan jo zuen gaztelaniara, alegia, poeta espainolei irakaspenen bat eman edo errietan egiteko kemena sentitu zuenean bakar-bakarrik, emaitzek saialdia asetuko zutelakoan.

Frantsesaren hautapenera bultzatu zuena, beraz, Larrea beste forma-aukerak egitera bultzatzen duen urruntze-nahi berbera da. Haren bigarren estilo poetikoaren —garai honetan jadanik nahikoa sendotua eta behin-betirako bere egingo duen estiloaren— ezaugarri nagusia sintaxi jarraitua da, bertso nahiz ahapaldi zabalagoetan hedatuz doana, irudiak sekuentzia aberats eta konplexuetan uztartuz eta gaiztakeria grafikoak baztertuz. Bere heldutasuneko poesia erabatekoak eta larderiatsuak metrika eta errima-konbentzioak eta erritmo erregularrak baztertzen ditu eta irudien artean juntagailu gramatikal berdinak erabiltzen, hauek esaldiaren sekuentzian gordezen duten kateamendura mugaturik geratzen direlarik. Azkenetariko olerki bat har genezake garai honetako bere obraren eredutzat:

ATTRACTION DU RISQUE

Celui qui pense j'effeuillerais mes os
est bien plus près du ciel que de ce qu'il pense
sa poussière le soigne son manque d'art l'imagine
il est pur comme l'haleine en partance d'un voilier

S'il est seul les miroirs du vide le convoient
 l'escabeau de l'amour emprunte à sa jeunesse
 ce marbre en soi qui renferme toutes les formes
 méticuleuses du regret

S'il est debout la chair paisible l'illumine
 et tous ceux qui le regardent
 se voient dans le devoir de s'ignorer²⁵

Hau bezalako poemekin, Larrea ultraisten poesigintzare n aurka jarri zen, garai hartako beste abangoardi mugimenduenarekin alderatuz gero, abangoardiaren alderdirik harri-garri eta azalekoenekin liluratuegi ikusten zituelako, eta zor-roztasun ia akademikoa erakusten zuten aldizkari zein obra sur realistetan nabari ziren joerak jarraitzen zituztelako. Baina poesigintza surrealistarenganako hurbiltasun hau ez da sortzen idazkeran prozedura bera hartzetik —Larrea ez bait zen automatikotasunaz baliatu, inoiz edo behin izan ezik, eta behin eta berriro berrikusi zituen bere originalak (hamarkada batez berridatzi zuen zenbait poema)—, ezta bere diario pertsonaletan eta ondorengo saioetan zehatz-mehatz gaitzetsi zituen bere oinarri doktrinaletikiko konformatetik ere. Hasierako liluraren ondoren, Larrea laster kexu zen paristar giro literarioaz, ez bait zituen honek, Espainiakoak bezalaxe, haren nahiak bete. Urruneko herrialdeetara joateko behin eta berriz egin zituen bidai proiektuak dira haren etsipenaren adierazgarri. Honek adierazten du zein neurritaraino interesatzen zitzaizkion orduko abangoardien borrokaldi literarioak. Paris-eko denboraldiak ere etsipen sakon batean bukatu zuen. Ez zen hori. Peru-ra egin zuen bidaia (1930-31) har daiteke aldi honen bukaeratzat, bere burua ikusteko eta mundua ulertzeko erabateko aldaketa baten hasiera izan bait zen. Aldaketa honek, azkenik, poesia bertan behera uztera bultzatuko du.

Bere bizitzaren gorabeherak gogoan izanik, errazago uler daitezke bere poesiaren ezaugarri formal nagusienak: abangoardista gisa eta frantsesez idazten badu, poesia konbentzional batetik urrundu nahi duelako da eta urte haietako bere bizitza hori lortu nahi lukeen saio etsitu bihurtzen da. Jarrera etsitu hori poemen gaietan isladatuko da eta logika “argu-

mental” baten arabera eraikiak ez badaude ere, behin eta berriz joko dute irudi berberetara, berezko zentzua duen unibertso batean. Larre a - ren poesiarik gehienek “bilaketa” dute gai nagusi eta, honenbestez, erabiltzen dituen forma-berrikuntzak gai-eremu horren espresabide egokiak dira. Bilaketa hori, poemen arabera, nahiz garaien arabera, era askotara onduz doa. Bilatze-nahia amodio-irrikak gorpuzten du maiz, “hi” femeninoa poesi subjektuaren ipar eta helburu agertzen delarik. Maitalearen izaera etereoa, gorpuztik eta materiarik gabekoa, Larre a - ren amodiozko poesiaren ezaugarria da. Feminitate sentsual eta fisikoa, hain zuzen ere, arbuiatzen dituen gauzekin bat eginik aurkituko dugu. Hortik datorkio amodiozko poesia honi bere anbiguotasuna eta horregatik egin ahal izan zuen bilbotarrak, apur bat beranduxeago, poema hauen irakurketa mistikoa, erlijiosoa. Larrea-engan amodioa, beste bilatze-era guztiak bezalaxe, irrika da, nahia, eta gutxitan, ordea, gauzatzea, asetasuna.

Bilaketak hartzen duen beste itxura bat bidai itxura da, eta bereziki, itsasoz egindakoa. Eremu geografikoak ez dira beti kokaerrazak, nahiz eta batzuetan bilaketaren abiapuntu-arekin identifika daitekeen ikur edo sinboloren bat (kitarra, esaterako) azaldu. Baina hau, leku zehatz bat baino gehiago erreferentzi puntu bat da, balio bat: ezezkotasuna, mugigaitasuna, heriotza, talde-elbarritasuna. Erreferentzi puntu hori “gu” plural batekin identifikatzen da sarritan; subjektu poetikoak, ordea, pluraltasun horretatik atera eta aske sentitu nahi du. Horrela irudikatzen da sortu zen gizartetik ihes egin nahi duen poetaren —habia utzi nahi duen txori iheslariaren— nahia. Are zehazkaitzagoa da helmuga. Urruntasunaren bitartez ez ezik (aipatzen dituen leku-izenek —Ozeania eta hegoaldeko itsasoek, adibidez— errealitatearena ez baina mitoarena egiten dute) poesi subjektuaren xedea osatzen duten ezaugarri baikor guztien bitartez ere irudikatzen duelako. Nolanahi ere, bidaiaren funtsezko gaia ez datza bidaiaren bukaeran edo helmugan, arriskutsu eta zail bihurtzen duten zailtasunetan eta arriskueta baizik. Itsasoz eginiko bidaiak Larrea-engan batere segurua ez den ibilbide baten paradigma da.

Bidaiak batzuetan hasiera sinbolizatzen du eta horregatik uztartzen da, hain zuzen ere, beste bilaketa-mota batekin, arakatze intelektualarekin, ezagutzarekin, sarritan begiradaren bitartez irudikaturik. Larrea-ren poesigintzan behin eta berriro agertzen zaizkigu itsutasunarekin edota begien aurkako bortxakeriarekin (zaurituak, ebakiak) loturiko irudiak; hau topiko surrealista bat baino ez da, baina berriz ere, bere kasuan, eginbeharra betetzeko topa daitezkeen zailtasunak azpimarratzen dira. Hitzari, alegia, poesigintzaren oinarritzko eta behar-beharrezko elementuari buruzko erferentzietan ere, barra-barra azaltzen dira ezina eta ahulezi zantzuak. Larrea-ren poesigintzan beti zehazten da gardentasun handiagoz ezagunaren gaitzespena, ezezagunaren lorpena baino, hots, saialdiaren zailtasunak erdiespenaren baikortasuna baino. Bere olerkietan, bestalde, bada denboraren joan-etorriari buruzko insistentzia, existentziaren iheskortasuna eta eguneroko monotonia dramatizatu eta etsipenez beterik irudikatzen duena eta, honenbestez, bilaketa-imaginari horiei irri eta urgentzi kutsua ematen diena, gaitzespenaren eta beste gauza batekiko aspirazioaren zirrara nabarmenduz.

Bere poemarik gehienak bilaketa larriaren oinarritzko gai horrekin daude nolabait loturik. Ez dute, ia inoiz ere, beren bukaera erakusten, azkenekoek izan ezik, eta hauetan ere, lorpen hori ukapen baten forma paradoxikoan isladaturik agertzen da. Larrea-ren poesigintza, are arrakastaz ari denean ere, dramatikoa da, zeren hau ere erabateko askatzearen eran burutzen bait da, neurri batean mistikoez egiten duten antzera.

Larrea-ren hizkuntza poetikoan gailentzen diren oinarritzko aukerak deskribatuak gelditu badira ere, bere lanetan garapen formal bat ez ezik abangoardiako poesigintzaren parametro orokorren barnean kokaturik dauden adieraz-modu puntual desberdinak ere antzeman daitezke. Hauek une desberdinak osatzen dituzte gai horien formulazio zehatzean eta, honenbestez, beren justifikazioa, poetaren barru-barruko biografian, bere obran alegia, aurkitzen dute. Adierazi beharra dago, ordea, adieraz-modu horiek, hein batean, desitxuraturik agertzen direla *Versión celeste*-n, liburu honetako poemen

hurrenkera ez bait da beti kronologiaren arabera erabaki, Larrea-k hura errespetatu nahi zuela dirudien arren. Bere heldutasun-garaiaren hasieran, 1926-1927 inguruan, bere poemek egitura formal simetrikoa erakusten dute. Egitura hau bat dator bi errealtate bakoitzaren artean bakar baten bi alderdien arteko aurkakotasun gisara eratutako edukin batekin. Aurkakotasun hori izan daiteke, esaterako, bidaiak kokatzen den bi lekuren artekoa baina kanpokoaren eta barnekoaren artean ere koka daiteke, hots, itxurazko edo azalezkoaren eta funtsezko edo intimoaren artean. 1928-1931 bitarteko zenbait poematan desagertu egiten dira simetria hori eta sintaxi jarraitua. Poema dislokatuak dira. Hauetan imajin partikularre n hurrenkera ez du aurkitzen ezta gramatikalki diskurtsu ulergarri batean ezarriko duen sintaxi ordenatzaile baten uztardura ere. Formalki lokaturiko kutsua poetaren barnekotasunaren errepresentazio pesimista nabari baten men dago. Azken poemek, berriz, berreskuratu egiten dituzte sintaxi arina eta egiturarik koherenteenak, nahiz eta aurkakotasunen bitartez eginiko adierazpenek poesi eta bizi-ibilbide horren bukaera irudikatzen duen tonu afirmatiboago batean suntsitzeko joera izan.

Larrea-k bere sorkuntz urte horietan oso gutxi argitaratu zuenez aipatu bizi-ibilbide espresibo hau gutzia ez zen jendearengana iritsi. Beranduago poetak aditzera eman nahi izan zuen —agian uste izan zuen— isiltasun editorial hau erabaki estu baten ondorio zela, bere bizi-jarreraren eta bere literaturaren aurkako jarreraren erradikaltasunaren emaitza zela, baina hau ez dago batere argi. Nolanahi ere, egia da literatura espainolaren bizi-ibilbidearen eraginez behin baino gehiagotan ez zuela bere obraren baten argitarapena beste batzuen ardurapean egitea onartu. Gerardo Diego, Espainiako literatur giroarekin zuen zubi bakarra, izan zen salbuespen bakarrenetakoa. Bere gutunetan ikus daiteke, esaterako, Jorge Guillén-ek *Los cuatro vientos*²⁶ aldizkarian lagun zezan egin zion eskaerari uzkur. Baina egia da, aldi berean, behin eta berriz proposatu ziola bere buruari poemak inprimategira eramatea. Bere gutunetan hiru egitamu —maiz aipatu ditugun *Oscuro dominio* eta *Versión celeste* baino

lehenagokoak— aipatzen ditu: *Chanson meublée*, *Metal de voz* eta *Pure perte*.²⁷ Baina asmoak ez ziren bete zeraman bizitza irregularraren eta urte horietan bere barne-egoerak izan zituen gorabeherengatik. Larrea-ren optimismo-garaiek ez zuten luzaz irauten. Bere sorkuntzan nabarmentzen den etsipen etengabearen irregulartasun bera da: bere gutunek erakusten dituzte idazkerari buru-belarri lotu zitzaizkion garaien eta bere gogaitasuna zein etsipena alkoholaren, drogen nahiz amoranteen laguntzaz baretu nahian garaiko Montmartre-n bizitza bizitzeari eman zitzaion garaien arteko hurrenkera etengabea. Bere poemen argitaratze-etak bere poesigintzaren historiaren zati bat osatzen du, baina ez bete-beteko erabaki batengatik, poetaren baitako desordenak sorkuntza jarraitu bati eta bere obraren hedakuntzari eskaini beharko ziokeen arretari lekurik utzi ez ziolako baizik.

Alabaina, bere konposizioak maitatzeaz gain haien gailurretik bere garaikideen txikitasuna aldarrikatzera ausartzen zen autore batengan, produkzio-mailan gertaturiko irregulartasun hori ez da nahikoa poesigintza bertan behera uztera bultzatu zuen arrazoia ulertzeko eta, are gutxiago, beranduago h a rekiko erakutsi zuen interes urria argitzeko. Larrea-k behin eta berriz aipatzen du 1932 urtea bere poeta-garaiaren bukaeratzat; eta izan ere, hala da, hori bait da ezagutzen ditugun haren azken poemen kopietan agertzen den data, nahiz eta beranduago, 1934 inguruan, berriro ere bere konposizioak bildu, ordenatu eta berrikusi zituen Bergamín-en Cruz y Raya argitaldariaekin egingo zuen edizioari begira. Nolanahi ere, gerra zibila hasi eta bere poema-bildumaren argitarapenak 1936an ontzerik izan ez zuenez, Larrea-k ez zuen gehiago poesiarik idatzi eta ez zen gehiago idatzitakoez arduratu, “requerimientos, tan inesperados como singulares”²⁸ batzuek bultzaturik, *Versión celeste*-ren 1969-1970eko edizioetan parte hartu arte. Beste leku batean aztertu ditut edizio hauek eta baita 1989koa²⁹ ere. Ageri-agerian dago, Larrea-k berak prestatu zuen arren, poema-bilduma osatu gabe eta akatsez beterik dagoela. Bistakoa da, beraz, Larrea-ren interes-eza nabarmena garai horretan, hots, poesia utzi zuenetik berrogei urtera. Errenuntzia hau saioaren mesedetan ulertu ahal

izateko, kontutan izan behar dira, berriro ere, garai hartan horretara bultzatu zuten arbuioaren eta bilaketaren arrazoiak. Hauek aurkitzeko baliagarri izan dakiguke 1926-1934 bitartean —bere poeta izatearen helaroan— idatzitako *Orbe* diarioaren antologia baten arestiko edizioa.³⁰ Oharretan bere buruaren miazte sakona egiten duenez, datu-mordo bat eskainiko zaigu bere izakera eta arrazoiak ezagutzeko.

Testu horiek poesigintzarekin gordetzen duten harremana ez da batere sinplea. Poemak eta adierazpen poetikoaren arazoak, jakina, iruzkin askoren iturburu dira baina, batez ere, *Orbe*k adierazten ditu, poemen motibazio berberetan oinarrituz, zein den poemak bibentziarekin bat egitera behartzen dituen logika eta, azken finean, bertsogintzari muzin egitera bultzatzen duena.³¹ “Fin de mi poesía”ren sarreran baieztaturik geratzen da: “Presumo que el fin de mi concepto de poesía es llegado. (...) Hoy he llegado a la identificación de la vida con la poesía. (...) Y un hecho real, una creación real, tiene más valor que el infinito absurdo de falsas ideaciones.” (29-30 or.) Poesigintzatik, bertsotik bizitzarako jauzi hori da, hain zuzen ere, Larrea-k behin eta berriz azpimarratzen duena urte batzuk beranduago, berarentzat bere poemen garrantzi eskasa aipatzen duenean, “materiales menos abstractos” edo “aspecto más racional de la experiencia, más terrestre y positivo”³² bezala definitzen dituen fenomenoak aurkitu ondoren. Beretikaren muineko estuasunei hobeto erantzuten zizkieten egitate edo egitatearen bertsioak ediren ondoren, alegia.

Gogo-aldatze hori ulertu ahal izateko funtsezkoa da 1931ko urriaren 24eko oharra, bere poesia gehienak bezalaxe, esan guratsuki frantsesez idatzia. Bertan adierazten zaigu, lengoaiaren erabilera desberdinak aipatuz —egunkarietako izenburuak zein bertsoak—, zein den berarentzat poetikotasunaren ezaugarri nagusia:

“Voilà la haute signification du langage. Il ne s'arrête plus à l'oreille. Il ne tend pas à la caresser malgré qu'il la caresse. Il caresse l'imagination. (...) Justement toute la poésie moderne n'a fait que dépouiller le langage de sa propriété immédiate de soutenir une signification vulgaire. (...) C'est l'imagination qui travaille débarrassée du poids mort de la vie quotidienne. Elle

est obligée à comprendre. La poésie est la clef universelle. Trouvez ses relations et vous serez théologues et historiens, et même astronome. Vous serez le verbe. (...) Vous me croyez fou et fuyez parce que vous avez la sensation qu'il y a un fou ici. Et comme vous ne voyez que deux, vous et moi vous pensez que c'est moi. Il y a un fou. Mais ce n'est pas moi ni vous non plus. C'est le troisième celui qui est entre nous deux et va venir." (49-50 or.)

Poesiak, beraz, egunerokotasunean ez dagoenaz dihardu, errealitatean, hots, lengoaiaren esanahi arruntean ez dagoenaz. Eta logika hau muturreraino eramanez, alegia, poesia "la clef universelle" bezala ulertuz gero, oso ongi para daiteke munduarekiko ikuspegi arrunta, lengoaiaren esanahi arrunt horretan oinarrituriko eguneroko bizitzaren orde, beste errealitate ezberdin bat, imajinazioaren lengoaiaren, hizkuntza poetikoaren bitartez adierazten dena, hain justu. Lengoaia arruntak baieztatzen eta adierazten badu existentzia arruntaren errealitatea, hizkuntza poetikoari beste errealitate bat, errealitate poetiko bat egokitu behar zaio. Lengoaia da, izan ere, ero dagoena, bere eguneroko zentzuaren zuhurtzia herskorra bertan behera uzten duena eta, haren laguntzaz, bizitza desberdin bat eskaintzen duena. Ideia hauetan, oraindik ere, Larreak bere helaroko poesigintzaren abiapuntu izan zen poetika sortzailearen oinarriari eusten die: poesigintza, funtsean, ez da belarria laztantzen duen musika, lengoaiaren erabilera arrazional batean oinarritzen direnez gain, errealitate desberdinak sortzen dituen irudipenezko zera baizik. Jauzi kontzeptuala, beraz, honetan datza: kontzeptuok ez zaizkio literatur sorkuntzari egokitzen, mundu-ulermentari baizik.

Larrea-ren bilaketa, hainbeste etsipenen ostean, poeta batengandik espero genezakeen bezala, lengoaiaren egiten duen egintza sinple batekin amaitzen da. Egintza honi esker lengoia onarturik duen bere zentzuaren oztopoetatik askatzen du eta beste bizitza bat, arras desberdina, aurkitzen. *Orbe-n*, Larreak behin eta berriz birkontsideratzen ditu bere bizitzakoaldi desberdinak, ikuspegi berri batetik berrirakurriz, laburpen autobiografiko errekurrenteetan oinarrituz, ordurarteko poemei antzemaniko bere buruaren eta ibilbidearen

ikuspegi arras bestelakoa begitantzen zaio. Hala adierazten du bere diarioko beste pasarte batean, 1932ko irailaren 19koan:

“Hace años definí el poema a que aspiraba como ‘Sucesión de sonidos elocuentes movidos a resplandor’ y hoy no encuentro definición mejor de mi vida. Sucesión de actos elocuentes, llenos de sentido, movidos a resplandor. (...) Muchas desolaciones, muchas adversidades. Pero sobre todo ello el resplandor que informa y que dirige.” (179-180 or.)

Eta ia aldi berean, ikuspegi berri horrek errealitatea bera ere aldatzen du, behin hizkuntz mota bat —hizkuntza poetikoa— beste errealitate-mota baten —errealitate poetikoaren— ulergarritasuna ahalbideratzen duen “clef”arekin identifikatu eta gero: “En torno mío la realidad se producirá en adelante con arreglo a esa capacidad de comprensión.” (142-143 or.). Hizkuntza poetikoak errealitatea forma desberdin baten bitartez adierazteaz gain, sortu egiten du, *Genesis*-eko “Verbo divino”ak egiten duen antzera. *Orbe*-k bilakaera hori erakusten du batipat, poeten hizkuntza berriaren zeregin-aldatze hori: aurrerantzean, errealitatetik aldenduriko sorkuntza erakutsi ordez, itxuratasunean ezkutaturiko beste errealitate desberdin bat erakutsiko du.

Larrea-ren bilaketak hemen topatzen du bere amaiera, alegia, poesiak arlo “más terreno y positivo” honetan ere murgiltzerik baduela eta, hortaz, irudimenaren lengoaiak bizitza bera eta historia oro har beste era batera irakurtzerik badagoelaz jabetzean. Orrialde hauetan soma daiteke nola Larrea-k, lehenik, bere bizitza berrinterpretatzen duen eta ondorn, zenbait adiskiderenak —César Vallejo poeta, Jacques Lipchitz eskultorea— eta gertaera historikoak berak ere, non deskubritzen bait dira bere bibentziarekiko etengabeko paralelotasunak. Bestela esan, bere ibilbide intelektualaren helmuga hori, bere ondorengo prosaz idatzitako obrari hasiera ematen diona, bere bilaketaren hasierako usteen eta erabilitako baliabideen ondorio da: beste errealitate arras desberdin bat aurkitu nahian bazebilen, errealitate berberan aurkitu

zuen, berrirakurketa bat eskatuz, diskurtso arrazionalak agintzen eta ezkututzen duen guztiaren errebisio bat; eta poesigintza, hizkuntza poetikoa bere ebasioaren instrumentua bazen, gerora, errealtasunaren bertso zerutar horrena ere izan zen, unibertso poetiko horren eraikuntzarena. Laburbilduz, esan genezake Larrea poesia egitera bultzatu zuten bizi eta emozio-tentsioen ibilerak, azken finean, hura erredundante bilakatzen zuen aurkikuntzan topatu zuela bere amaiera. Zertarako idatzi irudimenezko errealtateek sortzen dituzten bertsoak, errealtate horiek errealtasunean bertan, edo errealtasunaren atzean daudenean? Zertarako eraiki irudiak bizitzan bertan beste batzuk askoz ederragoak irakur ditzakegunean? Larrea-k poesia idaztera bultzatu zuen arrazoi berarengatik utzi zuen poesigintza. Bere poemak bere errealtate zirraratsuaren, bere etsipenaren eta zentzuren bat izan beharko lukeen bizitza baten nahi larriaren adierazpide ziren. “*La vida tenía sentido*”³³ konturatu zenean eta hau poetikotasunaren bitartez jaso izan zitekeela, bertsoak, adierapide gisa, galdu egin zuen bere interes osoa. Larrea - ren gaia ez zen jada bilaketa eta honen ezbehar guztiak —adierazpide lirikoak eskatzen zuen gai indibiduala—, aurkitua zuena baizik, errealtate unibertsal berri hori. Eta hau adierazi ahal izateko beste baliabide batzuetara jo zuen. Hainbeste lilurutzen gaituen bere kemenaren erradikalitasun hori da, seguru aski, bere poemak trinkotasun oparoz eta gardentasun biziz tintatzen dituen. Seguru asko ere, topatutakoari atxekirik eusten duen uste finkoak bihurtzen du bere prosagintza, errebelazio guztiak bezalaxe, zorrotz eta ezgizatiar.

Euskaratzailea:

JON BERGARETXE

1. BERGAMIN, José: *Prólogos epilógicos*, Ed. Pre-Textos, Valencia, 1985, 79 or.
2. Juan Larrea-ri buruzko Nazioarteko Lehen Ihardunaldiak, EUTGk eta Deustuko Unibertsitateak eratuak, Donostian eta Bilbon burutu ziren 1984eko uztailaren 9tik 13ra. Nere ardura-pean argitaratu eman zen *Al amor de Larrea* liburuan (Ed. Pre-Textos, Valencia, 1985) aipatu ihardunaldietako agiriak biltzen dira. Celaya-ren iritziak ematen dio bukaera bere "Palabras para Larrea"ri (269 or.).
3. BERGAMIN, José: "Literatura y brújula", op. cit., 10 or.
4. GEIST, Anthony Leo: *La poética de la generación del 27 y las revistas literarias: de la vanguardia al compromiso*, Guadarrama-Labor, Barcelona, 1980, 81 or.
5. SORIA OLMEDO, Andrés: *Vanguardismo y crítica literaria*, Istmo, Madrid, 1988, 287 or.
6. LARREA, Juan: *Oscuro dominio*, Alcancia, México, 1934. Liburuska honen tirada 50 alekoa izan zen.
7. LARREA, Juan: "Versión Terrestre. Poesía-TEATRO-Destinos" in *Poesía*, 2 zk., Madrid, abuztua-iraila, 1978.
8. LARREA, Juan: *Versión Celeste*, Einaudi, Torino, 1969; *Versión Celeste*, Barral Ed., Barcelona, 1970; *Versión Celeste*, Cátedra, Madrid, 1989.
9. "Opino que debemos buscar *siempre* las formas nuevas, un nuevo molde en que vaciarnos, detestando en cuanto nuestra emoción lo permita todo lo pasado." LARREA, Juan: *Cartas a Gerardo Diego*, 1916-1980, Cuadernos Universitarios Mundaiz, Universidad de Deusto, Donostia, 1986, 96 or. Aurrerantzean gutunak edizio honetako data eta orrialdea zehaztuz aipatuko ditugu.
10. 1922ko ekainaren 7ko gutuna, op. cit., 152 or.
11. Liburu oparo eta ongi jantzi honi esker: BARY, David: *Larrea: Poesía y transfiguración*, Planeta, Barcelona, 1976.
12. Larreak berak kontatzen du deskubrimendua honako artikuluan: "Vicente Huidobro en vanguardia", *Revista Iberoamericana*, 106-7 zk., urtarrila-ekaina, 1979, 217-8 or.
13. LARREA, Juan: "Prólogo del autor" in *Versión Celeste*, Barral, Barcelona, 1970, 43 or.
14. 1918ko abenduaren 22ko gutuna, op. cit., 65-66 or.
15. 1919ko ekainaren 22ko gutuna, op. cit., 93 or.
16. *Grecia*, XLV zk., uztaila, 1920. aldizkarian argitaratua. Transkribitutako testua lortzeko David BARYk argitaraturiko bertsioarekin (op. cit., 192 or.) alderatzen dugu, poetarengandik zuzenean jasotakoa, eta kontutan dugu ere bere "usus scribendi" delakoa, hau da, era manuskritoan ezagutzen dugun garai horretako Larrea-ren poematik atera daitezkeen idazkera-erregelak. Testuaren berreirikuntza beharrezkoa da, ez bait dago oraindik orain ere. Larrea-ren poemen edizio zaindu eta txukun bat.
17. 1919ko ekainaren 22ko gutuna, op. cit., 92 or.
18. 1919ko irailaren 15eko gutuna, op. cit., 104 or. Jarraian aipatutako gutuna, 124 or.
19. 1922ko azaroaren 14eko gutuna, op. cit., 162 or.
20. LARREA, Juan: "Considerando a Vallejo, frente a las penurias y calamidades de la crítica", *Aula Vallejo*, 5-6-7, Córdoba, 1967, 171 or.
21. "Presupuesto vital" in *Favorables Paris Poema*, edizio faksimilarra, Librería Renacimiento, Sevilla, 1982, 1 zk., 3 or.
22. 1926ko abenduaren 18ko gutuna, op. cit., 204-5 or.
23. "Prólogo del autor", op. cit., 43 or.
24. "Presupuesto vital", op. cit., 2 or.
25. LARREA, Juan: *Versión Celeste*, Barral Ed., Barcelona, 1970, 76 or. Poema 1932koa da, nahiz eta Larrea-k liburuaren bigarren atalean kokatu, askoz zaharragoak diren poemekin. Poetak sorkuntza-data zaharrago bat eman zion — Robert GURNEYK (*La poesía de Juan Larrea*, EHU-UPV, Leioa, 1985, 242 or.) 1927-8an kokatzen du, Larrea aipatuz— seguru asko, Diego-ren 1934ko *Antología*-n azaltzen den data horretako poema bakarra delako.
26. 1933ko maiatzaren 25eko gutuna, op. cit., 257 or.
27. Ikus 1923ko azaroaren 21eko gutuna, op. cit., 170 or.; 1926ko maiatzaren 24koa, 200 or. eta 1928ko ekainaren 26koa, 220 or.
28. "Prólogo del autor", op. cit., 45 or.
29. Zabalkiro aztertu nituen lehen biak *La poesía de Juan Larrea. Creación y sentido*-n (Cuadernos Universitarios Mundaiz, Universidad de Deusto, Donostia, 1988, 83-139 or.). Azkenarentzat ikus nere "Una edición inane de *Versión Celeste*", *Insula*, 511 zk., uztaila, 1989, 10-11 or.
30. LARREA, Juan: *Orbe*, Pere GIMFERRERen ardurapean eginko edizioa, Ed. Seix-Barral, Barcelona, 1990. Liburua, interes handikoa Larrea-ren izakeraz eta obraz arduratzen direnentzat, zatariturik geratzen da editoreak ematen dituen adierazpen libreengatik, iluntasan ugari argitu gabe uzten bait ditu. Hau dela eta ikus nere "*Orbe de Juan Larrea*" iruzkina in *Insula*, 527 zk., azaroa, Madrid, 1990.
31. Intzidentalki diarioaren lehen anotazioa beste poema batzuekin batera agertu zen *Oscuro dominio*, "Cavidad verbal" izenburupean. Ikus baita ere 1933ko azaroaren 29ko gutuna, op. cit., 263 or.
32. "Prólogo del autor", *Versión Celeste*, Ed. Barral, Barcelona, 1970, 44 or.
33. LARREA, Juan: "Verdicto", *Poesía*, 20-21 zk., maiatza, Madrid, 1984, 34 or.

ANGELA FIGUERA: IBILBIDE POETIKOA

JOSE RAMON ZABALA

Gabriel Arestik 1960an *Egan* aldizkarian itzulpen-lan bat aurkeztu zuen, “Erderazko lau poeta, bi gipuzkoar eta beste bi bizkaitar” izenburupean. Antologia txiki hartan Angela Figuera Aymerich-ekin batera Blas de Otero, Gabriel Celaya eta J.M. Basaldua azaltzen ziren. Lan hartan Angelaren presentzia ez zen kasuala izan Arestiren obra osoan ikusten den bezala: dudarik gabe bere gustoko poesia zen Figuerak idazten zuena. Gainera une hartako literaturan Angela, Blas de Otero eta Celaya —“poesia sozialaren euskal triunbiratua”— elkarrekin jartzea, oro har, onartutako gauza zen.

Prezedente hauekin susma zitekeen Figuera-ren poesiak leku garrantzitsua beteko zuela Euskal Herriko eta Espainiako literaturan. Zoritxarrez ez da horrela gertatu eta poliki-poliki

idazle honen izena galtzen joan da ia-ia desagertu arte, eta sarritan gertatzen den legez, ahanztura handiagoa izan da haren jaioterrian. Horrela esan zidan behin Angelaren alargurak, Julio Figuera-k: “Angela beste inon baino, Bilbon da ezezaguna”.

Artikulu honen bitartez ezagutzagabetasun hori zertxobait gutxitzea nahi genuke, idazle honen fazetak eta ezaugarriak aztertuz. Horretarako bere biografiaren bidez haren poesiaren ikuspegi orokor bat aurkezten saiatuko gara. Guzti honen azken helburua, noski, emakume bilbotar honen literatur lanen irakurketa erraztea eta bultzatzea litzateke. Ea lortzen dugun!

BILBOKO URTEAK

Angela Figuera Aymerich Bilbon jaio zen 1902ko urriaren 30ean, familia akomodatu baten lehen alaba izanez. Ondoren, beste zortzi anai-arreba etorriko ziren, nolabait idazlearentzat oso garrantzitsuak izango ziren ezaugarriak hasieratik indartzera: amatasuna eta familiako elkartasuna.

Urte horietan idazleak ezagutuko zuen ingurunea zeharo etxekoa izango zen, katolikoa eta arazo handirik gabekoa. Bere heziketa ere Bilboko burgesiaren ohizkoa izango zen, Sacre Coeur-eko moja frantsesen ikastetxean. Heziketa honek garrantzi handia izango du bere poesian zeren, haren bitartez, frantsesa eta Frantziako literatura ezagutzeko parada izan bait zuen.

Eskolatik aparte mende-hasierako nesken bizimodua oso itxia zen eta askoz gehiago Bilboko ohizko giroan. Horregatik berehala ihardun behar izan zuen Angela gazteak etxeko lanetan. Gainera beste elementu aipagarri bat ere ematen da famili giroan: Angelaren amak oso izaera ahula zuen. Hori zela eta, alaba zaharrena bezala bigarren amaren papera bete behar izan zuen, batez ere anai-arreba txikiakiko.

Izan ere, etxeko giroa artea, kultura eta ikasketaren aldekoa izan zen zeharo. Ezin dugu ahaztu esaterako Angelaren aita pintorea zela eta zaletasun hori Rafael, seme-alabetan hirugarrenak, jarraitu zuela, hain zuzen. Aldi berean biblioteka on bat zuten eta guztiek libre erabiltzeko posibilitatea. Hori guztia kontutan edukirik ez da harrigarria Angelak idazteko eta irakurtzeko joera txiki-txikitatik izatea. Honekin erlazio handia izan zuen umeekin burutzen zuen lanak ezen, hauek dibertitzeko asmoz, gero hautsi egiten zituen ipuin eta poema asko idatzi bait zuen. Hori izan zen kontserbatzen den lehen garaiko idazlan askoren iturburua.

Lehenengo irakaskuntza bukatuz gero Angela institutorea doa. Datu hau, egun hain normala izan arren, garai hartan ez zen batere arrunta. Berea izan zen, hain zuzen ere, Penintsulan batxilergoa egiten zuen nesken lehen promozioa. Urte haietarako jada nabarmena zen Angelaren literatura eta letrekiko zaletasuna. Juliok esaten duenez irakurtzea benetazko deboiotzat zuen.

Hura izan zen baita ere bere senarra izango zenaren lehenengo ezagutze-garaia. Julio lehengusua zuen Angelak baina gazteagoa zen. Horregatik bien arteko erlazioa ume batekiko gazte batena izan zen. Gero Juliores aita —militarra bera—, Bizkaitik trasladatu zuten eta zenbait urtez Juliok eta Angelak ez zuten elkar ikusi.

Oro har, urte haiek lasaiak izan ziren idazlearentzat. Agian horregatik da hain txikia bere obran Euskal Herriaren presentzia. Dudarik gabe hori gaztaroko poesian ematen da batez ere. Zoritzarrez garai haietako oso olerki gutxi kontserbatu da zeren idazleak berak hausten bait zituen balio gutxikoak zirelakoan. Hona hemen Angelak berak zioena:

“Desde niña añoraba la poesía e intentaba escribirla por mi cuenta. Malos versos imitativos, inexpertos y sobrecargados que no publiqué y de los que apenas conservo unos cuantos.”

Gordetzen diren gehienak Angelak Juliori ezkontegunean opari zion kuadernoan kontserbatzen dira, 1920-1926 bitartekoak, idazleak “etapa imitativa” bezala definitu zuena

osatzen dutenak. Kutsu modernista eta posmodernista nabaria duten lan horietan, Bizkaia eta Bilbori eskainitako poemak aurki daitezke, bertako paisajeak goratzen direlarik. Ondorengo poesian inguru horietariko nolabaiteko nostalgia bakarrik mantenduko da, betirako galdutako haurtzaroarekin lotuta:

“Lejos de ti, pisando tierra seca
de la meseta adusta, entre altos pinos,
huelo tu vasto aroma, aprisionando
este menudo olor de río y hierba;
oigo tu enorme jadear, te veo,
mar de mi infancia, ¡mar!, siempre
esperándome.”

Sentimendu hau azken idazkietan ere isladatuko da. H orrela dio “Unas palabras a Pablo Neruda” poemak, 1974ean idatziak:

“Mi corazón quiso nacer
allá en Vizcaya, bajo un cielo
rubio y azul si el sol quería.”

Urte haietako lasaitasuna ez zen gehiegi luzatu. Gatazka zaharrak suspertzen dira. 1924ean, batxilergoa bukatu ondoren, Angelak Filosofia eta Letrak ikasteko asmoa erakusten du. Bere aitak, aldiz, egokiago ikusten du zerbait praktikoagoa egitea, dentista-ikasketak esaterako. Adostasunik lortzen ez dutenez Angela bi urtez egongo da ezer ikasi gabe. Azkenik aitak onartu egingo du gaztearen nahia, baina hori bai, Bilbotik irten barik.

Handik bi urtetara Angela Figuera-ren bizitza osoa baldintzatuko zuen gertaera ilun bat suertatzen da: aita hil egiten da, etxeakoak egoera ekonomiko larrian utziz.

MAITASUNA MADRILEN

Diru-ezak eraginik, Angelak Julioren familiaren laguntza behar izan zuen ikasketak bukatzeko. Helburu horrekin

Madrilera joan zen urtebeterako. Horrela Juliorekin zeukan harremana indartzeko aukera izan zuen eta karrera bukatu zuenerako ezkongai izatera iritsi ziren biak.

Ikasketak bukatu ondoren ere arazoak ez ziren konpondu. Amaren ahultasunak Angelaren eta bere amonaren gain utzi zuen familiaren ardura osoa. Aldi berean, aitik lagatako aseguru eskasak diru-iturri berriak bilatzera behartu zituen eta horrela 1928an Bilboko “Aceros Poldi” enpresan hasi zen lanean.

Eta egoera berez larria bazen ere, gertaera berri batek gogortu egin zuen berehala: 1930ean amona hil zen. Urte berean Figuera familiak Madrilera joateko erabakia hartzen du, han lan egiteko posibilitate handiagoa izango dutelakoan. Bilbon Rafael Figuera bakarrik geldituko da. Angelak hogeitazortzi urte zituen eta harrez gero, bidaia puntualez aparte, ez da Bilbora itzuliko. Behin Madrilen ere, gauzak ez ziren errazak izan. Poliki-poliki lan desberdinak aurkitzen joan zen eta horrela hasi zen Angela Decroly eta Montessory eskoletan lanean. Urte haietan, ezbeharrak zirela medio, gerratean eta gerraondoan garrantzitsua izango zen famili batasuna forjatu zen. Gerago idazleak horrela deskribatuko zituen urte haiek: “tras de muchas noches sin cenar y cosas de ésas, nos fuimos arreglando.

1932an Institutuko oposizioak gainditzen ditu eta Huelvara bidaltzen dute, bertako Institutura. Berarekin batera Julio —beresenarra ordurako— joan zen. Ezkontza honek ia berrogeitamar urte iraungo zuen eta oinarrizkoa da Angela Figueraren poema asko ulertzeko. Honekin bete egin zen gaztaroko olerkietan isladatzen zen aspiraziorik handienetariko bat: maitasunaren erdiespena. Bestea, amatasunarena, oraindik ez du lortuko nahiz eta haurdun gelditu, zeren 1935ean forzeps bitartez jaiotako umea hil egin bait zen. Galera hau gogorra gertatu zitzaion Angelari urte batzuk geroxeago idatzitako lerrootan ikus daitekeenez:

“Debisteis dármele. Yo hubiera debido tenerlo un breve tiempo entre mis brazos, pues sola para mí fue cierto, vivo...”

Dena dela 1936an berriro ere haurdun gelditu zen. Zorituraz, orduan ere, bere desio guztiak zeharo bete gabe gelditu ziren gerraren hasierarekin.

GERRA ZIBILA

1936ko uztaila zen eta Angela Figuera-k Madrilera joan behar izan zuen Institutuko katedradun bezala konfirmatua izateko ikastaro berezia egitera. Horren ondorioz, Marokko-ko altxamenduak hiriburuan harrapatu zituen senar-emazteak. Julio miliziar batailoi batean alistatu zen. Erabaki hau hobeto ulertzeko, esan behar dugu, bai Angelaren eta baita Julio Figueraren senideek ere, Pablo Iglesias-en alderdia begi onez ikusten zutela.

Gerraren lehenengo hilabeteak ez ziren batere errazak gertatu. Arrazionamendu eta bonbardaketa-egunak maiz aipatzen dira Angelaren geroko poesian:

“Y en medio del olvido refrescante,
 en lo mejor del conseguido sueño,
 surgía denso, alucinante, bronco
 el bélico zumbir de la escuadrilla.
 Bramando, sacudiendo, despeñándose,
 atropellándose los ecos,
 iban las explosiones avanzando,
 cada vez más cercanas,
 hasta que, al fin, la muerte en torrentera
 en avalancha, transcurría
 sobre nuestras cabezas sin refugio.”

Beldurra, gosea, bakardadea, maitasuna tragediaren hegian: “años durísimos y amargos, erizados de trabajos, dificultades y dolores”.

Urte bereko abenduan Juan Ramón jaio zen, Angelaren seme bakarra. Kasik bi hilabete geroago Figuera familia Valentziara ebakuatua izan zen. Bitartean, Julio destino des-

berdinetan egon zen 1938ra arte. Urte honetan Murtzia-ko Molina de Segura herrira bidali zuten. Han elkartu zen berriro bikotea eta bertan gelditu zen gerra bukatu arte.

Gatazkaren azken egunak nahikoa konplexuak izan ziren. Juliok komisario politikoarekin eztabaidatu egin zuen; hori zela eta komunistatzat jo zuten eta gartzelaratua izan zen Monteoliveteko presondegian gerra bukatu arte. Une hori heldu zenean preso guztiak kaleratuak izan ziren.

Gerra zibilaren amaieran Figuera familiaren egoera ez zen batere ona: lanik gabe eta galtzaileen bandoan. Horregatik Madrilera itzultzea erabaki zuten, han errazago izango zelakoan lana aurkitzea eta, aldi berean, frankisten errepresiotik ihes egitea.

Urte haiek oso gogorrak izan ziren. Julio paludismoak jota, atxilotua izateko beldurrez eta bizitzeko dirurik gabe. Dena dela ateratzen ziren lanekin aurrera egin zuten. Horregatik hasiera batean Angelak, semeak eta familiako beste emakumeek Soriara joan behar izan zuten egoera ekonomikoa finkatu bitartean. Denboraldi honen nekeak arrasto sendoa utziko du Angelaren poesian.

LOHIZKO EMAKUMEA

Geldiro-geldiro egoera normaltasun-itxura hartzen joan zen, gerratearen itzala eta ondorioak denbora luzez gainean eduki arren. Egoera hartan Angelak etxea hartuko du helburu bakartzat. Bere barne-munduak galdutako lasaitasuna berreskuratuko du eta idazteari ekingo dio berriro ere, *Mujer de barro* (1948) bere lehen poema-liburua sortuz. Bertan oso ondo jasotzen da egoera hura, familiarra, itxia, barru-barrukoa: “yo y los míos descansando tras la tormenta”. Urte horietako poemek oroimenez jositako inguru harmoniko bat jasotzen dute eta, bertan, poetak ama tradizionalaren papera jokatu du inongo arazorik gabe, “Ser mujer” olerkian ikus daitekeen bezala:

“Ser mujer:
 ser la madre que engendra y la hermana que escucha;
 ser la novia que besa, ser el premio en la lucha,
 ser mujer...
 Ser la fuente de vida para el labio del niño;
 para el labio del hombre
 ser placer.”

Lerrohauek gero bere poesian ezagutuko diren jarreretatik urrun samar daude. Dena den, Angelak beti errebindikatuko du amatasuna emakumearen ezaugarri bezala.

Urte haietan Angelak asko idatzi zuen, ez argitaratzeko asmoz, sentimenduak bideratzeko baizik. Aldi berean, ahal duen guztia irakurtzen du. Hala ere, garai hartan poesiaz eza-gupen eskasa zuela aitortuko du: klasikoak, Juan Ramón Jiménez, Antonio Machado, Bécquer, Frantziako sinbolistak...

Lehenengo liburua, *Mujer de barro*, Julio Figuera-ren eraginez agertuko zen. Angelak hasieran ez zuen poemaok argitaratzerik nahi. Agerpen honek eta urtebete geroagoko *Soria pura*-renak idazlearen bizitza aldatuko zuten zeharo. Alde batetik argitaratzeak estiloa depuratzera bultzatzen duelako; bestetik, Angelari gerraosteko giro literario eta intelektualekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko diolako. Faktore honek eragin handia izango du bere garapen poetikoa ulertzeko.

Mujer de barro liburuan famili mundua isladatzen bazen, *Soria pura*-n gauza bera aurkituko dugu baina paisaje paradisutar batean murgildurik. Soria izango da paradisia eta Adan eta Eba berrituak, berriz, protagonistak. Erotismoak ere presentzia handia izango du bi liburuetan. Hura izan zen, hain zuzen ere, Angelak zentsurarekin izandako lehen arazoaren iturburua. Horrela kontatzen zion Blas de Otero-ri:

“No sé si le dije que a mi *Mujer de barro* me la mutilaban en su primera parte casi integra. ¡Qué inefable pudor! Menos mal que, como la rigidez de las leyes sólo iguala a la venalidad de los que las aplican, una buena influencia aplicada a tiempo, dejó salir mi libro íntegro. *Íntegro*: si no, no lo publico.”

Angelak maitasuna eta erotismoa modu irekiz tratatu zituen bi liburuotan eta hori ezin uler zitekeen une hartako giro itxian. Ikus dezagun adibide labur bat:

“Río de noche: la luna
se reclinaba en el agua
como una mujer desnuda.”

(*Río de la noche*)

Mujer de barro eta *Soria pura* liburuak Angelak “etapa subjektiva” bezala definitu zituen. Poesia hau elementu herritarrez beteta dago, forma sinpleak erabiliz, oinarri tradizionalen posmodernismoaren ereduak jarraituz, Juan Ramón Jiménez-en eraginez batez ere. Azken honek horrela idatzi zion *Soria pura* irakurri ondoren:

“Ando por los versos de usted como por un campo de árboles, aguas, arenas, animales, matas, vientos, alguna persona natural. Y me encuentro en ese campo a gusto. Esta es mi crítica.”

LEIHO IREKIA

Baina mundu hori ez da kalekoa, ez da erreala, eta progresiboki idazleak barneko eta kanpoko munduen arteko kontraesana ezagutuko du; horrek konpromisura eramango du. Prozesu horretan eragin berezia izango dute bai Blas de Otero-k eta baita Gabriel Celaya-k ere.

Blas de Otero, Rafael Figuera-ren bitartez ezagutu zuen eta ezaguera horren lekuko lehen aipatu dugun korrespondentzia dugu. Horrela kontatzen ditu Sabina de la Cruz-ek —Blas de Otero-ren alarguntsak— bi poeten arteko lehen harremanak:

“Estas relaciones debieron comenzar hacia el año cuarenta y ocho. De esa fecha son las primeras cartas que conservo, hasta el cincuenta y seis. Durante ese tiempo se cartearon mucho. Ella le enviaba cartas muy extensas.

En general hablaban en aquellas cartas de poesía, de estética, de problemas como el sentimiento del poeta en poesía, el tema

de los otros, problemas existenciales del hombre... No hay referencias a la guerra civil. A diferencia de Angela, Blas de Otero empezó a escribir de forma más comprometida a partir de la repercusión de la II Guerra Mundial y del existencialismo europeo.”

Adiskidantza honen iturburua, esan dugunez Rafael Figuera pintorea —Angelaren neba— izan zen. Honek Bilbon kultur lan interesgarria zeraman aurrera. Besteak beste, Bilboko Karmelon zeukan txaletean tertulia berezi bat bultzatu zuen. Bertatik, Jorge Oteiza, Federiko Krutwig, Rafael Zarco, Rafael Morales, Gabriel Celaya, Anparitxu Gaston, Angel Ortiz Alfau, Blas de Otero eta beste asko pasa ziren. Tertulia haien ezauzgarriak bi ziren: bata, artista eta idazleak batera biltzea eta bestea frankismoaren aurkako jarrera kritikoa indartzea.

1950ean oporretan Bilbora itzuli zenean, Angelak zuzenean ezagutu ahal izan zuen zirkulu hau. 1951ko udan ezagutu zuen pertsonalki gutunez jadanik ezagutzen zuen Blas de Otero. Handik aurrera bien arteko gutunak hunkikorraoak izango dira. Gutunotan deskubritzen da bi idazleen ideologia poetikoaren garapena: estetizismo eta subjektibitate gizakien sufrimendura.

Bilakaera horretan beste elementu azpimagarri bat dugu: Gabriel Celayaren *Las cosas como son* (1948) liburuaren irakurketa, sekulako deskubrimendua izan zen Angelarentzat:

«Lo que yo quería decir en mis poemas “podía” decirse en un lenguaje más sencillo, menos engolado y “poetísimo”.»

Erlazio hauetatik edo, hobeto esanda, paraleloki, Angelaren poesia ireki egiten da kanpoko mundura, barneko arkin zuen muga hautsiz. Haustura hori “Egoísmo” poemari deskribatzen da:

“Contra el sucio oleaje de las cosas
yo apretaba la puerta. Mis dos manos,
resueltas, obstinadas, indomables,
la mantenían firme desde dentro.

(...)

Yo, dentro. Yo: insensible, acorazada
 en risa, en sangre, en goce, en poderío.
 Maciza, erguida; manteniendo firme,
 contra el alud del llanto y de la angustia,
 mi puerta bien cerrada.”

Vencida por el ángel (1950) liburuko poema honekin ematen dio hasiera “etapa preocupada” delakoari. Aldaketa Angelak berak argitu zuen:

“Me detuve, abrí los ojos y miré a mi alrededor. España, mi España en posguerra y el mundo en guerra. España era mi tierra maltratada y herida. Pero el mundo también era “mi” mundo, porque toda la Tierra es patria de todo hombre. Miré hacia atrás, me enfrenté con el presente y supe que no se podía “descansar”, que no había tiempo ni lugar para ello. No teníamos derecho a un descanso personal y exclusivo, aunque hubiera sido ganado a tan terrible precio. Así, otras ideas, otros sentimientos llenaron mi poesía y salió *Vencida por el ángel*. Ahí empieza mi poesía preocupada.”

Liburu hau agertu zen urte berean Angelaren beste poema garrantzitsu bat ere —“Exhortación impertinente a mis hermanas poetisas”— argitaratu zen, aldizkari eta toki askotan jasotako benetako deklarazio ideologikoa. Bertan, filosofia desberdin bat aurkitzen dugu; feminista izan gabe, emakumeare n paper tradizionalaren aurka azaltzen da:

“Porque, amigas, os pasa que os halláis en la vida
 como en una visita de cumplido. Sentadas
 cautamente en el borde de la silla. Modosas.

(...)

Levantaos, hermanas. Desnudaos la túnica.

(...)

Eva quiso morder en la fruta. Mordedla.
 Y cantad el destino de su largo linaje
 dolorido y glorioso. Porque, amigas, la vida
 es así: todo eso que os aturde y asusta.”

Nolabait hortik sortzen da bere ondorengo poesiaren ezau-
garri nagusi bat izango dena, emakumearen gizartean paper
aktiboaren defentsa; dena dela defentsa hori mamian ez da
feminista izango, zeren eta zentzu askotan bat etorriko bait
da emakumearen jarrera eta funtzio tradizionalekin:

“El Angel se arrodilla ante María.
Mas, ¿quién dice a la madre pecadora
bendito sea el fruto de tu vientre?
Con oro, incienso y mirra
los Magos te enriquecen en la cuna.
Pero ¿quién se arrodilla
y entrega sus tesoros a los niños descalzos?
Tu mano se levanta
y el agua es vino, el pan interminable.
Pero ¿quién pone los manteles
en casa de la viuda
y quién ofrece un vaso de esperanza
a los que se desvelan por la noche?”

Dударik gabe, galdera hauei erantzutean emakume bat
aurkitzen da, betiko eginkizunak aurrera eramaten.

Estilo eta ideien aldetik esan behar dugu *Vencida por el ángel*-ekin irekitzen den etapak *Toco la tierra* libururaino une
desberdinak ezagutuko dituela, existentzialismotik
gizarte-salaketaraino, lerro libretik sonetoraino, azken finean
tartean hamabi urte igaro bait ziren.

ALFERRIKAKO GARRASIA

Honenbestez, *Vencida por el ángel* liburuskarrikin aldi berri
bat irekitzen da, gizartearekiko kezkaarena, baina baita ontolo-
gia eta metafisikarena ere; kutsu horretakoak izango dira *Los días duros* (1953) eta *Vispera de la vida* (1953). Bi liburuotan
berrirone indibidualismora eta introspekziara itzuliko da ida-
zlea nolabait. Esan daiteke bertan existentzialismoa ardatz
nagusi bihurtzen dela, bizitzaren interpretazio ezkorra eta

negatiboa. Jainkoaren existentzia bera ere absurdoaren bukaera litzateke.

Izan ere, idazlea, ostera ere, eguneroko errealitatera hurbilduko da eta horren ondorioa *El grito inútil* (1952) izango da. Lan horretan ere nabarmena izango da lehen aipatutako Celaya-ren eragina eta batez ere, gauzak aldatzeko beharraren sentiberatasuna:

“No podemos cruzarnos de brazos.
No podemos.
No podemos siquiera esperar a mañana.
Hay que buscar, hermanos, que buscar enseguida.”

Hala ere, liburu honen oinarritzko ideia Celaya eta Oteroren-gandik nahikoa urruti dago, izenburuak berak erakusten duenez. Angela Figuera-ren ustez zerbait egin behar da errealitatea aldatzeko baina testuinguru horretan zalantzan jartzen du poesiaren funtzioa. Harentzat poesia ez da “etorkizuneko argaturiko arma” izango. Aitzitik, sarritan erakutsiko du jarraera ezkor bat, literaturaren bitartez lor daitekeenaren aurrean:

“¿Qué habrás hecho poeta? Ni una lágrima sola,
ni una tibia, redonda lagrimita de niño
habrá sido enjugada. Ni unos labios sedientos
quedarán refrescados. Ni un hilillo de sangre
que las venas perdieron, será vuelto a las venas.”

Ondorioak ez du zalantzarik uzten: “Ser poeta es superfluo”, “ser poeta es inútil en un mundo acosado”. Eta erreakzioz lan praktikoagoa planteatuko du:

“Mejor fuera callarse. Licenciar la metáfora.
Y ver si a duras penas o a duras alegrías
abrimos un camino al cabo de la calle.”

Lerro hauek idazten dituenean —segur aski ez da kasualitatea— Angelak kaleko lanari ekiten dio: sortzen diren iniziatiba guztietan (omenaldi, aldizkari, tertulia, hitzaldietan...)

hartzen du parte. Aldi berean, Madrileko Biblioteca Nacional-ean hasten da lanean eta bertako “Bibliobús” izeneko zerbitzuan. Hau liburutegi ibiltari bat zen eta bere helburua Madril inguruko auzoetara kultura hurbiltzea zen. Horrela kontatzen zion Blas de Otero-ri:

“Sabrás que a la vejez he resuelto dedicarme a la vida activa y trabajo por la mañana en la Biblioteca Nacional y por la tarde en una biblioteca ambulante o Bibliobús que va prestando libros por los barrios extremos y suburbios madrileños. Este último es un servicio estupendo y yo lo hago encantada, con verdadero apasionamiento, aunque la remuneración es muy pequeña, como todas las que se cobran en España salvo raras y casi siempre poco honrosas excepciones. Se pone uno en contacto con el pueblo y se le orienta y educa en la lectura y no sabes cómo lo agradecen y qué contentos y amables se muestran con nosotras las bibliotecarias, y hasta nos toman afecto...”

Egoera hartan dena prest zegoen idazleak errealitatearen kritikan beste urrats bat eman zezan, bere frankismoaren aurkako disidentzia erakutsiz.

POESIA KLANDESTINOA

Angelaren iritzi disidenteak gerraondoko hasieratik nabariak ziren arren, askoz ere jarrera erradikalagoa hartuko du 50eko hamarkadaren bigarren zatian. Frankismoaren zentsura, jakina, oztopo ikaragarria izan zen iritzi horiek zabalatzeko. Egoera horretan argitaratu zen bere libururik eza-gunena: *Belleza cruel* (1958). Argitara baino bi urte lehenago zera idazten zion Blas de Otero-ri:

“Tengo casi acabado un libro *Belleza cruel* que me piden para dos colecciones. Aún no sé lo que haré con él. Tal como están las cosas lo habría de podar bastante y se me iba a quedar muy esquelético.”

Nolabait parrafo honetan ikusten da zer-nolako giroan mugitzen ziren garai hartako intelektualak.

1956an Parisera joango da ikasketa batzuk egiteko asmoz. Han Pablo Neruda, idazle txiletarra, ezagutuko zuen. Erlazio horretarako aitzakia *Belleza cruel* liburuaren esku-izkribua izan zen, Angelak berak esplikatu zuenez:

“Yo tenía en París una amiga que era también amiga de Neruda. Un día le llevó una copia del manuscrito que yo había enviado a México. Después de leer él ese libro nos conocimos. Neruda no quería saber nada de la situación española después del treinta y nueve. Estaba amargado o resentido con España, no sé exactamente. Pero yo le discutí su posición y le hablé de los poetas: Blas de Otero, Gabriel Celaya, Crémer y otros. Le hice ver que aquí había una lucha.”

Kontaktu honen ondorioz, Nerudak poeta espainiarrei zuzendutako gutun bat idatzi zuen eta Angelari eman zion Penintsulara eraman zezan. Idazkian Nerudak estatu espainiarrean bizi zen egoeraren aurrean bere sentiberatasuna erakusten zuen eta, aldi berean, iraganaldiko errakuntzak gaindituz, kantu poetikoaren unibertsalizazioaren alde agertzen zen. Nerudaren gutuna eskuz esku zabaldu zen, 1973a arte ezin izan bait zen Espainian argitaratu eman.

Bitartean, Angelak Mexiko-ra bidalitako esku-izkribua han argitaratzeko, idazleak jakin gabe “Nueva España” poesia lehiaketara aurkeztua izan zen eta sari-irabazle suertatu. Saria Unión de Intelectuales Españoles elkarteak ematen zuen eta León Felipe-ren hitzaurreaz argitaratu zen. Sarrera horrek, izenburutzat “Palabras...” zuenak, oihartzun handia izan zuen eta frankistek manipulatu izan zen. León Felipe-k gerra bukatzerakoan idatzitako lerro batzuk aipatzen zituen. Haien arabera, galtzaileek, aldean zeramaten abestia, aitaren etxea mutu utziz:

“Y ahora estamos aquí, del otro lado del mar, nosotros, los españoles del éxodo y del viento, asombrados y atónitos oyendo a vosotros cantar: con esperanza, con ira, sin miedos... Esa voz... esas voces... Dámaso, Otero, Celaya, Hierro, Crémer, Nora, de Luis, Angela Figuera Aymerich... los que os quedásteis en la casa paterna, en la vieja heredad acorralada... Vuestros son el salmo y la canción.”

Egoera horretan *Belleza cruel* klandestinoki banatu behar izan zen barnean. Zenbait liburudendatan ezkutuan saltzen zen eta askotan makinaz kopiaturik zabaltzen.

Belleza cruel-en mamia Espainiaren eta, oro har, gizakiaren egoeraren aurrean protesta eta salaketa-sentimendu bat da. Zentzu honetan argitasuna eta zintzotasuna izango dira liburuaren gakoak:

“Es un libro rabioso que hervía y fermentaba en mi interior desde hacía tiempo. (...) En el mejor modo que supe, a golpes, no sé si bien o mal, de un modo sincero, salido a borbotones de mi sentir, expreso indignación, rencor rabioso, censura, y... hasta una esperanza, que me atrevo a llamar desesperada, en un mañana que está en manos de la juventud. Un mañana que tarda en llegar. Pero que ha de llegar al fin aunque yo no lo vea.”

Liburu horrekin Angelak lortutako protagonismoak ez zuen gehiegi iraun, gertaera desberdin batzuek giro literarioetatik baztertuko bait dute.

NEKADURA ETA BARRUKOTASUNA

Prozesu horren lehen kausa Julioren lan-aldaketa izango zen. 1959an Avilés-era joango da bertako enpresa batean lan egiteko eta bi urteren buruan Angelak, bibliotekako lana utziz, bide bera hartuko du. Behin Asturias-en idazlea poliki-poliki giro intelektualetatik deskonektatua geldituko da.

Giro horretan azken liburua burutuko du: *Toco la tierra* (1962), “Letanías” azpтитuluaz; liburu honetan ikus daiteke ideia berdinen errepikapena zein neurritaraino zen gauza kontziente bat. Nekadura une askotan nabaria da liburuan zehar:

“No sé, no sé si ya querréis oírme,
decir amén, seguirme, acompañarme,
cuando, tocando tierra, rezo y firmo
mi larga letanía: manos duras
sudor y fe, cansancio y esperanza;

(...)

Hijos, ya veis: soy vieja y me repito,
mas no quiero callarme ni morirme.”

Geroztik poema bakar batzuk —errebindikatzaileak gehienetan— baino ez zituen idatziko: “Romance de Pueblos-paña”, 1962ko grebalariei eskainia, “Vietnam” (1967-68), “Unas palabras a Pablo Neruda” (1974)...

“En Avilés —adierazten du Julio Figuera-k— dejó de escribir poesía porque, decía, que no quería repetirse. Unicamente cuando algo le estremecía o sacudía, por injusto o por cruel, le inspiraba algún poema de protesta.”

Urte horiei dagokionez aipamen berezia merezi du, lehen aipatu bezala, Angelaren kreatibitatearen alderdi batek, hots, umeei zuzendutako poesiarenak. Nola edo hala, zahartzaroan ere, ilobak zirela eta, gaztetako egoera bera aurkezten zaio. Hori da, hain zuzen ere, azkeneko bi liburuen sorburua: *Cuentos tontos para niños listos* (1979) eta *Canciones para todo el año* (1984).

Dena den idazlea gero eta ahaztuagoa aurkitzen da. Hasieran bere poesiak antologiak eta itzulpenak argitaratzen baziren ere, poliki-poliki erreferentziak urritzen doaz. Anartean bere osasuna ez da oso ona, 1980tik aurrera batez ere. Azkenik, gaixondo luze baten ondoren 1984eko apirilaren 2an hil zen Angela Figuera, komunikabideetan kasik aipamenik izan gabe.

POESIA GERRAONDOKO BIDARTEAN

Honaino, beraz, idazlearen ibilbidea. Une honetan zein izan den Angela Figuera-ren garrantzia galde daiteke eta bere eragina gerraondoko literaturan. Alde batetik laga digun obra ez da oso handia: apenas hamar liburu, poema bakan batzuk eta zenbait itzulpen-lan.

Dударик gabe poesia honen baliorik handiena ez datza kantitatean, sakontasunean baizik. Angelaren poesia guztiz egia-tia da eta, seguru asko, hori da bere ezaugarri nagusia. Kontzepzio autodidakta batetik Angelak mundu poetiko bat eraiki zuen behin eta berriz errepikatzen diren kezken inguruan: gizakia, amatasuna, heriotza. Esan daiteke haren obra alegoriaren bidetik uler daitekeela, poesia honek, aro edo etapa desberdinen gainetik, bere mamian batasun handia daukala erakutsiz.

Bestalde, Angelak oso une gogorretan idatzi zuela esan beharra dago, frankismoko urte gordinenetan alegia. Une historiko hartan benetako erro bihurtzen da poeta bilbotarraren figura: emakumea gizonen artean idazten; ama eta amona emakumearen paper aktiboagoa errebindikatzen; Euskal Herriko alaba Madrilen; poeta, artista, pintore eta intelektualekin harremanetan; 27ko belaunaldiko izan zitekeen idazlea geraosteko belaunaldian integratua...

Bere pertsonalitatean, beraz, nolabait, atzerriko eta bameko idazleak, erdal eta euskal idazleak, Ameriketakoak, etab. bil-tzen direla esan liteke.

Ikusten denez ugariak dira Angela Figuera-ren errebindikazioa justifikatzen duten elementuak. Idazle handi baten aurrean gaudela ez ahazteko, hona hemen Carlos Alvarez-ek dioena: "la voz de Angela Figuera Aymerich es la voz de un altísimo poeta: uno de los poetas importantes de este siglo tan pródigo en ello". Etsigarria litzateke, beraz, hain baliotsua den testimonioa eta obra galtzea.

ANGELA FIGUERAREN POESI LIBURUAK

Mujer de barro. Saeta argitaletxea, Madrid, 1948.

Soria pura. Jura edizioak, "Mensajes" sorta, Madrid, 1949.

Vencida por el ángel. "Verbo" edizioak, Alicante, 1950.

El grito inútil. "Ifach" sorta, Alicante, 1952.

- Víspera de la vida.* “Nebli” sorta, Madrid, 1953.
- Los días duros.* Afrodísio Aguado argitaletxea, “Más allá” sorta, Madrid, 1953.
- Belleza cruel.* Compañía General de Ediciones. México D.F., 1958. Bigarren edizioa Lumen argitaletxea, “El Bardo” sorta, Barcelona, 1978.
- Toco la tierra. Letanías.* RIALP edizioak, “Adonais” sorta, Madrid, 1962.
- Cuentos tontos para niños listos.* Sierra Madre edizioak, México, Monterrey, 1979. Baita ere Cogarbur inprimategian, El Burgo de Osma, 1980.
- Canciones para todo el año.* Trillas argitaletxea, México, Monterrey, 1984.

Lan guzti hauek Hiperión argitaletxeak *Obras completas* izenburupean argitaratu zituen Madrilen 1986an. Bertan, Angela Figuera-ren obra ezagutzeko oinarrizkoa den liburu honetan, besteak beste (Nerudaren gutuna, informazio biografiko eta bibliografikoa, etab.), poema bakan batzuk ere jasotzen dira.

G AIAK

GOTZON AURREKOETXEA

EUSKAL DIALEKTOLOGIA ETORKIZUNAREN ATARIAN

IÑAKI IÑURRIETA

TELEBISTAKO LEHIAKETEN AZTERKETA-SAIOA

EUSKAL DIALEKTOLOGIA ETORKIZUNAREN ATARIAN

Nazioarteko Dialektologi Biltzarra

GOTZON AURREKOETXEA

Azken urteotan loratze bikaina ezagutu dute dialektologiari buruzko lanek gure artean, bai tesi moldean, bai aldizkarietako artikuluetan. Hazkunde garaian bizi garena esan daiteke. Inoiz baino lan serioagoak ari dira egiten eta inoiz baino lan gehiago argitaratzen.

Geroago eta gehiago dira, halaber, gai hau aztertzeke eratzten diren ihardunaldi, mintegi, etab. Badirudi euskal dialektologia aro berri baten sartzen ari dela.

Bestalde, aurten ospatzen da Louis Lucien Bonaparteren heriotzaren mendeurrena.

Efemeride hau ospatu behar zela ez du inortxok ere ukatuko kontutan hartzen bada printzea euskal dialektologia modernoaren sortzaile kontsideratu dela. Euskal dialektologiaren “aita”. Ez naiz Bonapartez, ez bere obraz hemen arituko, ez

dela momentua uste dut. *Jakin*-en irakurlea jakitun dela uste dut, bestalde, eta xehetasunetara jo nahi izanez geroz badu eskuragarri haren eta bere lanaren berri zehatza emango dion bibliografia.¹

Mendemugararen ospakizun hau abagadunean dator zientzia honek egun euskal ikerketetan ezagutzen den gorakada eta aztertze-lanen kopurua gogotan baldin badugu.

Euskal dialektologiak bizi duen egoera honetan kokatzen da baita geolinguistikan den lilirik preziatuena ere: hizkuntz atlasa. Euskaltzaindia burutzen ari den Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA), hain zuzen ere. Jadanik urte batzuk lanean eman ostean orain arte eman dituen urratsak jendaurrean agertarazi nahi izan dituzte, komunitate zientifikoaren aburua entzun eta eztabaida-objektu izan zedin.

NAZIOARTEKO DIALEKTOLOGI BILTZARRA

Hiru gertakari hauek, hots, euskal dialektologiaren hazkundera, L.L. Bonaparteren mendeurrena eta EHHaren iharduerak bultzatu zuten Euskaltzaindia dialektologiari buruzko biltzar bat egitera.

Mezri zuen jakintza arlo honetan bizi dugun moduko egoera baten aurrean pausaldi bat egitea, eztabaida-gune bat sortzea.

Asmo hori gauzatzeko saiakuntzan aukera ezberdinak izan zituen mahai gainean, baina ez du nahi izan nolana hiko biltzarra eratzea. Konpromisu txikiagoko aukerak bazituen hor: biltzar historiografikoa batetik, Bonaparteren inguruan arituz; Bonapartek aztertutako Europako hizkuntzen egungo egoera aztertuko zuen biltzarra... Baina sakonago jo nahi izan du: zertarako dialektologiari buruzko biltzar bat galderari erantzun zuzen eta zehatza eman nahi izan dio. Egungo errealitatea ezagutuz geroz etorkizunaren atea irekitzea, eta geroko hori eraikitzeko oinarri sendoak jartzea nahiago izan du, hots, metodologiari ekitea.

Edozein lanetan erabiltzen den metodologiak baldintzatzen du ekinaldiaren emaitza. Frutu joria lortu nahi delarik nahitaezko dugu metodologia kontrastatu eta eguneratuak erabiltzea.

Dialektologian materialaren bilketa eta elaboraketa edo azterketa egokienez eztabaidatzeko elkargune bat proposatzea izan da asmoa, solasgune bat, hemengo eta kanpoko adituen artean ausnarketa emankorra gerta dadin, lan hauetan ari garenon oinarri zientifikoak sendotu eta euskal dialektologia jantziago atera dadin abagadunea izateko.

Biltzarra hiru sail ezberdinetan eratzea pentsatu zen. Hiru ardatz nagusitan banandu zen, beraz:

Lehena hizkuntzalaritza orokorra eta dialektologia izenburupean biltzen da.

Hizkuntz atlasgintza izan du aztegai bigarren sailak. Eta Europako egungo egoera isladatzea izan du xede.

Azkenik, etnografia, herri kultura eta ahozkotasuna bilduko zituen atal zabala.

Era honetan sortu zen Bilbon, urriaren 21etik 25era, Euskaltzaindiak antolatutako Nazioarteko Dialektologi Biltzarra. Bonaparte printzearen omenezko ekitaldi zientifikoa eta urte luzez amestu izan duen Egoitza berriaren inaugurazioa lotu egin nahi izan ditu Euskaltzaindiak biltzar honekin. Une garrantzitsuak akademiarentzat folklokeriataatik aldeginaz bere berea duen ikerketarekin bataiatu bait du betirako etxea.

Baina zer dela eta orain, gaur egun, dialektologiaz biltzar bat? Oraindik ere dialektologiaz? Berriro hasi behar ote da euskalkiak gora eta behera? Ez ote da hizkuntz *standard* edo euskara batuaren ordua? Nornahik egin ditzakeen galderak dira.

Erantzuna bapatekoa litzateke: oraindik ere eta inoiz baino indar handiagoz landu beharreko alorra dela uste dugu.

Geuretik pitin bat irteten bagara, gure inguruko hizkuntza guztiek normalkuntza-prozesua guztiz bukatuta badute ere eta hizkuntza standarda aspalditxotik egina izan arren, oraindik ere dialektokak ezagutzen dituzte: hor dugu ingelesa

adibidez; gutarteko askok uste ez arren dialektoak ditu. Hor dugu espainieran, gaztelako mintzamoldea bera jende askoren uste okerraren kontra hizkuntza ofizialetik hainbat eta hainbat aldentzen dena.

Honek adierazten du hizkuntza (irakur norma, arau) ofiziala (standarda, batua) eta dialektoak (euskalkiak gure kasuan) ez direla elkarren aurka dauden errealitateak, hala uste duenik egon badago ere. Hizkuntza beraren bi espresio, funtzio ezberdinak betetzen dituzten bi errealitate baizik.

Gure kasura etorritz, euskalkiek ikaragarrizko altxorra gordetzen dutela esateak ez du inor ere harrituko. Ezkutuan, gordeta, ezezagun iraun duen altxorra; zatika, atalka eta tokika, gehienetan gutxi batzuk baino ez dira ezagutzera heldu direnak. Euskalkiek forma kultuaren etengabeko elikadura izan behar dute aberastasuna, oparotasuna, joritasuna emango diotena. Forma dialektalez baliatu behar dugu hizkuntzaren forma literaria hitzak, espresioak, egiturak, etab. jasotzeko. Hor dugu gure erronka!

Ez da ahaztu behar euskara standarda burutzerakoan halabeharrez hizkuntza idatzia izan dela erreferentzia nagusiena, literatura idatzia alegia. Beronen gainean izan da eraikia eredu kultua. Ahozko hizkuntzaren eredurik ez da oraindik bere orokortasunean. Ezkutua dago gure kasuan eredu hori, bilduko duen lan zabal eta homogenorik esku artean ez daukagun bitartean. Badugu hor lanik ahozko euskararen ezagutza zabaltzeko, berak dituen baliabideak ezaguteratzeko. Eta egungo ahozko hizkuntza lantzen dugunean dialektologia egiten ari gara. Horregatik gaur egun ere alor preziatua dugu euskararen aberastasunak ezagutu eta euskara standarderako proposamen ezberdinak bideratzeko.

BILTZARRAREN GUNEAK

Aski tinko izan den aste osoko egitarauan, leku anitzetatik etorritako ikerlari eta irakasleak entzuteko parada eskaini du

biltzarrak. Europa osoko ikerlariak izan ditugu gurekin: Euskal Herriko unibertsitate ezberdinetatik, Pabe, Bordele, Toulouse, Paris-Sorbonne, Brest, Grenoble, Aix-Marseilla, Corte, Niza, Bartzelona, Santiago de Compostela, Florentzia, Bamberg, Berna, Kolonia, Salzburg, Essex (Ingalaterra) eta Madriletik (CSIC).

Hizlarien artean, Europako hatz eta hats handiko proiektu zientifiko nagusien buruzagiak izan dira Bilbon: M. Alinei, (ALE) Atlas Linguarum Europae-ren lehendakaria; J. Le Dù, Frantziako hizkuntz atlasen arduraduna; H. Goebel, European burutzen ari den lehen hizkuntz atlas entzungarria egiten ari dena; M. Contini, Erromaniako hizkuntz atlasaren (ALIR) arduraduna; Galizia, Katalunian eta Penintsulako beste hizkuntz atlasen buruak (J. Veny, F. Fernández Rei, M. González, P. García Mouton), etab.

Dialektologiaren barruan atal garrantzitsua betetzen ari den dialektometria-disziplinen egungo ikerlari nagusienak: H. Goebel gorago aipatua, J.L. Fossat, W. Viereck... Datu-base dialektaletan diharduen M.J. Dalbera-Stefanaggi...

Entzun diren hitzaldiak honako gune ezberdin hauetan bana genitzake:

- Hizkuntzalaritza orokorra eta dialektologia
- Dialektoen muga eta areak
- Hizkuntz atlasgintza: metodologia ezberdinak eta informatizapena
- Ahozkotasuna eta herri jakintza
- Datu dialektologikoen azterketa interdisziplinarioa
- Soziolinguistika eta dialektologia

Mamiaren muinera ez bagara helduko ere merezi du, laburki bederen, gune bakoitzean gauzatu denaren berri ematea. Lanaren mugaketak bazterterazi egiten digu biltzarrean eman ziren txostenak kontutan hartzea, nahiz hauetan ere ekarpen galantak entzuteko parada izan dugun. Batzuek gai orokorrak jorratuz, besteak euskalki edo arazo jakin bati lotuago.

Besterik ezean ondoren kronologikoki zerrendatuko ditut izan diren guztiak: X. Falcon (EUTG) *“Dialektologia eta lin -*

guistika teoriak”, Tx. Peillen (Euskaltzaindia-Pabe) “*Zubereraren bilakaera*”, U.J. Lüders (Berna) “*The encodation of number in the souletin verbal complex*”, B. Oyharcabal (Euskaltzaindia-CNRS) “*Lehenbiziko inkesta geo-linguistikoa Euskal Herrian frantses 1. inperioaren denboran: Ipar aldeko euskarazko dokumentuak*”, F. Fernández (Santiago) “*Atlas lingüístico galego. I morfología verbal*”, J.A. Letamendia/Tx. Sagarzazu (Bordele) “*Hondarribiko dialektoa Roque Jacinto de Salazaren garizumako platikan (1778)*”, J.B. Orpustan (Bordele) “*Le complément du génitif du nom verbal; étude historique et analytique*”, Jose M. Etxebarria (EUTG) “*Euskalkietan egin dako lehenengo grabaketak*”, P. Salaberri (UPN-NUP) “*Toponimia, dialektologiaren ikerbide*”, F. Leizaola (Aranzadi) “*Metodología para la realización del Atlas Etnolingüístico de Euskalerría (EAEL)*”, M. Haase (Kolonía) “*Bilinguisme basco-gascon en basse navarre*”, X. Erize (Iruñea) “*Euskararen egoera soziolingüistikoa Nafarroa Garaian, Bonaparte printzearen lanetan*” eta J. Manuel Etxebarria (Deustua) “*Etno-testuen beharrizana euskararen etorkizunean*”. A. Santamarinak (Santiago) “*Situación del gallego en la actualidad*” txostena eman behar zuen baina etorriezina gertatu zitzaion.

HIZKUNTZALARITZA OROKORRA ETA DIALEKTOLOGIA

Gai honen inguruan aritu dira G. Rebuschi (Université de Paris III) “*Du rôle des variations dialectales dans l’élaboration des théories linguistiques*”, K. Rotaetxe (UPV-EHU) “*Hizkuntz sistema eta dialektologia*”, J.Ph. Dalbera (Université de Nice) “*Dialectologie et morpho-phonologie*” eta X. Videgain (EHHA-Euskaltzaindia) “*Lexiko bilketaren baldintza zenbait*”.

G. Rebuschi-k hizkuntzetan aldagai eta aldaezinaren arteko dialektikaz ihardun du. Gai hau bi ikuspuntutatik ukitu du: makroaldaketa-ikuspegia kontutan hartuz batetik. Era hone-tan hizkuntz tipologiak elaboratzen dira fonologia, morfologia eta sintaxiaren arabera, hain zuzen ere. Bestetik mikro-aldaketak ere aztertzen ditu, h. d. hizkuntza berak geografiaren arabera dituen forma ezberdinak. Bere ustez hurbilpen pluridi-

alektalak diasistema gisara kontutan hartuz dialekto ezberdinen deskribapena hobetzea dakar.

K. Rotaetxek ere bi ardatz nagusitan banatu du bere hitzaldia: hizkuntzalaritzak dialektologiari eskatzen dizkion baldintzak eta dialektologiak hizkuntzalaritzari eskaini ahal dion informazioa. Bere hitzetan:

“Sarritan, dialektologiaren emaitzak hitzen zerrendak izan dira edota soinuen erreperorioak eta, gutxiago, gramatikaren zenbait forma. Eginkizun taxonomiko horretan, hizkuntz elementuen arteko erlazioak ez ziren ageri eta balio txikia zuten hizkuntzalaritza orokorraren barruan... Hau dela eta, dialektologiak, hizkuntzalaritza orokorraren gutxienezko baldintzak bete gura baditu, bereganatu beharko lituzke hizkuntzalaritza deskribatzaileak erabiltzen dituen oinarriak eta metodologia.”

J.Ph. Dalberak generatibismotik ikertzen du dialektologia, arau (morfo)fonologikoen araberako azterketa proposatuz. Bi aspektu ezberdin ikertzen ditu: ikuspuntu diakronikotik berreraikuntza eta espazioaren analisia; ikuspegi sinkronikotik, deskribapen-eredu ezberdinak.

X. Videgainek zera hartu zuen gaitzat: lexikoari buruzko inkesta bat burutu behar denean kontutan izan behar diren arazo eta baldintzak: lexiaren aldaketak, kategoria gramatikala, zehaztasun semantikoa, fraseologia, etnografia...

DIALEKTOEN MUGA ETA AREAK

Bi hitzaldi nabarmenduko genituzke sail honetan: J. Allières (Université de Toulouse-Le Mirail) *“La place de la variation synchronique ponctuelle dans les monographies dialectales et la géolinguistique”* eta J. Veny-rena (Universitat de Barcelona) *“Areas y fronteras dialectales”*. Batetik hizkuntzaren parametro ezberdinetan aldakortasuna neurtzeko saioez aritu da, bestetik hizkuntz/dialektoen arteko makro eta mikromugak dira aztergai, iragate-eremuen ikerketen garrantzia azpimarratzen

delarik. Isoglosen kontzeptu eta hierarkiak, hizkuntz mugen izaera eta sorreraren faktoreak analizatu dira.

HIZKUNTZ ATLASGINTZA

Azpisail bi izan ditu gai honek: atlasgintzarako metodologia ezberdinak eta informatzapena.

Atlasgintzarako metodologia ezberdinak

Hitzaldi andana bat gune honetan. Hizkuntz atlasgintzaren ikusmolde orokorra M. González (Universidad de Santiago) *“Metodología de los atlas lingüísticos de España”* lanarekin eman du, burutzean eman behar diren urrats guztiak aztertu dituelarik: galdeketa, inkesten sarea, inkestagintza eta kartografia besteak beste. M. Contini-k (Université Stendhal-Grenoble III) *“L’atlas Linguistique Roman-ALIR”* gaia jorratu du, zertan den eta dituen ezaugarri zientifikoak agerian utzi ditu. Rosa M. Pagola (Deustuko Unibertsitatea) *“Maila fonetiko hizkuntz atlasgintzan”*, era deskriptibo batez hizkuntz atlasgintzan arlo honek izan duen pisua eta tratamendua ikertu ditu.

Ikusten denez abiapuntu ezberdinetako proiektuak eta metodologia diferenteak erabiliz burututakoak izan dira eztabaidagai.

Hizkuntz atlasen informatzapena

Alde teorikoa J.L. Fossat-en eskutik etorri da (Université de Toulouse-Le Mirail) *“Contribution à la modélisation du fait d’ordre dialectal”* delako hitzaldi mamitsuarekin. Ondoren proiektu konkretuen azalpena: J. Le Dù (Université de Bretagne Occidentale) *“L’informatisation des atlas linguistiques de la France”*, G. Aurrekoetxea (EHHA-Euskaltzaindia) *“Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren informatzapena”* eta H. Goebel (Universität Salzburg) *“L’atlas linguistique parlant”*. Informatzapenaren kontzeptu eta burutzapen ezberdinak une honetan

ze regin hau eskuartean duten dialektologarien artean. Lehena deskriptiboa gehienik. Azken biak sistema eta aplikazioaren erakusketa teknologia berrien laguntzaz baliatuz. EHHA proiektuari dagokionez Euskal Herriko eta Europako dialektologari prestuenen aurrean egin den aurkezpena eta homologazioa izan dela esango genuke.

Hizkuntz atlasekin lotura hertsia duen dialektometria disziplinaz H. Goebel bigarren aldiz mintzatu zen *“L’importance de la dialectométrie pour la géolinguistique d’aujourd’hui et de demain”* gaiarekin.

AHOZKOTASUNA ETA HERRI-JAKINTZA

M.J. Dalbera-Stefanaggi-k (Université de Corse) eman zuen ahozkotasunarnbalio eta garrantziari buruzko hitzaldia izenburutzat *“La dialectologie et les dimensions de l’oralité”* zuen lanarekin.

M. Contini (Université Stendhal-Grenoble III), *“Pour une géoprosodie”*, arduratu zen ahozko dokumentuen prosodia aztertze beharrian eta metodologiaz bere hitzaldian, pauta batzuk jarri zituelarik.

Etnografiaz J.N. Pelen (Université de Provence-CREHOP) irakasleak *“La recherche sur les ethnotextes: réflexions sur un cheminement”* gaia jorratu zuen. 1970 urteetan hasitako lanaren ibilbidea izan zuen aztergai, bere bilakaera era kritikoz ikertuz.

DATU DIALEKTALEN AZTERKETA INTERDISZIPLINARIOA

M. Alinei (Atlas Linguarum Europae) *“Dialectologie, anthropologie culturelle, archeologie; une démarche interdisciplinaire”* lanarekin zientzia horien arteko elkar-laguntzaz Atlas Linguarum Europae-ren datuak aztertzen ditu. Ondorio honetara heldu da: Europako dialektoek beren estratigrafian asentamentu prehistoriko garrantzitsuak gordetzen dituztela.

Eurpako dialektoen formazioaz orain arteko ikusmoldea (h.d. ertarainan gertatu zirela zioena) aldatu beharra dakar ondorioz.

SOZIOLINGUISTIKA ETA DIALEKTOLOGIA

Bi hitzaldi eman ziren gai honen inguruan: P. Trudgill (University of Essex) “*Dialect typology and linguistic change*” eta P. García Mouton (CSIC) “*El Atlas Lingüístico y Etnográfico de Andalucía: hombres y mujeres. Campo y ciudad*”, hain zuzen ere. Aldaketa geografikoaz gain badira beste faktore batzuk (sexoa, maila soziala...) hizkuntz aldaketa eragiten dutenak; faktore horiek izan dira erabili dituztenak beren ikerketagai gisa.

BERRIKUNTZAK

Irakaspen ederrak entzun izan dira bost egun horietan Euskaltzaindiaren egoitzean eta gure arteko dialektologigintzan eragin zuzena izango dutela itxaroten dugu. Ozenki esan behar da izan den goimailaz kanpo punta-puntako berrikuntzak entzun, ikusi eta dastatu ahal izan direla, orain arte gure disziplinan entzungabeak izan direnak. Ikus ditzagun:

Lehenik eta behin H. Goebel-ek hizkuntz atlas entzungarriaz emandako hitzaldia. Benetako iraultzat hartu behar da geolinguistikan. Orain arteko lan-esparrua eta mugak zeharo birrinduz dialektologiariak bildu informazio brutoa *entzungai* jartzen duelako edozeinen eskutan. Une honetan lehen aldikoz burutzen ari den proiektua dugu. Proiektu honen ildotik aurrerantzean materia dialektologikoa ikusgai eta entzungai jarri behar da aurrerantzeko lanetan. Jadunik dialektologi lanak beste era batera eraikitzea behartuta dago arlo honetako ikerlaria.

M. Contini-k prosodiaz emandakoak ere sail honetan aipatzeko merezimendurik badu. Lanean diharduen unibertsi-tateko *Centre de Dialectologie* delakoan, fonetika-laborategian

aurrera daramaten proiektuaren berri zehatza eman zuen. Arras interesgarria hizkeran azentuak eta intonazioak duten garrantziaz ohartzeko, analizatzeko bideak ere eman zituelarik.

Berritzat jo behar da gure artean Alinei irakasleak emandakoa ere disziplinar-teko gai bat jorratuz dialektologia, antropologia eta arkeologia, hain zuzen ere. Hiru disziplina hauen laguntzaz hizkuntzen egoera arkaikoak aztertze-ko parada izango da aurrerantzean italiarraren hitzaldiaren ildotik.

Biziki interesgarria gero eta maizago aintzakotzat hartzen den dialektometriaz H. Goebel-ek emandakoa. Egun disziplina honen maisu gorenak garbi utzi zuen metodologia kuantitat-iboa nahitaezkoa dela geolinguistikan datuak aztertze-unerako.

BILTZARRAREN BALORAZIOA

Arrakastatsua izan da guztiz biltzarra, bai hizlari prestuak ekartzeko ahaleginak zeharo gauzatu direlako, bai hauen ekarpen ederrak direla medio.

Proiektu ezberdinen problematika azaldu da, oso ikuspuntu diferentetatik ekin zaiolarik aztertze-ari.

Euskal dialektologiaren bultzagile eta bide-erakitzzaile izan beharko luke, bestalde. Historikoki euskal dialektologiak bizi izan duen isolamendua apurtzen lagunduko duela uste irmea dugu. Bertatik kanpokoen ezagutza handiagoa eta harreman sendoak lortu direlako. Kanpotik hemen egiten den lanare n berri zehatzagoa izan dutelako.

Jadanik ez dela bakarka aritzeko garaia frogatu du biltzarrak; beharrezkoa da talde ezberdinen arteko harreman-ana, elkarren metodo ezberdinen etengabeko kontrajartzea nahitaezkoa da.

Azterketa dialektologikoen beharra ere agerian gelditu da egun hauetan zehar ahozko hizkuntza biziak daukan balioa eta garrantzia bizi-bizirik sentitzen delarik.

EUSKAL DIALEKTOLOGIA ETORKIZUNAREN ATARIAN

Jaso dira ikasgai ederrak baina bidea ekinez egiten dela dio atsotizat, eta guk geuk ere hala egin beharko dugu geurea.

Geure ordua da orain, gure artean, ahal denik eta frutu gehien ateratzen iharduteko. Ez dadila mando gerta biltzarra!

“Etorkizun” hitz deigarri bezain erakargarriaren inguruan osatu baldin bada ere, lan honen izenburua kasu honetan egoki-egokia dela esan daiteke. Zinez esan bait daiteke euskal dialektologia etorkizunaren atarian aurkitzen dela, eta etorkizun oparo eta zientifikoarenean, hain zuzen ere.

Egia da badugula nondik ibili, zer eginik ez dela falta gure soroan. Baina egungo metodologiak erabiliz eta teknologia berriez baliatuz etorkizunari ateak irekitzen dizkiogu.

1. Aski du horretarako J.A. ARANA MARTIJAREN *Bibliografia bonapartiana*, Katalogoak 2, Euskaltzaindia, 1991 eta C. GONZALEZ ECHEGARAY/J.A. ARANAren *L.L. Bonaparte. Eskuizkribuak-argitarapenak*, Katalogoak 1, Euskaltzaindia, 1989 lanak ikustea.

TELEBISTAKO LEHIAKETEN AZTERKETA-SAIOA

IÑAKI IÑURRIETA

Aspaldi esan zuen Umberto Eco-k: “La civilización democrática se salvará únicamente si hace del lenguaje de la imagen una provocación a la reflexión crítica, no una invitación a la hipnosis”.¹ Hitz potoloegiak dira horiek, aukeran, hau bezalako lan batentzat. Gure xedea horrenbestekoa ez bada ere —horixe behar genuen, zibilizazio demokratikoa salbatzen hastea!—, gogoeta-saiotxoak bai, izan nahi luke honek, hori denontzat eta beti osasungarria delakoan.

Telebista eguneroko bizimoduan beti hor, begien aurrean dugun zera izaki, ez da batere harritzekoa lan honen burutzioa izaterakoan medio hau aukeratu izana. Interes pertsonala aski justifikatua dago, eguneroko bizitzan betetzen duen leku zentral horregatik; duen erakarmen ukaezinagatik;

eragiten duen portaera sozialagatik. Lan hau aitzakitza har-tuz, fenomeno hori ulertzen hasteko saioa egin nahi nuke.

Are gehiago, gainera, ikus-entzunezkoen alorrean (gaur egungo bizitzaren parterik handienez, apika) iragartzen zai-gun etorkizuna kontutan izanda. Ikus-entzunezkoen paisajea nazioartekotura goaz abiada geldiezin bizkorrean; aurki, dagoe-neko ugaria dugun eskaintza ugariagotu egingo zaigu, kanal pri-batuen eklosioaren ondorioz batetik, transmisio-bide berriak (satelitea, kable-telebista,...) hedatzearen ondorioz bestetik. Horrek bere efektuak izango ditu, noski: masa-kulturaren eza-ugarriak bazter guztietara eta indartsuago iritsiko dira, kultur forma estandartu eta nazioartekotuetan, eta forma propioak, lokalak, kinka larrian sartuko dira, besteak beste.

Ezin ikusmira zabal horri begira gelditu, ordea, muga jak-inak dituen hau bezalako lan batean. Paisajea orokor hori gogoan izanik, aztergaia mugatu beharra dago. Aukeratu beharra dago, alegia. Eta aukera egiterakoan, jadanik ikusten ari garen banalizazio orokorraren adierazle eta ordezkari diren lehiaketek generoa aukeratu dut. Hain zuzen, beren friboloan, banalean, ezdeusean, iragartzen zaigun etorkizuneko kultura transnazional eta homogeno hori isladatzen dutelakoan. Garaion zeinuak isladatzen eta iragartzen dizkigutelakoan.

Esan dezadan, puntu hau gero xeheago jorratuko badut ere, lehiaketetara mugatze horrek zalantzan jartzen duela bere bidezkitasuna. Izan ere, alor honetako bibliografia erabili ondoren, telebistaren ezaugarriak erabakiorrena bere jarioaren osotasuna dela agertzen bait zait. Telebistaren jariora bere oso-tasunean aztertu behar litzatekeela, alegia. Beraz, sor daitezten ondorioak tentuz hartu beharko, jatorrizko akats hori izan dezakete eta.

Dena den, pozik nengoke lan honen bidez apika lehiaketek —eta hedabidez, telebistak bere osoan— berez duten lilura-men berezia nola eraikitzen den, horretarako mekanikaren hasi-masiak zertan dautzan somatu eta era koherente samar-rean adieraztea lortuko banu.

AZTERGAIA

- Honako programa hauek aztertzen dira:

PROGRAMA	KATEA	EGUNA	ORDUA
CIFRAS Y LETRAS	TVE2	egunero	21-21,30
LA RULETA DE LA FORTUNA	A3	egunero	20,30-21
TELECUPON	TELE5	egunero	21-21,15
EL PRIMIJUEGO	TVE1	osteguna	21-21,15
KALEJIRA	ETB1	igandea	21-22

- Programa hauek udako *parrilari* dagozkio gehienak. Lan hau egiteko uztailleko programazioak hilabete horretan eskaintzen zuen aukeraz baliatu naiz. Zehazki, uztailaren 7tik 21era bitarteko bi asteetako programak erabili ditut material gisa. Salbuespen bat, hala ere: ETB1eko “Kalejira”, nahiz uda partean desagertu, sartu egin dut, horren grabazio bat eskuratzeko ahalbidea izan dudanez.

- Programa hauen emisio-ordua arratseko 9ak inguruan izaten zen, oro har. Esan daiteke afalordurako pentsatutako programak direla.

- Lehen bi programak kate frantsesetan ere ematen ziren (“Cifras y letras”/“Des chiffres et des lettres”, “La ruleta de la fortuna”/“La roue de la fortune”).

- Ikus daitekeenez, kate publikoek (TVE1, TVE2, ETB1) eta kate pribatuek (A3, TELE5) emanak dira programok.

Ohar hauek gogoetabide batzuk markatzen dituzte dagoeneko: ordutegi-kointzidentziak *target* jakin batzuen definizioa adieraz lezake, eta bide horretatik genero-karakterizaziorako bideak irekiko lirateke, aurreraxeago generoarena kolokan jartzen bada ere, ikusiko dugunez; programa berberak kate frantses eta espainoletan —eta beste hainbat herrialdetan, aditzea izan dudanez— emititzea, kultur edukinen nazioartekotze eta homogenotzearenaren, masa-kulturaren

hedapenaren adibide argi eta garbia litzateke; kate publikoek nahiz pribatuek apenas bereizketarik gabe gisa honetako programak emititzeak publikoa/pribatua dialektikaren nondik norakoa adieraziko luke, medio publikoei ustez dagokien kultur eta identitate bermatzailearen rola kolokan jartzen delarik, pribatuen konpetentziaren erasopean.

Gisa honetako susmoak egin daitezke, beraz, baina horretarako gure azterketak askoz zabal eta sakonagoa behar luke izan. Gure aztergaia bost programa konkretu besterik ez dira eta, beraz, horietan ikusiko ditugun ezaugarri interesgarriak seinatzera mugatuko gara.

AZTERKETA-AZTERBIDEAK AUZITAN

Lan honi hasiera ematean, bi helburu nituen: lehena, telebistalengoiaren ezaugarriak seinatzzea, eta bigarrena, aukeratutako generoak —lehiaketak, kasu honetan— dituen bereiztasunak aztertzea. Ikus daitekeenez, bi hipotesi ematen ziren ontzat: telebistak baduela bere lengoia propioa, batetik, eta genero desberdinak badirela, hots, generoka aztertzea berez justifikatuta dagoela. Lanari ekin eta berehala, ordea, erabilitako bibliografiari esker, ohartu nintzen gauzak ez zirela hain seguruak.

Batetik, telebistaren lengoia propiarena kolokan jar liteke. Christian Metz-ek aspaldi egindako azterketak² e re helburu horixe zuen, telebistaren lengoia propiorik baden ala ez erabakitzea. Konklusioa ezezkoa zen, zinearena berbera zuela alegia. Dena den, azterketa hari egindako kritiken arabera, lengoia propioa izan ala ez, hori ez omen da hain garrantzitsua. Kritika haiek Metz-en ikuspegi semiotiko estuegia aipatzen zuten. Umberto Eco-k alderdi pragmatikoa kontutan hartu ez izana leporatu zion: telebista zerbitzu bat omen da, genero eta kode guztiak bideratzeko ahalmena duen zerbitzu bat, eta beraz, telebista-zerbitzuaren jarioa nori zuzentzen zaion eta teleikusleak zer gozatzen duen aztertzeak omen du muntarik handiena.

Bestetik, generoei dagokienez, telebistaren ezaugarri bat bere jarioan integratzen diren parte anitz eta desberdinen bereizgarriak kentzea litzateke, ertzak leuntzea, nolabait homogenotuz. Hartara, generoak bereiztea kolokan geratzen zen. Egia da ikuspegi praktiko arruntetik programa informatiboak edo entretenimenduzkoak bereiz daitezkeela, besteak beste, eta azken hauen artean sartzen direla lehiaketak, edo futbol-partiduak, edo magazineak, baina azaleko diferentzia horien azpitik makrogenoeraz hitzegin behar omen da, telebista-jario osoaren makrogenoeraz.

Hala bada, makrogeno horren diskurtsua (berbaldia) aztertea litzateke bidezkoena, eta hori pragmatikaren alorretik: enuntziatziotik alegia: enuntziatzailea(k) eta enuntziataria(k) bereiziz, bat(zu)en eta beste(ar)en funtzioak, ezaugarriak, etab. arakatuz.

Horrenbestez, lan honen ikuspegia birformulatu edo birpentsatu beharra dago. Ez dugu baztertuko lehiaketak aztergaitzat hartzea: batetik, telebista-jario osoa ezin besarka deza-kegunez, alor mugatu eta konkretu bat aukeratzea komeni da; bestetik, generoen existentzia kolokan jarrita ere, ezin ukatu lehiaketaren modalitateak baduela nortasun jakin bat (denok ulertzen dugu zertaz ari garen lehiaketa hitza esatean; ez dago arriskurik telediario batekin nahasteko, esate baterako). Eta neri, hasieran esan bezala, hain nortasun definitua duten programazio-segmentu horietan arakatzea interesatzen zait, beren lilura-ahalmena zertan den arakatzea. Esan bezala, garaion zeinuen islada diren sentipena dudalako.

Azterketak bi parte ditu, bat teorikoa eta bestea praktikoa. Teorikoan, erabilitako bibliografian aipatzen diren eta nere ustez funtsezkoak diren bost alderdi aukeratu ditut, lehiaketen —telebistaren— mekanika ulertzeko hainbat gako ematen dituztelakoan: telebista-lengoaia (esanak esan, aztertzen diren programen zenbait alderdi argitzen dute telebistaren bereizitasun teknologikoei, nere ustez), enuntziazioa, “begietara begiratzea” deritzan araua, zuzena/diferitua eta logika publizitarioa.

Azterketa praktikoan, berriz, hasieran aipatutako programa konkretuak jorratzen dira aurrez ikusitako alderdi teoriko horien argitan.

AZTERKETA TEORIKOA

TELEBISTAREN LENGOAIA

Telebistaren teknologiak berak baldintza batzuk ezartzen dizkio medio honen lengoaiari. Hona hemen elementu batzuk, Roman Gubern-i jarraituz.³

Batetik, definizio bajuko media da, hots, kalitate ikonikoa, zinearekin konparatuta adibidez, askoz eskasagoa du. Honek muga batzuk jartzen dizkio telebista bidezko irudiari, eta pantaila txikiak ezin izango du ahalmen diskriminatzaile handirik. Ezin dezake elementu askoko konposiziorik azaldu. Irakurgarritasun ona segurtatu behar, mugak muga, eta hori sinpletasunaren bidetik lortuko du.

- Batez ere lehen planoak erabiliko dira. Honek ondorio semiotiko nabarmena du: espazioaren zentzua errazago galduko du teleikusleak; aldez, irudimenezko espazio telebisiboak sortzeko joera bultzatzen dezake.

- Argiketak garbia izan behar du, argi-ilun handirik gabe.

- Koloreen artean ere, oreka lortu nahiko da fondoaren eta aurrekaldeko irudien artean, kolore sekundarioak erabiliz.

- Definizio bajuko media den arren, soinuak osterak kalitate-maila handia du (FMkoa) eta hortik joera bat soma daiteke hotsek —soinuak— informazio-pisu handia izateko.

- Bestalde, aipatzekoak dira telebistak zinearen aldean dituen baliabide teknologiko ugariak, batez ere azken urteotan zabaldutakoak: *chroma-key*, *flash*-ak, txertoak, irudi eta koloreak manipulatzeko errazbideak...

Baldintzapen teknologikoez gainera, baldintzapen soziokulturalek ere neurri handi batean erabakitzen dute telebistaren lengoaia. Medio domestikoa, arreta laino samarra eskatzen

duena izaki, horrek ahalegin txikienaren legea inposatzea dakar: teleikusleari ez zaizkio eskaini behar birtuosismo formalak. Hartara, genero narratiboaren modalitate guztietan (lehiaketak dira bat) “sintaxi narratibo kontserbadorea” inposatuko da, Gubern-en hitzetan (lehiaketen kasuan, elementu sinple eta erredundante batzuen bidez osatutako sintaxia esan nahi luke honek: aurkezlearen lehen plano, lehiaketariak, erlojua, publikoa txaloka...)

ENUNTZIAZIOA

Telebistaren jario osoa makrodiskurtsu gisa hartuta, diskurtsuaren enuntziazioari begia eman behar diogu. Enuntziazioan, batetik Enuntziatzailea eta bestetik Enuntziatariora bereizten dira.

Telebistaren zerik funtsezkoena, hain zuzen, Enuntziatzaile ikustezina edo, Zunzunegui-k deitzen dion bezala, Enuntziatzaile totalitarioa litzateke.⁴ Pantailak ematen digun aniztasun ustezko horren atzean Enuntziatzaile totalitario hori legoke. Gero, jarioan zehar parteak, programa desberdinak bereiz daitezkeen bezala, Enuntziatzaile orokor horrek enuntziatzaile partikularren forma hartuko luke, hau da, Enuntziazioa hainbat estrategia desberdinetan zatikatuko litzateke. Gure zeregina, hain zuzen, Enuntziatzaile nagusiaren “hezurmamitze” diren enuntziatzaile partikularrak aztertzea litzateke; zertan dautzan diskurtsua osatzen duten estrategia partikular horiek.

Lehiaketei dagokienez, noski, enuntziatzailearen rola aurkezleak betetzen du batez ere. Beraren bidez hitzegiten du medioak. Aurkezleen ihardunean, lehiaketa guztiek erakusten dituzten ezaugarriak atzeman ditzakegu batetik, eta lehiaketa bakoitzeko aurkezlearen ezaugarri bereziak bestetik. Ezaugarri amankomunen artean, “begietara begiratzea” litzateke nagusia; honetaz aurrerago ihardungo dugu bereziki. Beste ezaugarri amankomun bat funtzio erotizantea litzateke; hau aurkezleari (emakumea denean) edo azafatari dagokie aztertutako programetan.

Enuntziatariorak, noski, teleikusleak dira (gara). Baina hor ere badago tarteko instantzia bat, lehiaketa gehienetan ageri dena: platoan, ikusle arruntak bailiren, ageri ohi den publikoa, lehiaketariak txalotuz eta abar. Teleikuslearen identifikazioa eragingo luke pantailan ageri den publiko horrek, enuntziatzaile/enuntziatarior nagusien arteko lotura (komunioa, identifikazioa) erraztuz. Batzuetan ez da ageri publikorik, baina txaloak entzuten dira, efektu erantsi gisa, teleikusleak pantaila aurrean duen bakardadea ematzeko. S. Zunzunegui-ren hitzetan esateko, "... en ciertos casos (concursos o debates cara al público) se instrumentan fórmulas que permiten *simular* la relación directa de los espectadores a través de la conversión de estos últimos en parte del espectáculo, a través de la incorporación de unos actantes que actúan como delegados suyos".⁵

BEGIETARA BEGIRATZEA

Oso naturala iruditzen zaigu aurkezlea telebistako pantailatik guri begira egotea. Hala ere, ustezko naturaltasun horren atzean ezkutatzen den artifizialtasuna azpimarratzea komeniko litzateke:

- *Aurkezleak*, berez, kamara baten objektiboari, piztuta dagoen argi gorritxo bati begiratzen dio, ez beste ezeri. Une horretan, gainera, agian ez du ikusle ikustezinik berari begira (diferituaren kasuan, esate baterako); pantomima bat egiten ari da, antzesten, jokatzeko (playing).

- *Ikuslearen* aldetik, berriz, pantailan ageri zaion irudi horrek, milaka puntu dizdizkari koloretsu mugikorren multzoa izan arren, berari ari zaion "pertsona" baten ilusioa eragiten dio.

Honela analizatuta, agerian jartzen da *komunikazio-egintza* horren artifizialtasuna. Pertsonen arteko komunikazio erre-alaren itxura hori sedukziorako estrategia osoaren elementu bat gehiago da.

Izan ere, Roman Gubern-en hitzetan:

"El contacto visual (la mirada a los ojos que personaliza el vínculo) de las relaciones interpersonales a escasa distancia,

en espacios reducidos, tiene el efecto de aumentar la intimidad y reducir la distancia psicológica. Por eso ha sido adoptado por los presentadores de la televisión, para elevar la temperatura de su relación con su público y para individualizar a cada telespectador singular, ofreciéndole un simulacro de afable compañía personalizada”.⁶

Ikuspegi zehazkiago semiotikotik, Eliseo Verón-ek honela definitu du begietara begiratzea:

“El contacto visual sería una señal compleja, una operación enunciativa, sería al mismo tiempo metaoperación de identificación de un tipo de discurso por el peso de su movimiento de deficcionalización: una especie de *prueba* del anclaje del discurso en lo real de la actualidad”.⁷

Hain zuzen, begietara/kamarara begiratze/ez begiratze horretan legoke fikziozko eta ez-fikziozko generoen arteko muga, eta hari horretatik zinearen eta telebistaren artekoa:

- *Zinean*, non fikzioa nagusi den, arau behinenetako bat, hain justu egiantzekotasunaren baldintza eta ikuslearen identifikazio-posibilitate dena, aktoreek kamarari begiratzeko duten debekua da. Kamararik ez bailegoen ihardun beharra dute.

- *Telebistan*, ordea, teleikuslearen begietara begiratzeak ageri denaren errealitatearen bermagarritzat funtzionatzen du.⁸

Hau guztia are egiago da lehiaketen kasuan, telebista medio sari-emaile onurakor horren efikazia indartu egiten bait da aurkezlearen iharduera horren bidez. Hor agertuko zaigu hau, lehen planoan nahiz plano ertainean, “distantzia intimoa” deitu izan den planoetan alegia (45 cm inguru artekoa), hots, bizitza errealean solaskideek beren artean izan ohi duten distantzia egokienean.

ZUZENA/DIFERITUA

Telebistaren zerik berezkoena atzeman nahi eta, hainbatek esan izan du zer hori errealitateko gertaerak zuzenean emateko ahalmenean datzala. Eta ezin uka telebistak hor duela bere

erakarmenik handienetako bat. Baina zuzenean emate hori ere mitifikatu egin da, gertakizun zuzenean telebistaz emana eta errealitatean gertatua ez bait dira gauza bera.

Umberto Eco-k esan bezala,⁹ zuzeneko toma ez da gertatzen denaren azalpen fidel eta akasgabea. Errealizadoreak, halakoetan, zenbait kamararekin jokatzeko du eta, batetik, kamarek berez hainbat posibilitateren artean enkoadre-aukeraketa bat dakarte, errealitatearen ikuspuntu jakin batzuk, beste hainbat baztertuz; bestetik, kamara desberdinek hartzen dituzten irudi aldiberekoetatik, errealizadoreak une bakoitzean komeni zaiona hautatzen du, kamara batetik bestera pasatuz, eta plano desberdin horiek bata bestearen atzetik filmazioaren joskera konkretua osatzen dutelarik, beste hainbat posibilitate baztertuz.

Umberto Eco-z gainera, beste hainbat autorek seinatu izan dute telebistak errealitatea manipulatzeko ez ezik eraikitzeke duen ahalmena.¹⁰

Lehiaketan kasuan ere nabari da zuzena/diferitua dialektika. Nabari da kasu askotan zuzenaren indarrak baliatu nahia. Hots, zuzenak berez duen erakarmenaz baliatzen dira, teleikuslea pantailari lotuta edukitzeko estrategiaren parte gisa. Neurri desberdinetan hala ere, programa batzuetan beste batzuetan baino gehiago:

- Diferituan diren programetan, “zuzenaren efektua” deienezakeena antzeman liteke. Alegia, lehiaketariak gainditu beharreko probarako, gehienetan —erantzun beharreko galdera, burutu beharreko eragiketa, etab.— denbora jakin bat dute, 45 segundu demagun, teleikuslearen 45 segundu errealekin bat datorrena.

- Beste programa batzuk benetan zuzenean dira. Lehiaketa klasikoak baino, zozketen itxurakoak izan ohi dira halakoak (“El primijuego”, “Telecupón”). Ondo fijatuz gero, hala ere, zuzenak berez duen bapatekotasunaren eta ustekabearen arriskutik libratzeko, orduan eta zurrunagoa eta lotuagoa da gidioa.

- Zuzeneko emanaldiaren gradurik goren aurkezlearen (medioaren) eta teleikusle baten arteko komunikazio telefonozkoa agitzen denean gertatzen da. Medioak orain eta hemen

hitzegiten didalako fantasia gauzatzen dela lirudike horrenbestez. Baina kasu horietan ere, ez da dudarik komunikazioaren inizatiba norabide bakarrekoa dela, mediotik teleikusleaganakoa, alegia.

LOGIKA PUBLIZITARIOA

Ez dago froga handirik eman beharrik publizitateak telebista-medioan betetzen duen leku zentralaz ohartzeko.

- Telebista-generoen arteko konparaketa eginez gero, denbora gehien hartzen duen generoa da, dudarik gabe.

- Medioa bera publizitateak mugitzen dituen dirutza izugarriari esker bizi da, eta azken urteotan espainiar testuinguruan (eta europarrean, oro har) izan duen hazkundeari zor zaio telebista-eskaintzaren ugalketa izugarria (kate pribatuen sorrera, programa-ugalketa, publizitatearen beraren ugalketa).

Ugalketa horren harian ulertu behar da publizitate-mota berri bat (telebistan behintzat berria; irratia aspalditik jor-ratua du modu hau): publizitate intradiegetikoa deituko duguna. Hau da, programen artean emititzen dena ez (honi estradiegetikoa deituko genioke; Zunzunegui-ren esamoldez, *zementu baterazle* gisa funtzionatuko luke,¹¹ jatorriz espresabide, genero, modalitate desberdinak direnak bateratuz), programen baitan bertan ageri dena, narrazioaren harian txertatuta (lehiaketak ere, beste programa-mota gehienak bezala, genero narratiboen artean kontsideratzen ditugarrik, González Requeneri jarraiki,¹² beste elementu bat —nagusia— bailitzen. Lehiaketek, berez, logika publizitarioz funtzionaten dutela esan daiteke sarien erreklamoaren erreklamo publizitarioa den alde-tik; baina, horrez gainera, lehiaketaren baitan agintzen diren sari horien kausa gisa programaren babesle diren merkatal markak agertzean, are gehiago barrentzen dira logika horretan.

Egia esan, programa guztiek dute logika publizitarioa, González Requena-k azaltzen duenez. Eta lehiaketei ere oso ondo egokitzen zaie publizitateaz esaten den honako hau:

“El enunciario es así interpelado por el actor que le mira, o por la voz en *off* que le habla, agotando todos los registros de la complicidad; pero incluso por el objeto: se trata siempre de un objeto puesto en escena para un incesante plano subjetivo (y, especialmente, en gran primer plano, invadiendo la imagen y exhibiendo su proximidad de aquel que debe mirarlo)”.¹³

Bestalde, iragarkiek bezala, lehiaketek ere erredundantzia sistematikoa ageri dute. *Spot*-ak behin eta berriz emateko eginak dira. Lehiaketetan ere, nahiz lehiaketariak aldi bakoitzean aldatu, nahiz galderak edo frogak aldatu, funtsean erredundanteak dira, gidoiari erreparatuz gero nabari denez. Aur-rerago aztertuko ditugun programen artean, “Kalejira”ren kasuan azpimarratuko dut hau: gidoiak ia guztiz berdinak dira programa batetik bestera, eta hain zuzen hori nabarmenegi gera ez dadin, aurkezleak bapatekotasun itxura eman nahiko dio inprobisazioaz baliatuz, funtsean dena ondo erabakita geratu arren: lehen plano jakin hori beti une berdinean agertuko da, publikoa txaloka ageri duen plano ere bai, rafaga efektua ere bai, etab.

AZTERKETA PRAKTIKOA

Ondoren, orain arte esandako guztiaz baliatuz, aztergaitzat hartu ditudan programen “irakurketa” bat egingo dut.

“LA RULETA DE LA FORTUNA”

Enuntziazioa

1. *Aurkezlea* da Enuntziatzaile orokor edo totalitarioaren aktualizazioa. Bere jokamoldea, eta beraren bidez enuntziatariorari iristen zaion Enuntziatzaile orokor horrena, honelakoa da:

- Lehiaketariek solidario ageri da: “ojalá ganes mucho dinero”, “lo siento” (norbaitek huts egitean), “cuéntame” esaten

dio lehiaketari bakoitzari, aurkezpenak egiterakoan, datu biografikoen berri eskatzen dionean; komunikazioaren (simulakroaren) marka litzateke askotan errepikatzen duen “cuéntame” hori.

- Teleikusleekin konplizitatea adierazten du etengabe: keinueen bidez (literalki: begi-kliskadak, konplizitatearen adierazle unibertsaltzat har daitekeen zeinua, lehen planoan ageri denean). Asko ustiatzen du “begietara begiratzea”k. Hitz egiteko modua ere enfatikoa du oso, lehen planoan sarri, “zuri” hitzegiten dizula azpimarratuz beti ere. Hala bada, medioaren “hezur-mamitzea” (baina ez hezurrik ez mamirik gabea, irudi hutsezkoa baizik, hortxe dago kokka) den aurkezle horren bidez, Enuntziatzaile totalitario orokorra modu erakargarrian, erotizatuan ematen zaigu. Teleikusleari zuzentzen zaionean, enfasi berezia adierazten du sarri, “zuri” hitzegingo bailizun, interpelatuz, etab.

Jokamolde honen balio semiotikoa honetan legoke: medioak bereburua estrategia partikular honen bidez azaltzean, aurkezleak bereganatzen dituen kualitate horiez jaxten dela (solidaritatea, erakarmena, eskuzabaltasuna, etab.), aita-ama onaren *rol*-a alegia.

2. *Lehiaketariek*, ordea, kontraste bizia ageri dute aurkezlearekiko; oso urduri ageri dira, naturaltasun gutxirekin, lotuta. Teleikuslearen ordezkari diren aldetik, identifikazio funtzioa dago, eta beraz nabarmenago geratzen da enuntziatzaile/enuntziatarioen arteko harreman-modua: guraso on ahaltsua eta haur eskas zorretan dagoena.

3. *Azafata*: irudi hutsa da, ez du ahotsik. Funtzio erotizantea legokioke (hala gertatzen da bertsio frantsesean), baldin eta funtzio hori aurkezleak bereganatu ez badu. Azpimarratzekoa da bertsio frantseseko azafatarekiko antz fisikoa, bai eta hormako kasileroaren aldamenean jartzean hartzen duen postura fisiko berdina (zangoak berdina gurutzatuta, eskuak gerriaren atzekaldean bilduta, etab.).

4. *Off-eko ahotsa*: aipatu publizitate-zatietako ahots bat da; ahots inpersonala berez, publizitate-ahots dikzio garbi eta atsegina. Une horietan, ahots horrek bereganatzen du Enun-

tziatzailearengitekoa (medioak ahots horren bidez hitzegiten du, alegia).

Azpimarragarria, batez ere, medioaren “bozeramale” edo “eledun” (literalki) den ahots horri izen bat ematen zaiola: Remedios. Ahots horren jabe edo litzatekeen emakume bat irudikatzen du teleikusleak, inoiz ikusten ez badu ere. Izenak berak, gainera, konotazio nabarmena du: lehiaketa honek ikusleen eskasien kontrako erremedioa ekarriko bait du. Subliminalki edo, esango genuke, errefortzatzen da programa-mota hauen funtzioa.

Remedios eta azafataren kasuan bezala, entitate inpersonal horien hurbilpena dago teleikuslearekiko.

Zuzena/diferitua

Lehiaketa honek hiru parte ditu: 1) 3 lehiaketariren arteko lehiaketa, 2) teleikusle baten parte hartzea, etxetik telefonoz, eta 3) final handia, 3 lehiaketarien artean irabazle gertatu denak parte hartzen duelarik.

Bistan da bigarren partea zuzenean egiten dela, teleikuslearen eta aurkezlearen elkarrekintza emisioaren une berean egin behar delako. Beste biak, ordea, lehentxeago grabatuak izan daitezke, nahiz egunean bertan. Dena den, zuzeneko izate hori azpimarratu nahi da zenbait markaren bidez: aurkezlearen espontaneotasuna, barre-algaretan, kamarak ustez in fraganti algaraka harrapatzen duenean, azafatarekin daraman jolas partikularrean, etab.

Lehiaketariak gaintitu beharreko proben aurretik (atzetik?) sarien aurkezpena egiten da: *off*-eko ahots batek ematen du horien berri, bitartean oparien planoak erakusten zaizkigularik. Parte hau diferituan da, nabarmen, egunetan zehar errepikatzen bait da.

Publizitatea

Publizitate extradiegetikoaz gainera (gorago esan bezala, lehiaketa genero narratiboan barruan kokatzen bait da, izen hori

emango diogu telebista-programen arteko muga egiten duen iragarkien tarteari), publizitate intradiegetikoa ere badela azpimarratu behar litzateke hemen. Hau, oker ez banago, kate pribatuak martxan jarri zirenetik zabaldu den praktika bat da: merkatal marka batek espazio bat patrozinatzen du, eta programa horren baitan, harian, aurkezleak produktu horren propaganda egiten du. Esan behar da kate publikoetara ere zabaldu dela praktika hau (Dixan-ek patrozinatzen zuen “Locos por la tele”, publikomedia edo publikliparen genero berria eta guzti).

Hala bada, publizitate intradiegetiko horretan sartuko litzateke Remedios delakoaren iharduna. Logika publizitarioa, beraz, programaren muineraino iristen da: programa desberdinen arteko bereizle izan ez ezik, programan bertan sartzen da; horrez gainera, identifikazio bat dago publizitatearen titularraren, lehiaketak ematen dituen sarien, eta azken batean Enuntziatzaile totalitarioaren (ikus gorago, 2.2. Enuntziazioa) —telebista-medioaren— artean.

Honek badu bere esanahia. “Fortuna” hitza ageri da programaren tituluan. Hau lehiaketa gehienen paradigma, arketipoa litzateke: teleikusleak pantailari lotuta edukitzeko modu bat sariak partitzea da. Eta sari horiek fortunaren eskutik, zoriaren eskutik, alegia, datozkio. Teleikusleak, hala, ez du ahaleginik egin behar, ez dago bere esku ezer, zoriaren eta Medio adiskidearen (“su pantalla amiga”) eskutik etor dakioko zori ona. Telebistari begira egonda, begiratu besterik egin gabe. Ez dezala hor zehar bilatu, ez dadila ezertan saiatu. Enuntziatzaile totalitarioak emango dio nahi duen hori.

“CIFRAS Y LETRAS”

Enuntziazioaren estrategia

“Kultur programa”ren statusa emateko ahalegina nabari da, lehiaketa izanda ere. “La ruleta de la fortuna”ri baino status “jasoagoa” alegia. Hainbat adierazle, zeinu, markatan ikus daiteke hori:

- Aurkezlearen *telegenia*, batetik. Emakume ederra da, noski, baina halako edertasun distante eta hotzekoa. Funtzio erotizantea bereganatzen du, baina distintzio ukitu batez, “a touch of class” batez. Era berean, epaile lanetan ari den jakintsuaren irudia ere hartarakoxea da (bizartxoa, hitz egiteko modua, keinuak, etab., bere parte-hartze guztietan ematen du aditzera kultur maila jaso, jantzi eta landua)

- Lehiaketariei ematen dien statusa (ohar: Enuntziatzaileak ezartzen ditu estrategiak, eta bere komenientziarako enuntziatariora definitzen du; hots, teleikusleagandik berak nahi duen ikuste-jarrera lortu nahi du) “pentsatzaileena” da (“sois pensadores, más que concursantes”).

- Aurkezlearen eta aipatu epailearen *izenak* e re halakoxeak dira: *Elisenda* eta *Octavio*.

- Programa orotan, hasieran, aurkezleak aukeratutako hitzen bat aurkezten du, programa bakoitzaren *lema* gisa edo funtzionatzen duena. Kasualitatez, nik aztertutako programan “Serenidad” zen hitz hori. Hain zuzen, hitz horren konotazioz jantzita ageri da programa osoa: “populismo errazegietatik” ihes egiteko ahalegina ikusten da. Lehen aipatu aktanteen telegenia ere “serenidade” horren ildotik lihoake.

- Girozte-musika gisa, beti musika lasaia aukeratzen da. Gainera, musikari halako leku propioa ezagutzen zaio: hasieran, hitzarekin batera, musikagile bat ere aukeratzen da, musikagile horren konposizioak entzungo ditugula iragartzen zaigularik.

Telebista-lengoaia: erritmoa

Lehiaketa honek, beste batzuen parafernalia populatxero edo hortera (“El precio justo”, etab.) falta zaionez, estatikoegia gertatzeko arriskua du. Alegia, lehiaketariek beren probak egiterakoan, tarte hori “denbora hila” litzateke, medioaren eta programa-motaren logikaren kontra doana (kultur ukitu eta guzti, entretenimenduzkoen sailekoa bait da). Hortik gordetzeko baliabide batzuk erabiltzen dira, telebistaren baliabide teknologikoak, hain zuzen:

- Pantailan hiru zati egiten dira:
 - Ezkerraldean erlojua ageri da, eta segunderoa korritzen (mugimendua, estatikotasunaren kontra; eta teleikusleagan eragiten duen irrika, denbora agortuz doan heinean).
 - Eskuinaldean, goian, errekoadro edo lehiatila batean, lehiaketarien planoak tartekatzen dira, kamara desberdinez hartuta, horrek ere berez egoera geldia denari mugimendua ezartzen diolarik.
 - Pantailaren behekaldea soluziorako erabili beharreko hizkiek edo zenbakiek osatzen dute.
- Gainera, girotze-musika dugu, hasieran aurkeztutako musikariarena.

Telebista-lengoaia: espazioa

Telebista-medioak, berez, definizio bajukoa delako eta pantailaren tamaina mugatuagatik, asko determinatzen du sintaxia. Hots, plano orokorrak oso bakanak dira, elementu askotako konposizioak ez dira egokiak eta, beraz, lehen planoetara jotzen du batez ere. Horrek ondorio semiotiko nabarmen bat du, Gubern-ek seinالاتen duen bezala: espazioa hain zatikatuta ematean, teleikusleari arazoak sortzen zaizkiola berori imajinatzeko. Horrek hain zuzen, “irudimenezko espazioak” irudikatzen bultzatzen dezake teleikuslea.

Programa honetan garbi samar ikusten da guzti hau. Lehiaketan zehar hiru espazio definitzen dira nahikoa argi: 1) aurkezlearena eta lehiaketariarena, beren mahaitxoetan, 2) epaileena, eta 3) zenbakiekiko eragiketak egiteko harbelaren a. Hiru espazio horiek ez dira nahasten, eta batzuetan partaideen begiraden norabideari erreparatuta antzeman daiteke zein erlaziotan dauden (epaile-bikotea aurkezlearen ezkerretara dago, beti ari bait dira eskuinera begira); beste batzuetan, detaile “espontaneoren” bati eskerrak, badakigu epaile bat beremahaitik harbelera joateko tartetxoa dagoela (“¡dale tiempo a que llegue a la pizarra, mujer!” esango dio aurkezleak behar baino bizkorrago hizketan hasi den lehiaketariari).

Programaren azken aldera, aurkezleak agur-hitzei ekiten dienean, *travelling* bat dago aurkezlearen aurpegia lehen planoan beti ere, eta fondo gisa *plato*-a agertuz doa, nahiz oso nabarmen ez izan.

Bertsio frantsesarekiko aldeak

Bertsio frantsesean *publikoa* ere ageri da, lehiaketarien iharduna jarraitzen. Publiko horren planoan tarteka ageri direnean, jendea bere bloka eta boligrafoa hartuta hitzak osatzen edo eragiketak egiten ari dela ikusten da. Partizipaziorako gonbitea seinalatu nahi da. Hots, etxean dagoen teleikuslearen ordezkari den publiko horrek bezala parte hartzeko gonbitea egiten zaio teleikusleari berari ere.

Publiko horrek txaloka hartzen ditu lehiaketarien erantzun zuzenak. Espainolean ez dut uste txalorik ere entzuten denik

Publiko hori edadeko jendez eta haurrez osatuta dagoela ikus daiteke plano bakan horietan. Beharbada programaren zuzendari-errealizadoreek *target* hori dute gogoan. Target-a bera proposatzen diote teleikusleari, identifikazio-bide bat emanaz.

“TELECUPON”

Zuzena/diferitua

Zuzena, direktoa omen, autore batzuen arabera, telebista-medioak duen ezaugarriarik behinena. Hala ere, Umberto Eco-k frogatu zuenez, zuzenean ere diskurtsua legoke. Zuzena ikusten ez den diskurtsu-modu bat litzateke.¹⁴ Zuzenaren auresanezinak, aurrikusezinak, bapatekotasunak erakutsiko omen luke telebistak, irratiarekin batera eta beste medioen gainetik duen abantaila.

Programa hau zuzenean egiten da egunero, astelehenetik ostiralera. Edo inpresio hori eman nahi da behintzat (posible bait da nahitaezkoa dena bakarrik zuzenean ematea, eta beste

plano eta sekuentzia batzuk grabatuta izatea, nahiz egunean bertan).

Hala, erabaki den “mise en escène”-ak zuzenaren inpresio horrekin jokatu nahi du:

- Bi *aurkezleek* (neska eta mutila) festibal eta jaialdietako jokamolde klasikoa azaltzen dute: txandaka hitzegiten hasten dira, mutila-neska-mutila-neska... gidoia zatika erreztatuz, mekanikoki, buruz ikasia bailuten. Horrekin batera, beren arteko bromatxoak, hitza elkarri kentzea eta abar egiten dituzte, direktoaren efektua emateko.

- Zozketa-bonboen ondoan dauden *azafatek* e re “pose”are n posea azaltzen dute, laurak postura berdinean, irribarre konjelatuekin, zangoak berdinean gurutzatuta. Epaimahaira hurbiltzen direnean, eskuan zenbakidun bolatxoak daramatela, modeloak pasarelatik bezala dabilta, eta berdinean begiratzen diote irribarrez kamarari, ezkerretik ateratzen direnean.

Jestualtasuna

Jestualtasun guzti hori, pose kodetu guzti horiek, beren goren gradura eramaten direla dirudi aztergai dudan programan (uztailaren 12koan alegia) tokatu zen aktuazio musikalean. Kantari bat eta talde laguntzailea (hiru neska eta mutil bat) genituen:

- Kantariaren jestualtasunak ere estetika *demodée* baten arrastoak erakusten zituen (bihotz-taupadak adierazteko, eskuaren atzera-aurrera erritmiko nabarmenak; larria edo desespazioa adierazteko, biloak igurtzi-banatzeko era... Parodia, karikatura, *kitsch*-a bete-betean, programa osoari ginda jarritz).

- Talde laguntzailea ere ondo ikasitako mugimendu batzuen konpasean ari zen. Neskek jantzi ilun estu motzak —azkenaldi honetako *look* nagusia—, mutilak eredu latinoak (*tupe* handia, aurpegikera markatua, etab.).

“EL PRIMIJUEGO”

- Telebistaren bereizgarrietako bat, beste espektakulu, emankizun edo ospakizun oro irensteko —eta bere legeen mende jarritz eraldatzeko— ahalmena da.¹⁵ Kasu honetan argi eta garbi ikus daiteke hau ere: loteria, ohizko joko espainiar hori hartu eta telebista-programa bihurtu du. Baina bihurtze horretan, bere legeen pean jarri du:

- Loteri zozketa klasiko bera bigarren planoan geratzen da, eta protagonismoa medioak berak hartzen du, kasu honetan medioaren enuntziatzailea den emakume aurkezlearen bitartez. Berau bihurtzen da protagonista nagusi, lehen planoan eta kamarari (teleikusleari, norberari) zuzen-zuzen begira.

- Loteri zozketa klasikoaz gainera, edo hori baino areago, teleikusleak zuzenean parte hartzeko duen posibilitateari esker lortu du programa honek hainbesteko entzulegoa. Zuzenean, ustez medioa/teleikuslea komunikazioa gradu gorenera iristen delarik: aurkezleak (medioak) telefonoa jotzen du, eta elkar-rizketa bat dator ondoren, zorioneko (!) teleikuslearekin. Baina ezin azpimarratu gabe utzi komunikazio-egintza horren inizat-iba, giltza, medioarena dela.

“KALEJIRA”

Telebista-lengoaia

Programa honen oinarria telebista medioaren *ahalbide teknikoak* berak dira, telebistaren lengoaiatz mintzatu garenan aipatutako ahalbide teknikoak alegia:

- Lehiaketa osatzen duten probek bideotruko bat dute asmagai: plano estatiko batean trukaketa bat egin da, elementuren bat kenduz, aldatuz edo erantsiz. Argazkilaritzan egin ohi diren fotomontaketen antzera, baina era ikusgarriagoan. Izan ere, bideotrukoaren ebazpenean, oso era bitxiz berrezartzen bait da jatorrizko irudi “erreal”, montaketa teleikusleen aurrean desegiten delarik.

- Azken proba gisa, finalista geratu diren bi bikoteek “chroma-key”aren teknikan oinarritutako proba bat burutu behar dute. Teknika hau nahikoa arrunta da, eguraldiaren berri ematerakoan ere erabiltzen dena: esatariak berez ez ditu ikusten pantailan bere atzean ageri diren eta ikusiko balitu bezala seinalatzen dituen mapak. Bi kamararen irudiak bata bestearen gainean jarriz burutzen da teknika hau.

- Teleikusleek ere badute parte hartzeko txokoa, nola ez, eta hor ere bideotruko bat asmatzea proposatzen zaie.

- Publizitate intradiegetikoa bera ere, hau da, programaren barruan eta programaren babesleei eskaintzen zaiena, bideotrukoen ebazpenetan ageri diren efektu bereziez baliatzen da.

Zuzena/diferitua

- Diferituan ematen da programa hau. Programa guztietako gidoiak berdin-berdinak dira beti, planoz plano ia, Berdintasun eta monotoniaren arriskuari aurre egiteko, aurkezlearen iharduna dugu: berez, esan behar dituen hitzak berdin-berdinak dira gidoi guztietan (gidoiak eskumenean izan ditugulako diogu hau), baina programa bakar batean ere ez zaie atxekitzen hitz horiei; bapatekotasunak, inprobisazioak, martxa libre a du.

“Telecupón”en kasuan alderantzizkoa gertatzen da, beraz: han, programa zuzenean izatean, aurkezleak estu-estu lotzen zitzaizkion gidoiari, zuzenaren arriskuei itzuri egiteko; hemen, ordea, arriskua kontrakoa da. Beraz, zuzenak literaltasun handiagoa eskatzen du; eta diferituak, berriz, bapatekotasun handiagoa. Kontraste honen bidez, hain zuzen, ageriagoan geratzen da berezko espontaneitateak oso leku mugatua duela telebistan, eta estrategia oso osatu bat, aurrez pentsatu diskurtsu bat nagusitzen dela, oro har, telebista-medioaren jarioan.

1. ECO, Umberto: *Apocalípticos e integrados*, Lumen, Barcelona, 1985, 367 or.
2. METZ, Ch.: *Lenguaje y cine*, Planeta, Barcelona, 1973.
3. GUBERN, R.: *La mirada opulenta*, Ed. Gustavo Gili, Barcelona, 1987, 346 or. eta hur.
4. ZUNZUNEGUI, S.: *Pensar la imagen*, Cátedra-UPV, Madrid, 1989, 208 or.
5. ZUNZUNEGUI, S. *ibid.*, 201 or.
6. GUBERN, R. *op. cit.*, 369 or.
7. VERON, E.: "Il est là, je le vois, il me parle" in *Communications*, 38 zk., 1983, 105 or.
8. ZUNZUNEGUI, S. *op. cit.*, 213-214 or.
9. ECO, Umberto *op. cit.*, 338 or.
10. LANG, Kurt/LANG, Gladys: *Politics and Television*, Cuadrangle, Chicago, 1968; TUCHMAN, Gaye: *La producción de la noticia: estudios sobre la construcción de la realidad*, Ed. Gustavo Gili, Barcelona 1983.
11. ZUNZUNEGUI, S. *op. cit.*, 199 or.
12. GONZALEZ REQUENA, J.: *El discurso televisivo: espectáculo de la modernidad*, Cátedra, Madrid, 1988, 114 or.
13. GONZALEZ REQUENA, J. *op. cit.*, 110 or.
14. ZUNZUNEGUI, S. *op. cit.*, 210 or.
15. GONZALEZ REQUENA, J. *op. cit.*, 24 or.; ZUNZUNEGUI, S. *op. cit.*, 201 or.

HAINBAT ABURU

PRUDEN GARZIA

MITOAREN FUNTZIO POLITIKOAZ

MITOAREN FUNTZIO POLITIKOAZ

Sorel-en exegesi bat:
"Bortxari buruzko hausnarketak" (1908)

PRUDEN GARZIA

Georges Sorel XIX. eta XX. mendeetako belaunaren gainean bizi izan zen pentsalari frantsesa dugu. Idazki ugariaren egilea, marxisten artean kokatu ohi da; zehazkiago esanda, Marx eta Engels-en heriotzaren ondoren marxismoaren birpentsaketari ekin zioten teoriko marxisten artean, hala nola Bernstein, Kautsky, Rosa Louxemburg, Hilferding edo Lenin, nagusienak baino ez aipatzearren, baina hauen artean toki berezi samarra beteko du arrazoi asko dela medio: lehenik eta behin Frantzian jaio eta bizi izan zen, iraultza eta errebolta-tradizioa inon baino luzeagoa eta sakonagoa den Parisen, non kokatzen bait zen, bestalde, Europako alderdi

sozialista indartsu eta jendetsuenetako baten burua. Buru erabat erreformista, hala ere. Eta buru horren burukideen aurka oraindik ere Mendebal Europan iraultza baten beharra aldarrikatzen zutenak lau katu baino ez ziren izaten. Lau katu zori, sufragio unibertsalak (gizonezkoena soilik, gogora) eskaintzen zuen bide ziur eta mailakakoa ikusi nahi ez omen zutenak. Eta horien artean, Sorel, mila aldiz hurbilago Lenin bategandik, Jaurés batengandik baino.

Gehitu egin beharko litzateke, hala ere, Mendebaldeko Europan, Ekialdean ez bezala (gogora 1905a), ordurako sortua zela geroa hainbeste katramila eman duen komedia, alegia, masa-mugimendu iraultzailea gidatzea baino masa-mugimendutan iraultzaletasuna piztea zela kontua, partidu sozialista baten sorrera eta antolaketa edozein iraultza ekiditeko biderik ziurrena bihurtua bait zen kurioski.

Giro horretan kokatzen da bete-betean Sorel. Giro horren semea izanik ere, bere lanik esanguratsuentzat jo izan dena, eta gaurkoan zenbait burutapenatarako bide emango diguna, alegia, *Bortxari buruzko hausnarketak*,¹ 1908an argitaratua.

Inoiz anarkistekin konfunditua, korronte politiko berezi batean kokatu behar dugu Sorel, sindikalismo iraultzailea deitzen dena, zeinak, batez ere Frantzian eta Italian, lortu zuen arrakasta (azken herrialde honetan bere kide eta burukide askok faxismorantz joko zuten gero).

Berezitasunen zerrenda honekin bukatzeko aipatu beharrekoak dira bere pentsamenduari originaltasuna ematen dioten ezaugarri bi: Marx-en ekarpenaz egindako birpentsaketa boluntarista, eta honen ondorioz, Bergson-i jarraiki, arrazoi modernoaz egiten duen errefusapena, eta bortxari eta bortxari buruzko hausnarketari eskaintzen dion aparteko arreta. Hain zuzen ere, azken puntu honetatik bideratu nahi nuke neure exegesi pertsonal hau.

MITOAREN EZAUGARRIAK ETA FUNTZIOA

Komentatu nahi dugun liburua ez da berez liburu bat, artikulu-bilduma bat baino, lehenago gai nagusi baten inguruan idatzitako zenbait artikuluren bilduma, nahiz eta askoz ere gai gehiago tratatu. Ez da neure asmoa Sorel-en pentsamendua azalpen sistematiko bat egitea, ezta liburu honek ukitzen dituen gai guztiena ere, ezta Sorel-en *kritika/goramen/eraso* bat plazaratzea. Nahi nukeena, liburu horren orri artean aurkitutako ideia pare baten berri ematea da. Eta ideia horiek gure gizartean mitoak betetzen duen funtzio politikoari dagozkio.

Aipatu dugu lehenago XIX eta XX. mendeetako belaunaldi iraultzaileek beren asmoak aurrera ateratzeko aurkitzen zizuten zailtasunak. Urrunago joanda, partidu sozialistaren erreformismoa da Sorel-entzat iraultzaileen etsai nagusia, eta erreformismo hau deuseztatzeko bortxaren erabilera defendituko du langileen eskutik:

“La violence prolétarienne change l’aspect de tous les conflits au cours desquels on l’observe; car elle nie la force organisée par la bourgeoisie, et prétend supprimer l’Etat qui en forme le noyau central. Dans telles conditions il n’y a plus aucun moyen de raisonner sur les droits primordiaux des hommes; c’est pourquoi nos socialistes parlementaires, qui sont des enfants de la bourgeoisie et qui ne savent rien en dehors de l’idéologie de l’Etat, sont tout désorientés quand ils sont en présence de la violence prolétarienne; ils ne peuvent pas lui appliquer les lieux communs qui leur servent d’ordinaire à parler de la force, et ils voient avec effroi des mouvements qui pourraient aboutir à ruiner les institutions dont ils vivent: avec le syndicalisme révolutionnaire, plus de discours à placer sur la Justice immanente, plus de régime parlementaire à l’usage des Intellectuels; c’est l’abomination de la désolation! Aussi ne faut-il pas s’étonner s’ils parlent de la violence avec tant de colère.”
(29 or.)

Aipu luzea egin dut baina argigarria ene uste apalean; argi dago zergatik eta zertarako behar den bortxa ezarri: bortxaren funtzio nagusia ez da Estatua (etsaia) erasotzea, baizik eta eraso horren bitartez lortzen da oraindik handiagoa den etsaia, alegia, langileen ordezkarierak eta burgeszaleak, atakarik gabeko kale itsuan jartzea, “ebidentzian” uztea. Nork bere esku dauka honetatik (eta hemendik aurrera) Euskal Herriko egoerarekin paralelismoak ateratzea, baina ez da bortxarena gaur nagusiki tratatu nahi dugun gaia, mitoarena baino; honek helduleku bat baino ez digu ematen bereziki joratu nahi dugun gaiari heltzeko.

Beraz, badakigu bortxa zergatik eta zertarako. Ez dakigu nola. Erantzuna berehala emango digu Sorel-ek: greba orokorraren bitartez. Hauxe dugu sindikalista iraultzaileen ideologia eta estrategia iraultzailearen puntu nagusia: langile guztiak ados jartzen diren egunean bapatean eta batera greba egiteko produkzioa geldieraziz burgesiak jai edukiko du eta sozialismoa ezarriko da.

Historian zehar ikusi dugu, noski, hau erabat teoria okerra dela, alegia, inon ez dela sekula gertatu. Areago, pixka bat pentsatzen eta aztertzen hasita, berehala ohartzen gara halako planteamendu batek aurrera ateratzeko dauzkan oztopo eta era guztietako zailtasunaz. Honi gehitu beharra dago guzti hau ez teoriarik bakarrik, baizik eta Sorel-en liburu argitaratu zenerako mila aldiz praktikan frogatua zeukatela sindikalismo iraultzailearen buruek, Sorel bera barne. Orduan? Berdin dio. Zeren eta greba o rokorra *mito* bat da bere esanetan. Puntu honetan Sorel-ek, mitoaren kontzeptua erantsiz, erabateko jite berria ematen dio bere pentsamenduari, posibilitate-pila bati ateak irekiz. Ideia oso sinplea da:

“Les hommes qui participent aux grands mouvements sociaux, se représentent leur action prochain sous forme d’images de batailles assurant le triomphe de leur cause. Je propose de nommer mythes ces constructions dont la connaissance offre tant d’importance pour l’historien.” (32 or.)

Alegia, diskurtsu burutsuek, arrazoibidezko esplikazio eta azalpenek (aurreko aipuan ikusi bezala), are eta gutxiago teorizazio eta irakaspen astunek, ez dute ia eraginik mugimendu sozialetan; hauek *mitoen eraginez* mugitzen bait dira. Eta zer dira mitoak?

“Des ensembles d’images capables d’évoquer EN BLOC ET PAR LA SEULE INTUITION [maiuskulak neureak dira], avant toute analyse réfléchie, la masse des sentiments qui correspondent aux diverses manifestations de la guerre engagée par le socialisme contre la société moderne” (173 or.)

Beraz, mugimendu sozialei eskaini behar zaiena ez da teorizazio astunak edo *arrazoia*k baizik eta “irudi-multzo bat” zeina “blokean eta intuizio hutsez”, eta ez arrazoiaren bidez, izan behar duen asunitua. Guztiz garrantzizkoa da bere osotasunean edo “blokean” onartzea eta inolaz ere ez analizatzen saiatzea (hau da, bere partetan zatitzea, barne-logika bat aurkitzea, parteen arteko hierarkizazioa eta lotura kausalak bilatzea, etab.) edo errealtatearekin konparatzea, mito izaten jarrai dezan:

“Il ne faut pas chercher à analyser de tels systèmes d’images, comme on décompose une chose en ses éléments, il faut les prendre en bien comme des forces historiques, et il faut surtout se garder de comparer les faits accomplis avec les représentations qui avaient été acceptées avant l’action.” (33 or.)

Azpirarra dezagun berriro ere mitoak, greba orokorrak kasu, ez duela zertan inolako antzekotasunik gorde behar iragarri nahi den etorkizun errealekin; areago, berdin dio erabat oker badago edo guztiz ezinezkoa bada ere. Bere funtzioa ez da etorkizuna iragartzea, baizik eta langileengan *borrokatzeko gogo*a piztea eta indartzea. Azken aipu bat eginez:

“Il importe donc fort peu de savoir ce que les mythes renferment de détails destinés à apparaître réellement sur le plan de l’histoire future; ce ne sont pas des almanachs astrologiques; il peut même arriver que rien de ce qu’ils renferment se produise.” (179 or.)

Sorel-entzat greba orokorrak, mito-izaera hartuta, funtzio mobilizatzaile hutsa dauka, hau da, erreformismoak lokartutako langile-masak iraultzarako piztea mito mobilizatzaile bat emanaz, mito horrek iragarritakoa guztiz gezurrezkoa bada ere. Borrokazaletasuna eta gizarte-barruko bipolarizazioa lortzea da kontua. Eta, kurioski hemen ere, ez dago munduan ezer mobilizatzaileagorik eta eraginkorragorik mito bat baino. Erabat gezurrezkoa eta ezinezkoa bada ere.

MITOAREN BESTE EZAUGARRI BATZUK

Irakurketa erraztearren hemendik aurrera ez dut aipuetara joko eta testuaren erreferentzia hutsa emango dut.

Mitoaren dohainetako bat hauxe da: bapatean intuizio batez gureganatu ahal izatea (182 or.); hau da, oso erraza da “hitzetan azaltzen diren doktrinak desbideratzea” (39 or.) baina hori ezinezkoa da mitoa sartzen denean jokoan funtsean irudi-multzozkoak bait dira.

Honen ondorioz, ez dira utopiekin nahasi behar: utopiak hitzetan azaltzen direnez gero, ez iruditan, zati ezberdinetan deskonposa daitezke eta arrazionalki aztertu, errealitatearekin alderatu, eta abar. Baina utopiek zuzen-zuzenean edozein erreformismotarantz garamatzate. Zoritxarrez, mito gehienak utopiekin nahasita agertzen dira, Marxen kasuan adibidez, eta kasu hauetan beren iraultzaletasuna gordetzen dute mitoari esker. Zeren mitoak eta talde baten uste sendoak (“convictions”) berdin-berdinak direnez, eta talde horren usteen adierazpena mugimenduzko eta irudizko hizkeran deskonposa eta analizaezinak, *ukaezinak* bait dira. Hau garbi edukitzea oso garrantzitsua iruditzen zait: bere izaera irrazionalari esker mitoak *ukaezinak* dira pentsamendu arrazionalaren bitartez, edota, errefusapen arrazionalak, behintzat, ez dute lortzen jendeak mitoan duen sinesmena higitzea. Hala ere, oro har, historian zehar mitoak eta utopiak elkarren artean estekatuta agertzen zaizkigu (parrafo osorako 45 or. eta hur.).

Beste mito batzuk ere izan dira historian zehar: Marxen iraultza katastrofikoa (32 or.), Eliza militantearen mitoa (38 or.), eta abar.

EUSKAL HERRIKO MITOAK

Aurreko orrietan zehar Sorel-ek mitoaz zeukan kontzeptua eta honetaz egin zuen erabilera politikoa azaltzen saiatu naiz. Alferrikakoa litzateke gehitzea ez zuela inolako arrakastarik lortu, nahiz eta, bidenabar esan, gerora kontzeptu hau faxismora pasa, arrakasta hobea lortuz (ikus Sternhell, Zeev: *La naissance de l'ideologie fasciste*. Paris, 1989), baina ez dut uste mitoaren erabilera, Sorel-en zentzu estu honetan ere, partidu edo joera politikoa berezi batena denik. Alegia, ene uste apalean, Sorel-en ekarpenak mitoa eta honen erabilera politikoiari buruz balio zabala dauka historia eta espektro politikoan zehar, eta hain zuzen ere, hari honetatik tiratuz komentatu nahi nituzke Euskal Herriko kasu bi.

Urteetan zehar (batez ere azken 25 urteez ari naiz) mito nagusi bat izan dugu Euskal Herrian, Ezker Abertzalearen esparruan kokatu izan dena batez ere eta nik Borroka Armaturaren Mitoa deituko nukeena. Sorel-i jarraiki, alferrikakoa da mito horren azalpen arrazoitu eta sistematikoa ematea; askoz ere zuzenagoa da Euskal Herriko jende askok ikusi izan duen bezala ikustea, alegia, “irudi-multzo bat, blokean eta intuizio hutsez, edozein analisi hausnartu baino lehenago, gure gogoan sentimendu-mordo bat pizteko gai izan dena”, zeren eta sentimenduez ari bait gara, noski, borroka mitikoaren irudiak jendearengan bapatean eragindako sentimenduez, milaka lagun borrokan hasi eta irautera eragin dituztenez, alegia. Behin baino gehiagotan deitu izan zaio honi borrokaren mistika eta euskaldunengan bereziki ikusi nahi izan da; ene uste apalean, fenomeno zabala da Historian zehar mundu guztian. Eta Sorel-ek esaten duen bezala, mitoak ukaezinak dira, eta beraz, garaitezinak, zeren mitoiari esker, ondo bait dakite borrokalariek egungo edozein zailtasun ez dela egungo errealitatearekin

parekatu behar, mitoak ematen dien irudiekin baizik, eta hauek garaipena iragartzen dutela: azkenean irabaziko dutela nola edo hala. Hona hemen Ezker Abertzalearen irrazionaltasunaz aritzean zertaz aritu beharko litzatekeen.

Hala ere, ez nadin errealitatetik larregi alendu. Sorel-ek berak ere erakutsi digu nola agertzen diren mitoak berak utopia deitzen duenarekin estekatuta, mitoak ez bait dira ia sekula hutshutsean agertzen. Beste hitz batzuekin azalduz, elementu irrazional eta arrazionalak elkarrekin estekatuta agertzen dira, eta batere lanik ez genuke egin beharko elementu arrazionalik aurkitzeko Borroka Armatuaren Mitoa kokatzen den estrategia politikoaren barnean (adibide bat aipatzearren: *negoziazioa*). Baina honek ez du arestian esandakoa ukatzen.

Jakina, Borroka Armatuaren Mitoaren balioaz eta jaso duen arrakastaz egin dugun azterketa egokitzat joz gero, zilegi da il-do beretik ondorioak ateratzen jarraitzea. Bata, ezker abertzaleari politikoki erasotzeko erabili izan diren tresna ideologikoei buruz, lehenengo eta behin. Euskal Herrian zenbait laguni *desmitifikatzeko* sortu zitzaaien berebiziko grina², urte luzetan zehar benetako *sukarra* izan dena. Guztiz alferrik. Sorel-engandik ikasi dugun bezala, mitoak ukaezinak dira, eta beraz, garaitezinak. Ondorioz, strategi aldaketa bat egon da eta hurrengo urratsa beste mito bat altxatzea izan da, aurreko mitoa aurka, eta horrela, kurioski berriro ere, lehenengo desmitifikatzaile askok Borroka Armatuaren Mitoaren aurka Bakearen Mitoa sortu dute. Izan ere, lehen esan bezala, ez dago ezer mobilizatzaileagorik mito bat baino. Eta mito indartsu baten kontra horixe da arma bakarra, beste mito bat sortzea.

Zergatik da mitoa Bakearena? Aurrekoarekin egin dugun bezala, aplikatzea egundako Euskal Herrian Bakearen bandera daramatenek egindako azalpen eta aldarrikapenei Sorel-en definizioa. Aurrekoan bezala, diskurtsu orokorraz ari naiz, ez honen edo haren azalpen konkretuei buruz. Eta diskurtsu orokorren mailan zera ikusten dut; “irudi-multzo bat, blokean eta intuizio hutsez, edozein analisi hausnartu baino lehenago, gure gogoan sentimendu-mordo bat pizteko gai izan dena”. Zehaz dezadan: Euskal Herriko arazo guztiak honetan laburbiltzen omen dira: gutxiengo maltzur batek ez digu bakean bizitzen uzten, baina borroka eginez (borroka baketsua, hori da

esaten dena behintzat, armada eta polizia-rik ez balego bezala) lortuko dugu bakea, eta horren ostean garapen ekonomiko, autonomiko, kultural, eta abar guztiak; beste hitz batzuekin esanda, zorientasuna, poztasuna, alaitasuna, anaitasuna eta nahi dituzun *-tasun* guztiak. Hala ere, zergatik izan behar du horrek mitoa? Alegia, hor ez dago gogoeta edo analisisirik; hor ez dago Euskal Herriko errealitatea modu arrazional batez ulertzeko egindako ahaleginik, gure gizartea, historia, arazo ekonomiko-sozialak, inmigrazioa, hizkuntz gatazka eta abar-reko gaitan sakonduz, esplikatzen saiatuz modu arrazional batez; hor ez dago problemaren zatiak, sustraiak, adarrak, kausak eta prozesuak analizatzeko inolako asmorik; hor dagoena hauxe da: hitz magiko bat, bakea, eta bere atzetik “irudimulzo bat...”. Berriro diot, aurkezten diguten bake hori nik ez dut inon ikusi, Walt Disney-ren pelikuletan ez bada. Eta Euskadin bizi gara, ez Disneylandian. Baina noski, horrek jendea mugitzea lortzen du, kaleratzea, “manifestapeneratzea”, saio desmitifikatzaile guztiak baino askoz ere hobeto. Horra hor gakoa.

Lehenago esan dudana bezala, honetan ere esan beharrean aurkitzen naiz honekin ez dudala ukatzen Euskal Herrian Bakea sostengatzen duten mugimendutan elementu arrazionalik ez dagoenik (bat ipintzearren: gizarte zibilaren errebindikazioa), baina era berean duten pisu mitiko eta irrazionala nabarmena iruditzen zait.

BUKAERA

Puntu honetarainoxe helduta, esandakoa laburbiltzeko eta ondorio pertsonal pare bat ateratzeko momentua dela uste dut. Izenburuak dioen bezala, mitoaren funtzio politikoari buruz aritu naiz, baina mito-kontzeptuari oso edukin zehatz bat emanez, Sorel-ek ematen diona; horretarako, bere testu batzuen irakurketa komentatuari ekin diogu, zenbait ezaugarri azpimarratuz: mitoa ez da hitzetan azaltzen, iruditan baizik; bigarrena, esplika ezina (eta, era berean, erasoezina) da arra-

zoibidearen ildotik; hirugarrena, funtzio mobilizatzaile hutsa dauka, berdin dio egiazkoa izan hala ez; laugarrena, mitoa ez zaigu sekula huts-hutsean agertzen, elementu arrazionalekin estekatuta baizik. Guzti honekin Sorel-ek ateratzen duen ondorio nagusia hau da: politikagintzan arrakastarik izateko ez-inbestekoa da mitoen bidez aritzea, berdin diolarik egiazkoa den zerbait transmititzen duten, hala guztiz gezurrezkoak diren; era berean, txanponaren bestaldea, utopia, hau da arrazoibidezko iharduna, erabat arbuiagarria da, besteak beste ahalkea delako arrakastarik lortzeko. Berriro ere azpimarratu nahiko nuke mitoaz eta utopiaz aritzean Sorel-ek mugatutako kontzeptu horietaz ari naizela, ez beste ezertaz.

Ene uste apalean, kontzeptu hauek Euskal Herriko egungo politikagintzarako erabat aplikagarriak dira. Barruti politikoa- ren alde guztietatik politikagintzan mitoen bidez aritzeko tentazioa ez da tentazio hutsa, errealitate trinkoa baizik, honek dakarren ondorio guztiekin; bat baino ez ipintzearren: mugitzeari, mobilizatzeari, borrokatzeari ematen zaio erabateko lehenasuna, horretarako edozein bide erabiliz, eta batez ere mito mobilizatzaileen bidea. Bi adibide nagusi aipatu ditut lehenago, ene uste apalean erabat paradigmaticoak. Epe laburrera beren funtzioa betetzen badute ere, epe luzera erabat antzuak dira, irudiak baino ez bait dituzte sostengatzen, eta ez arrazoitu daitekeen ezer.

Baina ezer esanda ere ez nabil guztiz zuzen, mitoak ez bait dira sekula huts-hutsean agertzen, elementu arrazionalak estekatuta baizik, Sorel-ek hainbeste mesprezatzen zituen utopiak. Eta horixe da, hain zuzen ere, nere proposamen pertsonala: mitoaren erabilera politikagintzan arbuiatuz, elementu arrazionalak bultzatu behar dira, hau da, Sorel-en utopiak; utopiak begiratu, aztertu, baloratu, zatikatu, elkarrizketatu, negoziatu, konpartitu, azken finean lortu egin bait daitezke. Eta ez bake mitikoak edo borroka eternoak. Utopiak.

1. SOREL, Georges: *Réflexions sur la violence*. Librairie des Sciences Politiques et Sociales, Paris, 1930⁷.

2. Jakina, ez nituzke zaku berean eta ordenarik gabe sartu nahi ildo honetan egin diren saio guztiak, ezta pertsona guztiak ere. Poliki eta banan-banan aztertu beharko lirateke. Joera zabal eta indartsu bati buruz ari naiz.

GUNEN GURPILEAN

MARIANO FERRER

BIGARREN ABISUA
SIDENOR
SERBIAR BAT GASTEIZEN
NOSTALGIA
ZUK ORDAINDUTAKO ITXURAGABEKERIA
EZKATA-KENTZAILEA
OROIMEN BERRITUAK
INDEPENDENTZIA!
ASKATASUNA
ZIRKULU KARRATUA
AUNG SAN SUU KYI
SORGINAK, SEXUA ETA AZTIAK
ERRETORE BERRIA
ONKO-ARRATOIA
IRIONDO, ZARRA, SUAREZ ETA GAINZA
EUSKALTZAINDIA
KRISIA
SOLCHAGA ETA OTSOA
ATZERA
ADIERAZPIDE BERRIAK
GURE "BAKER"A
ENTERATUENTZAT



MARIANO FERRER

BIGARREN ABISUA

Laster beteko dira 20 urte *Club de Roma* delakoak (53 herrialdetako 100 pertsonak) “Límite al Crecimiento” txostenaren bitartez gure kontzientzia kolektiboa astindu zuela. Garai hartan ez ginen erabat jabetzen gizateria bere lurraren esplotazio irrazionalaz inkubatzen ari zen kalteaz.

Orain, “La primera revolución global” izenburu adierazkorraz heldu zaigu bigarren emanaldia. Aste honetako prentsan azaldu dira laburpen batzuk.

Horietako laburpen batek, bigarren txosten hau mundu-gizarte berri baten eraikuntzaren hastapenetan aurkitzen garel dio. Gizarte berri hori gaurkoarekiko, Iraultza Industrialaren ostekoa aurreko milurteko nekazal-gizartearekiko bezain desberdina izango da.

Postulatu honen ondoren, hitzez hitz jasotzen dudan honakoa: “La nueva revolución carece de base ideológica: la conforman factores sociales, económicos, tecnológicos y éticos.”

Harritu egiten nau txosten honek “espiritual”tzat jo genitzakeen arazoez erakusten duen kezka. Jakinaren gaineko ekonomiaren militarizazioa, berotze globala eta Lehen Munduak Hirugarren Munduan ezarritako pobreziaaren esplotazio negargarriaren ondorioen gisako kezka materialak jasotzen ditu, baina garrantzia eman, mundua ezagutzen ari den aldaketa eroarekiko erantzun mentalari ematen dio.

Zentzu honetan, zati bat jaso nahi nuke:

“Dado el cambio de pautas que se ha producido ¿qué ocurre con la vida del individuo? Los niños ven la televisión y se enteran de todos los aspectos de la vida humana. Aprenden a ser personas con opciones y libertades individuales. Al no haber recibido medios para discernir lo que es fundamental en las tradiciones y valores de lo que es meramente su expresión formal, la generación más joven los rechaza en bloque. Los padres tienen ahora que ganarse su aprobación y negociar una autoridad que antes nadie les discutía. ¿Cómo reaccionan ante esta inversión en la que queda desbaratado el ejercicio de su autoridad? *Sólo hay una solución* y es escuchar a los hijos y aprender de ellos.”

Zati hau txosten osoaren adierazgarri bada, haren izenburua (“La primera revolución global”) ez da “hiperbole” bat.

Urriak 1

SIDENOR

Gure altzairu berezien birmoldaketa egin zenetik 5 urtera SIDENORek 14.000 milioi galtzen dituela eta berriro ere plan-tila-murrizketekin eta enpresen itxierekin hasi beharra onartzea gogorra da.

Zaila da ulertzea baina, horretara jarritz gero, onartzera hel gintezke, bere garaian ausardia-ezagatik egin ez zena, orain egin behar izatea.

Baina, hori bada gauza, alegia, argi eta garbi dagoen ondorio hotz bezain saihestezinaren aurrean gaudela —hala azaltzen zaigu kostu sozial berri honen beharra etorkizunean Europan lehiatu ahal izateko—, hori bada gauza, nork adieraziko dit ACENORen biabilitate-planak langilegoaren, enpresarien, sindikatuaren, Diputazioen eta Eusko Jaurlaritzaren “no pasarán” delakoarekin topo egitea?

Atera daitekeen ondorio etsigarria honakoa da: lehen birmoldaketa gaizki egin zen eta bigarrena ez da ongi egingo.

Hainbeste diru eta oinaze jokoan dagoelarik, ondorioa ezin ilunagoa da.

Urriak 4

SERBIAR BAT GASTEIZEN

Azken krisialdiaren ostean Eusko Jaurlaritzaren kontseilari izango diren sozialisten zerrendak ohizko esamesak sortu ditu. Hauen artean aipagarria da Xabier Kintana euskaltzainak Fernando Buesa hezkuntz sailburuaren hautaketari egin dion kritika:

“Que en un país oficialmente bilingüe una persona que no conoce una de las lenguas oficiales (...) sea nombrada responsable de la cartera de Educación, resultaría cómico, si no fuese sarcástico y lacerante.”

Eta aurreraxeago: “Se diría que en nuestra Croacia particular la enseñanza ha quedado en manos de un serbio.”

Urriak 5

NOSTALGIA

Gaur mineriak jota nago denboraren iraganak sortzen dituen kalteak ikusirik.

Oraintxe bertan entzun diot Markiegiri “chorizos” deitzen añaamenditar bere alderdikide (ohi)ei.

Ez dut egia ala gezurra ote den diharduko, bietako edozein hipotesitan ematen bait da ezkerren deskreditua.

Eta Labordeta-k agur esan dio gaur Zaragozan kantatzeari. Hainbeste borroken lagun izan zen ahots maitagarri hori ez da gehiago jendaurrean arituko.

Balantzan jartzen dut entzuten dena eta ez dena.

Duela gutxi bildu dira munduko zientifikorik ospetsuenetako batzuk denboraren arazoaz eztabaidatzeko. Dirudenez bat datoz itzulezinezkotzat jotzean eta, nahiz kosmologikoa nahiz giza sormenaren eskema psikologikoa izan, etorkizunerantz bakarrik doala esatean. Ezin daiteke denboran barrena atzerantz ibili.

Eskertzekoa da zientziaren abisua, batzuetan saioen bat egiteko tentaldia handiegia bait da.

Urriak 6

ZUK ORDAINDUTAKO ITXURAGABEKERIA

Iragarri berri dute Donostiako Udaletxeko zinegotzi askok hasi edo jarraitu egingo dituztela —Udalak ordaindurik— euskara ikasteko ikastaroak.

Agian zuk ondo derizkiozu. Nik, ezta gutxiagorik ere.

Ez dut ezertxo ere, noski, euskara ikasteko nahiz hobetzeko gure zinegotziek egin ditzaketen saioen aurka. Baina diru publikoaz ordaintzearekin ez nator bat.

Zehaztasun gehiegitan sartu gabe, arrazoi bakar bat emango dut: alfer-alferrikakoa da. Ikasketetatik aterako duten etekina euren eginkizunetarako erabili ahal izan orduko, gehienak ez dira zinegotzi izango.

Zuzenagoa litzateke alderdiek hartzea euren hautagaiak *aurretik* prestatzeko ardura eta ez hautatuak izan eta gero. Eta ez dut inolako arrazoirik aurkitzen eginkizun hori eurek ordain ez dezaten. Nik dakidanez ez dira eskubide irabaziak dituzten behinbetirako funtzionariak eta.

Urriak 7

EZKATA-KENTZAILEA

Corcuera zerri-zurda bezain zarpaila da. Asmatu egiten du Umbral-ek, metafora berrituz, “la sutileza felipista, pasada por la ruda dialéctica del matonismo ministerial, es como un estilete florentino convertido en cuchillo de desescamar beguso” diorean.

Duda egiten dut Corcuera-ren zakartasun hori, guetzat, bedeinkapena ala ezbeharra ote den. Argi dago bere izaera liskartsu hori izan dela liskarrak maite ez dituen hainbat talde errespetagarri *Ley de Seguridad Ciudadana* delakoak sortutako eztabaidan esku hartzera bultzatu duenak, eta aldi berean, legearen zentzugabekeriak pertsonalizatu dituenak —Corcuera-legeaz hitz egiten da lege sozialista bat izanik— eta eztabaida bi edo hiru artikuluko zehatzetara mugatu duenak, kezkarriena legea inspiratzen duen mentalitatea izaki.

Corcuera-k defendatzen duen polizi jarrera, Muñoz Seca-ren bertso-komedia ahaztezinako Don Mendo inspiratzen zuen bera da:

“No hay barreras para mí
y si hay barreras las salto.”

Legegintza-teknikari dagokionez, ministrariaren sotiltasuna konstituzio-kontzeptuak zabaltzera mugatzen da —batzuen ustez Konstituzioaren aldaketa estali bat dago hemen— edo Konstituzioa aldatzera iruzurra onartuko ez balitz.

Nolanahi ere, ministrari-jokamoldeez hitz egiten dihardugunez, ez legoke gaizki gertakari politikoen eguneroko kronikatik bitxi bat jasotzea.

Hain aipatua den autobideaz hitz egitean, Ramón Jauregik Corcuera-EAJ harremanez zera dio: “José Luis Corcuera ha jugado un papel de extraordinaria flexibilidad en este tema y exquisita cordialidad con los dirigentes del PNV”.

Gogoan duenak EAJ izan zela, CiUrekin batera, Corcuera-k defendatzen duen lege-proiektu osoari emendakinik aurkeztu ez zion alderdi bakarra, bat egingo du nerekin Corcuera-ren begikotasunaren salneurriak arraina —ezkata eta guzti— irenstea eskatzen duelakoan.

Urriak 10

OROIMEN BERRITUAK

Otsaila aldean, Ardanzak aurre egin behar izan zion, Gobe eta hirukoitzaren lehendakari gisa, inbestidura-eztabaidari EA eta EEREkin batera. Gaur, bere gobernua, PSOEREkin eta EERen erdian bikoitza baino gehiago baina hirukoitza baino gutxiago dena, konfidantza-bozketapean ezarri du.

Otsaileko eztabaida parlamentarioaz nituen oharrak berriro ere irakurri ditut. Garai hartan zera idatzi nuen orrialde hauexetan:

“EE: Kepa Aulestiak bene-benetan sinesten zuen Ardantza zela bere hautagaia.

EA: Garaikoetxeak ez zuen hain benetan sinesten.” (*Jakin*, 62 zk., 160 or.)

Bederatzi hilabete geroago, Ardanza eta Olloraren erdeinuak jasan behar izan zituen Kepa Aulestiaren itxura, patetikoa zen. Tratu hau dela eta, ETAren azkenetako komunikatu batean Erromak ez diela traidoreei ordaintzen esaten da, baina eman zaion tratua traidoreari ematen zaionaren eta inozo erabilgarria izateari utzi egin dionaren erdibidean dago.

Garaikoetxea egoera hobean zen. Lasai zegoen eta Ardanza urduri jartzen saiatu zen. Baina Ardanza, oraindik orain, gaita haren hitzak euri-tantek sortzen duten hotsa entzuten den bezalaxe entzuteko.

Nere oharretatik HBren hitzaldiaz idatzitakoa ere berreskuratu dut:

“HBren hitzaldi on bat izan zen. Baina aldi berean HBren betiko hitzaldi bera. Legebiltzarrean inork ere ez zion jaramonik egin.” (*Jakin*, 62 zk., 160 or.)

Gaurko bilkura osora joan ez denez, HB ere ondorio berberera iritsi ote den galdetzen diot neure buruari.

Urriak 11

INDEPENDENTZIA!

Gaur Bilbon izan ez denak ezin izango du jakin, komunikabideek diotenaren arabera, han burutu den manifestaldia izugarria ala, besterik gabe, beste bat gehiago izan ote den. Komunikabideek, prentsak bereziki, eskaera independentistaren balio informatiboaren apostuan behetik jokatu dute. Editorialetan, ordea, beherapenak baino gehiago ez-ohizko agresibitatea nabari zen.

Editorial hauetan idatzitako gauzen artean zerak harritu nau: “No hay una sola razón histórica de peso que avale la pretensión de recuperar la soberanía perdida”. Ni neu, behintzat, independentista izatekotan, ez nintzateke galdutako subiranotasunagatik izango, herri honek orain hori adierazten duelako baizik.

In terroresgarria litzateke borondate hori zinez ba ote den jakin ahal izatea. Nere aburuz, EAJren hauteskunde-arrakastaren giltzetako bat honetan datza: abertzale-sentimendua indartzen duen aldi berean inoiz proban jarriko ez duela garantizatzen du.

Urriak 12

ASKATASUNA

“Goizaldeko hiruretan etxeratzeko prest ez bazaude, eutsi zeure askatasunari.”

Dirudienez hori izan da asteburu honetan cacerestar gazteak Gobemadore Zibilaren ordenaren aurka manifestatzera bultzatu dituen lema.

Ez dakit oso ongi nortzuk izan ziren bukaeran gertatutako gehiegikerien arduradunak. Baina uste dut badakidala nortzuk garen *slogan*-aren arduradun.

Urriak 13

ZIRKULU KARRATUA

Kronikek diotenez Aita Santuak Brasil-en gaitzetsi egin zuen lurren jabetza gutxi batzuen eskutan egotea: “No tiene ninguna justificación y constituye un abuso ante Dios y ante los hombres” esan zuen.

Jendeak txalo egin zuen.

Baina Aita Santuak hori ez ezik “ni la justicia ni el bien común permiten hacer daño a nadie ni invadir su propiedad bajo ningún pretexto” ere esan zuen.

Eta jendeak ez zuen txalorik egin.

Gizateriaren historia Aita Santuaren hitzek marraztu nahi zuten zirkulu karratu horren alferrikako bilaketa da: injustiziaren aurka altxatzea norbera injustu izan gabe.

Hemen ere, Euskadin, ez dugu hori gauzatzen jakin.

Oraindik saiatzen ari garela pentsatu nahi nuke, ordea.

Urriak 14

AUNG SAN SUU KYI

Gogoan gordetzeak merezi duen izena. Ez Nobel-a irabazi duelako, gehienok horri esker ezagutu dugun arren.

Bizitzak bere herria jasaten ari zen injustiziaren aurrean ahozpe jarri zuenean, emakume honek 43 urte zituen, 16 zeramatzan ezkonduarik eta hiru seme-alaben ama zen.

Gutariko askorentzat, aitzakia nahikoak begiak itxi eta bakoitzak bere bidea jarraitzeko. Hark, aldiz, nahiago izan zuen besteen mina bere egin eta konprometitu. Hiru urte daramatza atxiloturik.

Zirkuluaren karratutasunaren bila jarraitzen du. Eskerrik asko.

Urriak 15

SORGINAK, SEXUA ETA AZTIAK

Thomas epailea Estatu Batuetako Epaitegi Goreneko kide da jadanik. Bere kasuak zer esan ugari sortu du. Batzuentzat Thomas jaunaren izendapenak baieztatzen duen gauza bakarra gizonen erasopeko emakumeen indefentsioaren aurrean giza itsutasuna den bitartean, besteentzat erasotua hautagaia bera izan da. Elisabeth Badinter-ek, frantziar militante feminista ezagunak, esaterako, “azti-ehiza”z eta “talde feminista erradikal amerikarraren eta sexuarekiko —maskulinoarekiko batipat— gorrotoan bat egiten duen gizarte amerikarraren zatirik erreakzionario eta puritanoenaren arteko aliantza”z hitz egiten du.

Albora utziz eztabaida teorikoak, bada eztabaida honen aplikazio praktikoez gehiago arduratzen denik. Zer ulertu behar da sexu-erasoaz? Bere baitan hartzen al ditu begirada libidinosoak? Txiste lizunak? Nesken horma-egutegiak? Emakume baten ezezkoaren aurkako insistentzia?

Sukalde-hornikuntzari lotutako enpresa amerikar batek, bere langileen artean lau galderako test bat egin du zalantzak gainditu eta gehiegikeriak sahiesteko:

- *Zure emaztearen aurrean esango/egingo al zenuke?*
- *Zeure sexu bereko adiskide baten aurrean esango/egingo al zenuke?*
- *Gogokoa al litzaizuke egunkariko zure herriko kronikan kontatuko balute?*
- *Beharrezkoa al da esatea/egitea?*

Ia-ia “ez besteri egin zeure buruarekiko gogoko ez duzuna” esaera zaharraren aplikazio modernoa dirudi. Baina ez. Lagun urkoarekiko kristau-axiomak ez du hemen inolako aplikaziorik. Azken inkesten arabera, insinuazio sexualengatik % 65/75 emakume minduko lirateke; gizonezkoen artean, berriz, kopuru hori % 15era jaitsiko litzateke.

Urriak 16

ERRETORE BERRIA

Juan José Goiriena dugu Euskal Herriko Unibertsitateko erretore berria. Jakina zen. Barberá-ren ihesaldiak utzitako lorratzak ez zizkion gauzak hain samur ipintzen “continuista”tzat jotzen zen beste hautagaiari.

Nere ustez, “continuista”tzat joak izan diren horiek ez ziratekeen hain “continuista” izango, baina euren iragan hurbilak ez die Barberá-ren ildotik —publikoki bederen— urruntzeko aukerarik eman.

Harrigarria gertatu zait ikustea zer alde txikia zegoen Goirienaren eta Aldekoaren egitamuaren artean. Hain txikia, ezen zilegizkoa bait da susmatzea, askotan gertatzen den bezalaxe, aldatu diren gauza bakarrak pertsonak —trukagarriak elkarren artean, Goirienak berak esan bezala— izan direla.

Nolanahi ere, jota utzi nau bi egitamuok poliki eta arretaz irakurtzeak (hori egin duen bakarrenetakoa izango naizela uste dut) eta, zehaztasunak edo bitxikeriak alde batera utziz, haien arteko desberdintasunak adierazteko gai ez izateak.

Seguru asko, “barruan” egon beharko litzateke hautagaien mezuen arteko desberdintasunez jabetzeko. Eta honek gure EHUK izan dezakeen arazorik larrienera garamatza: bere baitan dabil itzulika eta *iniziatuentzako* eztabaida-kodeak darabiltza.

Bazen beste hirugarren egitamu bat, arras desberdina, baina ez da gauza izan hautagai bat aurkezteko. Erradikalatasunak ere bere morrontzak ditu eta, dirudienez, *iniziatuen* esku daude.

Urriak 18

ONKO-ARRATOIA

Onko-arratoia dugu azken eztabaidako protagonista. Dirudienez Patente Europarren Bulegoak bat eman omen dio injinerutza genetikoaren bitartez aldatutako ugaztun honen “fabrikatzailea”ri minbiziari buruzko esperimintuan erabiltzeko.

Ikuspegi etiko batetik eztabaidaren muina ea *bizidunei* buruzko patenteak eman behar ote diren erabakitzea da. Patenteak “a cualquier invención que sea industrialmente aplicable, no-obvia y nueva” guztientzat ematen direnez, emateak baino gehiago *industrialki erabilgarriak diren bizidunak* inbentatzeko dugun gaitasunak arduratzen nau, batipat inbentoa arratoiaren kode genetikoa aldatzeko eta giza tumoreen aurrean minberati bihurtzeko erabiltzen denean. Aurrerapen teknikoaren aldekoek, teknologiak animaliairene oinazea gutxitu egingo duela diote, farmazi inbestigazioak eskatzen duen animalia hilketa ugari saihestuz. Ikuskizun dago.

Nolanahi ere, eztabaida honek, berriro ere, gizon-emakumeok nahi dugunean nola korapilatzen garen eta komeni zaigunean nola deskorapilatzen garen erakusteko balio izan du.

Patente Europarren Hitzarmenak galerazi egiten ditu landare-aldakiak nahiz animalia arrazak patentatzea. Arazoa, beraz, Hitzarmen honen hiru bertsio ofizialetan datza: frantsesak “animalia arrazak” aipatzen ditu, ingelesak “aldakiak” eta alemaniarrek “motak”. Bulegoak, bere burua zuritu nahian, patente ematean erabaki du animalia transgenesikoek ez dutela animalia arraza/aldaki/mota-rik osatzen.

Egunen batean, geuk ere elkarrizketa/solasaldi/negoiazioa baliokidetzat joko bagenu, apika, beste nahaste eder batetik aterako ginateke.

Urriak 19

IRIONDO, ZARRA, SUAREZ ETA GAINZA

Adolfo Suarez-ek ahoa itxi eta politika utziko du. 1977ko udaz gero Legebiltzarrean zuen aulkia lagatzea erabaki du. Bere joateak, hein batean, transizioaren bukaera markatzen du.

Ia sahiestezina da Franco-ren heriotzaren eta Suarez-en erreformaren osteko lehen Korte demokratiko haiek gogoratzea. Bertan, Dolores Ibarruri, Santiago Carrillo, Manuel Fraga, Blas Piñar, Jordi Pujol, Xabier Arzalluz, Enrique Tierno Galván, Gregorio Peces Barba ziren.

Gaurkoarekin erkatuz gero, hark erraldaien Legebiltzarra dirudi.

Honek bide ematen ez badigu gure sistema demokratikoaren ahultasunaz burutapenen bat egiteko, beste aukera bat galduko dugu pentsatzeko.

Urriak 20

EUSKALTZAINDIA

Bilboko egoitza berriaren inaugurazioaren ostean, dena da letra-joko bat: instituzioek ordaindu behar dituztenak eta gastua justifikatzeko Euskaltzaindiak produzitu beharko dituenak.

Eta hau aipatzen dudanez, ba al daki inork zer arraiogatik ez ziren sozialistak inaugurazioan izan? Euren diskurtsu politikoan euskara euskaldun guztion ondarea dela diote.

Urriak 21

KRISIA

Kantauriko lau autonomi elkarteetatik (Euskadi, Kantabria, Asturias eta Galizia) hiru azaltzen dira euren biztanlegoa azken hamarkadan gutxiturik ikusi duten Espainiako sei autonomi elkartearen artean; eta lauretan gutxitu da epe berean BPGa (Barne-Produktu Gordina).

Gaur egun, autonomi elkarte hauek 4'7 lanpostu sortzen dituzte Espainian sortzen diren 100 lanpostuetatik, eta atzeritar inbertsioaren 100 pezetetatik 5 baino ez dituzte jasotzen.

Erantzun bat, Asturias-en milamilioietako zorretan itotzen ari diren enpresen itxieren aurka gaur burutu den greba o rokorra da. Bestea, McDonnell Douglass-ekin egingo omen den kontratuaren ipuina, 6.000 lanpostu sortuko litzukeena eta etorkizuneko euskal industria aeronautikoaren umekia litzatekeena.

Nere ustez, irtenbideak ez dira aurkitzen atzera begiratzuz edota aurrerantz ihes eginez.

Urriak 23

SOLCHAGA ETA OTSOA

Edozein idazleren betebeharra noizbehinka bere burua aipatzea denez, joan zen maiatzaren 30ean aldizkari honetan bertan IRPF-Legea onartu zenean idatzitakoa gogorarazi nahi nuke. Lege honek erregularizazio-neurriak ere kontutan zituen eta diru beltza zuritzeko *azken aukera* gisa aurkeztua izan zen:

“Ez dut uste presa handiegirik hartuko dutenik legeak dienez baliatzeko. Bai bait dakite, lehenago edo beranduago, beste [aukera] batzuk etorriko direla.

Bitartean, Gobernuak harrokeria handiz azpimarratzen du azken aukera izango dela eta hobe luketela ez galtzea, ez bait da amnistia fiskalik egongo. Ba al dute, bada, horrelakoen beharrik?” (*Jakin*, 64 zk., 124 or.)

Diru beltzak ezkutuan jarraitzen duenez, Solchagak “otsoa!” ohiukatu beharrean ikusi du bere burua. Aurrekontuen Legea aurkeztean Legebiltzarrari eskaera bat luzatu dio: amnistia fiskalik sekulan ez izatea.

Hau da hau beldurra!

Urriak 24

ATZERA

EAJk iragarri berri du ez duela Gipuzkoako Batzar Nagusietan A-4 delako alternatiba aurkeztuko beste alderdien laguntza-eza ikusirik.

Honek esan nahi du HB ez dela joango eta A-2 delako bide ofiziala 39-0ezko tanteoaz berronetsia izango dela.

Baina emaitza honek bere burua iruzurturik ikusi nahi duenarentzat bakarrik balio du. Juntetako tanteoa ez da jokatzen ari den partiduaren adierazle zuzena. PSOE bera ere ohartu da. Bere emendakinak, zuzenketa tekniko eta ingurugirakoei bidea zabalik utziz, doako luzapen bat onartzea dakar partidua era horretan buka ez dadin.

Urriak 25

ADIERAZPIDE BERRIAK

Bakoitzak bere maniak ditu. Neureen artean, merkatura egozten diren adierazpen berriak biltzea da bat.

Egun gutxitan bi aurkitu ditut. Batek Guerra-ren sinadura darama: “El modelo conservador ha fracasado. Lo que no ha fracasado es el socialismo de mercado capaz de corregir desigualdades”.

Bestea (Ollora-rena omen) EAJren III. Batzar Nagusiaren eztabaidarako ponentzia batetik jaso da eta zera dio: “Puede haber un nacionalismo del norte y del sur. Y, en otro orden, un nacionalismo del corazón y otro del bienestar”.

“*Socialismo de mercado*”, “*nacionalismo del bienestar*”... Ea Gerra eta EAJ gauza bera esaten ari diren!

Urriak 27

GURE “BAKER”A

Ez dakit zenbat ehundaka milioi pertsonak entzun zuten Felipe González-ek Madrileko Konferentzian egin zuen inaugurazio-diskurtsua:

“Seguimos una larga tradición al ofrecerles esta casa como suya. España ha conocido a lo largo de la historia el fruto de la convivencia, de la tolerancia, de la paz, entre las tres culturas aquí presentes”.

Ikusten ari naiz, entzundakoa sinetsi ezinik, euren hi-lobietatik altxatzen gure elkarbizitza baldintzatu duten XV. mendean atzerriratutako milaka juduak (orain da, izan ere, gertakari haren V. Mendeurrena ere), beranduxeago diasporara zigorturiko moriskoak eta era guztietako diktaduren —ilus-tratu eta ez ilustratuen— beste hainbat eta hainbat biktima.

González-ek historia berridazten ziharduen bitartean, Baker-ek juduak eta palestinoak mahai berean eserteraziz idazten zuen historia. Atseginagoa litzaiguke González Baker-en papera betetzen ikustea, historialariaren papera betetzen ikustea baino.

Hementxe bertan dauka aukera.

Urriak 30

ENTERATUENTZAT

Asteburu honetan bildu dira Paris-en PSFko buruak, ezkerra intelektualki eta moralki birbateratu nahirik, egitamu sozialista berria aztertzeke.

Dirudienez, frantziar sozialismoaren “guru” berriak honako hauek ditugu:

- *Edgar Morin*, 70 urtekoa, soziologoa, konplexutasunaren teoria giza zientzietan aplikatu duelako ezaguna. Jaun honekin “agur” esan beharra dago determinismo marxistari, azpiegiturek eragindako jarre rei. Politikoak onartu egin behar du erabateko erantzunen jabe ez izatea eta behin eta berriz irtenbideak zalantzan jartzen egon beharra.

- *Jürgen Habermas*, 62 urtekoa, alemaniar filosofoa, gizarte industrialaren kritikaria. Bere lanak dira Michel Charzat-ek, bil-erako koordinatzaileak, “utopia sozialista berria” deitzen duenaren abiapuntu: gatazka onartzea da giza aktoreen arteko hitzarmen bat, konpromisu bat eragiten duen gauza bakarra. Utopia hau, gizarte ezin hobea, gatazkarik gabekoa aldar-rikatzen zuen utopia klasikoaren aurrez aurre kokatzen da.

- *John Rawls*, 70 urtekoa, filosofo amerikarra, sozial demokraziaren teorikoa. Bere “injustiziaren teoria”k utzi die egi-

tamu sozialista berriaren egileei ezkerretik liberalismoa interpretatzen, justizia eta efikazia *merkatu-sozialismo* batean elkartzen saiatuz. (Ene bada, hara non aurkitu duen gure Alfontso bere artikulu ospetsurako inspirazioa!).

Urriak 31

Euskaratzailea:
JON BERGARETXE

IBURUAK

AMAIA ITURBIDE

ADJEKTIBAZIOA BITORIANO GANDIAGAREN "ELORRI" N

ADJEKTIBAZIOA BITORIANO GANDIAGAREN "ELORRI" N

AMAIA ITURBIDE

Euskaraz izenondoen arloa izan da gutxien landu denetako bat, eta ez dut honekin esan nahi gure hizkuntza izenondoen faltan dagoenik, ezta hurrik eman ere, baizik eta, atsotitz eta atzizkietan ez bezala, alegia, adjektibazioari dagokion abarra ez dugula behar adina inausi, agian, euskaldunok gauzak diren direnean adierazteko garaian, ahalik eta mami-tsuen, bere biluztasunean izendatzeari emanagoak garelako, jantziago agertzeari baino. Eta eguneroko komunikazio arruntean, hitz egitean edo elkarrizketetan, ez da hain argia, baina idazterakoan adjektibazioaren hutsunea zamatsuago kausitzen dugu.

Horrexegatik eta, hain zuzen ere, izenondoen mundua axola zaidalako, gai hau jorrazteko interesgarri eta ezin aproposagoa den euskal olerkari baten lana aukeratu dut: B i t o r i a n o Gandiagaren "Elorri".

Orain gutxi bere bigarren argitarapena ikusteko zoria izan duen liburu zoragarri hau irakurri ahala, gehien nabarmentzen den gauza adjektibazioaren ugaritasuna eta aberastasuna da. Ugaritasuna kopuruari ez ezik, agertzeko era desberdinei ere dagokie. Aberastasuna *Elorri*-ren muina jazteko Gandiagak arretaz egin dion soinekoaren ukimenean, hizkuntzaren azalean nabari daiteke. Komentuko lasaitasunaz eta izadian barneratzeko ohitura duen minberatasun zoliaz bordatu egin du adjektibazioa, irakurlearen gozamenerako, usain, bihotz-taupada, margo, soinu eta ezin konta ahala sentsazio ezkutu esnarazteko gauza den adjektibazioa.

ZAMA SINBOLIKOA

Sinboloa, funtsean, errepikatzen den metafora bat da eta errepikatzen den neurrian unibertatsala izateko bidean dago. Sinboloak batzuetan lan literario batean zehar aldizka agertzen dira, garrantzitsu eta esanguratsuak izatera iristen direlarik. *Elorri*-n "garbia" (aratzaren sinboloa), "iluna" (tristura eta zalantza-arena) eta "hazia", "lazuak", "garratza" eta "nekatua" (lana eta oinazearenak) bezalako adjektiboak mezua, elkarrenetsai-lagunak diren poza eta minarena egituratuz joango dira:

«Aita zugaitzeko arima garbia» (202 or.)

«Egun illunak izango dira,
busti ta tristez, luzeak» (196 or.)

«Pozik ikusten ditut
neure esku aziak» (124 or.)

«nire esku lazatuak» (201 or.)

«bere esku garratzekin» (32 or.)

«begi nekatuok
ziran atsegindu...» (257 or.)

Koloreei bagagozkie, zuria da burua, ez da ba alferrik *Elorri* Gandiagaren libururik samurrena. Zuriak garbitasuna eta goitasun apala adierazten ditu:

«arnas zuri bat legez» (41 or.)

«Zer argiago,
Ama, zu baiño?
Zer zuriago?» (154 or.)

Izan ere, haurtzaroarekin harremanak dauzkan margoa denez, txikitasuna eta afektibitatearen ukituak dakartza. Sarritan “edur” hitzarekin bateratsu doa, elurraren irudia haurtzaroaren paisaje zatia bait da. Elurra eta negua, oroiaren oihal zuri bat bezala datorrena, gu bildu eta babestera, hasieran ginena besarkatzera. Elurra eta Jainko-umearen usain mitikoa daukaten gabonak, eta gabonetan, jaiotzak, sorkuntza poetiko horiek, egiten ditugu eta ahots zurien koroen gabon-kantak entzuten, etxearen beroaz eraberritzen... Zuritasunaren giroa fideltasunez isladatzen jakin du Gandiagak, gutxik bezala.

«lore zuri ta txikiez» (32 or.)

«Otza, otzan dan irudi,
edurra, edur dan zuri,
otz garbiaren axuri» (68 or.)

Urdina (“urdinzuria” eta “oztiña” urdinaren beste izenketak dira) lilura eta idealismoaren ikurra da, ametsaren jaiokide:

«Betiraunean egiña dabe
oztiña zure begiak» (155 or.)

«—ain ezin et’egi
liluragarrikoren—
itzal urdin-zuri» (66 or.)

«urrun-maitale nazan gaixo au
odei ta urdin bainaroa» (223 or.)

Horitasuna, ipuin askotan, urre-tinduraz estali ohi da, bi abarretan nabartzen delarik: alde batetik, finezia eta edertasuna zizelkatzeko agindua du; eta, bestetik, barnekoitasunaren jagole da:

«ots urrezko albainuz
eguratsa josten» (76 or.)

«barruan izan dala
urrezko txinparta» (146 or.)

Berdeak, lasaitasuna eta baretasunaren enbaxadore, bertso bakanetan du bakarrik izatea, baina irudi bitxiak sortzeko duen ahalmenagatik hona lerroratzea merezi zuela uste izan dut:

«otso berdea» (204 or.)
«Gau berde aundi aratza» (116 or.)

Tradizio oparoko poesia lirikoaren airean hain sustraituta dauden mugagabetasuna eta zalantza bezalako gogoaldarteak eskala kromatikoaren erdi aldetik ageri dira, ezbaian eta lautotan, arre, nabar edo laru koloreen bidez:

«Arre-argi zabaldia» (69 or.)
«Aide nabarrean
bedar igarren usaiña» (139 or.)
«Neguko arratsalde-
ondakin laru bat
erre-auts koloreko
zeru-barrenerantz» (45 or.)

Zuriaren ondorengo kolorea, maiztasunaz den bezainbatean, gorria dugu (baita gorriska eta gorria ere), gogortasuna samurtasunaren ahizpa bikia bait da *Elorri*-n. Zerbait biluzia, latza adierazten du:

«Arantzazu elorri
arkaitz ta lan gorri» (63 or.)
«neguko elorri,
gorri ta laborri» (47 or.)

Minaren makula ubel eta morearen bidez gordinagotzen zaigu:

«Ta ixillik ezpan ubelak» (114 or.)
«nire arima,
bakarrik,

bere betiko joran morea
ezin eroanik» (239 or.)

Azkenik, beltzak hiru esku luzatzen dizkigu, faltsukeriarena, tristura eta gabeziarena eta gaiztakeriarena, adibide haue-
tan hurrenez hurren soma daitekeenez:

«zure erlus baltzaren truke» (119 or.)

«bidazti baltzoa,
zernai sentipen ustuz» (140 or.)

«pekatu baltzez» (153 or.)

KONTRASTASUNA

Esanahi kontrajarriak dituzten adjektiboak nonnahi daude, kasu honetan ez berebiziko efektua sortzeko, baizik eta Gandiagaren poesigintzan hain oinarritzkoa den nahi eta ezinaren gaia joratzeko. Nahi eta ezinaren arteko borroka bortitzean daztan bizitza apala eta, era berean, gogorra eta minbera dela frogatzeko adierazpide baliotsua da adjektibazioari ematen zaion tratamendu hau. Koloreetan ere, aurreraxeago aztertu dugunez, zuriaren parean gorria genuen:

«Oker eta apal, maitekor» (37 or.)

«beti lurrezko eta beti arimazko» (50 or.)

«Samin gozo bat daroat,
orixkea ta xamurra» (242 or.)

«urtero barri dan kantua zaar triste ta zoro bat» (248 or.)

“Zahar” adjektiboaren altzoan txanpon beraren bi aurpegi desberdinak elkar topatzen dute buruz buru, konotazio banarekin; bata zerbait urruna bezain kutunaren, maitakorraren seinale den bitartean, besteak minaren zigilu gorria darama:

«... zure usain zaar eta
gozoa, maitagarri, oroi zaarren pare» (255 or.)

«betiko samin zaar,
 elorri azal-latza,
 malkorrean, lakar» (45 or.)

“Zahar” izenondoa zentzu baikorrean ezkorrean baino erabiliagoa da, zuria gorria baino sarriago agertzen den bezalaxe, *Elorri*-n bigunak gogorra gaintitzen bait du. Geroagoko emaitza poetikoaren aldean, bere lehen liburu hau samur eta gozoena da, hasieran oharterazi dugunez.

Kontrastasurenaren arloan, orain arteko adjektibazioa gairen muina haitzurtzen egon bada ere, oraingo honetan azalaren orriak apaintzen arituko da. Hurrengo adibidean (aurkitu dudana bakarrean) protagonistak diren kolore kontrajarriek ez dute adierazian pisu larregirik izango, bai oster, edertasuna dibujatzeko asmoan:

«Arri baltzixkak elorri-arantz,
 zurixkak izar-errañu» (65 or.)

ZEHAZTASUNA

Irakurgai batean nolabaiteko nortasuna hartuz doazen osagaiak (aditzak, substantiboak zein adjektiboak) dira garrantzitsuenak, azken finean, hauexek direlako liburuaren gida-harri. Hitz batek nortasuna du gorputza edo, nahi bada, *Elorri*-z ari garenez, izpiritua duenean.

Gandiagak adjektibazio zehatza jadetsi du. Nola?

- Errepikapenaren bidez, hiru eratara hedatzen delarik: errepikatzen den substantiboari adjektibo desberdinak egokitu-tuz, izenlagunaz ez ezik, izenondoaz (beti ere Euskaltzaindiaren gramatikak dakarren terminologiaren arabera) zehaztuz eta substantibo desberdinei adjektibo bera aplikatuz:

«Gizon begi-goritu,
 gizon jagi-zale,

gizon griñen-katigu,
gizon miñez-bete...» (180 or.)

«Elorriko aren alaitasuna tristea da, adar otz eta latz baten gaiñean. Artisteak irri-barre bat moldatu eutsan arri baten alaitasun apala dauka, elorri beraren alaitasuna, lurraren alaitasuna, eziñaren alaitasuna edo gure alaitasuna bezalakoa.» (136 or.)

«oroi zaar bat baiño ez dalako,
elorriko zur zaarra legez, ustelgaitzak diralako,
joran zaarron gurasoak diralako» (244 or.)

- Zama semantikoa daukaten adjektiboak, apaingarriak baino gehiago, beharrezkoak diren adjektiboen bitartez:

«—samiñen apar labur—» (39 or.)

«Eguzki laburrak ez dauka berorik» (231 or.)

«euri zabal» (159 or.)

«izar gordiñak» (51 or.)

- Substantibo baten ondoan egonagatik ere, beste substantibo bat ere ("*eta*" juntagailu kopulatiboa, zein "*edo*" juntagailu disjuntiboaren bitartez lotuta dagoena) definitzeko ahalmena duten adjektiboak. Sail honen barruan aposizioa ere sartu dut, adjektibo batek substantibo desberdinengan eduki dezakeen eraginagatik:

«itxaropenez eta argi arin batez» (50 or.; "*arin*" adjektiboa "*argi*" substantiboa kalifikatzeko egon arren, "*itxaropen*"ari ere badagokio).

«Eguzki bat edo oldar
barri ta argiduna» (58 or.)

«—ameluta—,
lurrats-gandu arin bat» (55 or.)

- Adjektibo koloristen matizazioa hiru motatan ugaltzen da, kolorearen beraren tonuak markatuz, koloreak berak definituz eta kolorea substantibo baten bidez zehaztuz. Kasu bakoitzeko bi adibide dakartza luzatzen dudan zerrenda honek:

- «—Urre orail ta zidar zurizko
orban argiak zirean—» (217 or.)
- «Orlegi, ori, beillegi,
laru, gorri, uger, dardar
orriak azken-garretan dagoz
udagoengo urretan.» (240 or.)
- «Zugaitzen orri oriak, illun.
Aize morea, baltzago» (241 or.)
- «Arkaitz zuriak gorrituxerik
paraje illun abartuan» (252 or.)
- «Urki kolorez ibaia» (240 or.)
- «Baztarren gaiñez, itzala, ardo-baltz-
kolore urratuz, moltzotan» (114 or.)

AHOZKO LITERATURAREN AHOTSA

Izenondoen errepikapenean eta hauen arteko jokoetan adi daiteke, besteak beste, ahozko literatura *Elorri*-n. Enfasia emateko balio duen errepikapenak leloaren erritmoa erabakitzen du, alde batetik, abestia ere izan daitekeen poema arintzen eta, bestetik, harri landu zahar eta euri umilaren gisa, lanean diharduen eta ahozko literaturaren ondarea den herri-oroimenaren zutabeak eraikitzen. Gandiagak euskal herri-musikak duen antzinako sinpletasun ederra trikiti-kopletan dakarkigu:

«Zerua egun argia da ta
ate aratza jagoko.
Ate aratza jagoko eta
zu bezain biotz oneko.» (158 or.)

Musikalitatearen eta esanahia anizteko funtzioak dituzten adjektibo-jokoak hiru hariren bidez txirikordatzen ditu Gandiagak. Lehenengoz, fonema baten aldakuntzarekin sortutako adjektibo-jokoak eskaintzen dizkigu; bigarrenez, izena eta adjektiboen artean mamitutakoak; eta, hirugarrenez, adjektibo desberdinen bidez eta bertso desberdinetan garatzen doazenak, "garatzen", diot, azken ahapaldiraino ez bait da oratzen ad-

jektibo-joko delakoa. Aberatsena ez ezik, interesgarriena ere baderitzot, barne-prozesu osoa urratsez urrats zerbitzatzten zaigulako:

«Ta xirimiriak, geldo ta geldi» (69 or.)

«zoramen leiartu,
leiar zoramentsu» (147 or.)

«Lur busti au pozik,
poz bustiez.
Lur gaixo au pozik,
poz gaixoez.
Lur makal au pozik,
poz makalez.
Poztu da nire lur au
poz gaixo makalezko
bustitako pozez.» (179 or.)

"ELORRI"REN GIROAREN EGILEAK

Elorri biltzen duen tenperatura epela da. Mistizismoaren ingurua prestatzen laguntzen dioten irudiez gain, badaude beste egile batzuk: adjektiboak. Gandiagaren adjektiboez hatz finak dituzte, delikatuak dira, kristalezkoak, bizkaieraren soinu gozoetara isiltasunaren basoan mugitzen dakitenetakoak. Gogo soilezkoa, airezkoa dirudien mugagabetasunaz jabetzeko «*izena* + (*gabe*) + *-(z)ko* + *(-a)*» egitura sintaktikoaz baliatzen da. Testua atenporalizatzea erdiesten du, denboraz kanpo jartzen, eta, horrela, mugagabetasunari (margoetan, gogora dezagun arrea, nabarra edo laruaren antzekoen presentzia) ez ezik, unibertsaltasunari ere erantzuten dio. Edonon aurki dezakegun egitura sintaktiko hau forma aldetik errimatze dago:

«Ez-bai utsa dan arnas bat,
zerak doi aitatzekoa,
berba mugarik bakoa
nai dot: gomuta zaarrek
dakien izkuntzako.» (28 or.)

«Argi, dardar, margozko,
euri ta soifuzko

urbil ta urrin zoiataz,
ames jaungoikozko.» (216 or.)

Bere barnekoitasuna sendo eta zabala bezain ahul eta mehea da eta Arantzazuko paisaian egiten du kabia. Zuhaitz zahar baten sustrai gogorak ditu, kimatzen uzten den zuhaitz gazte baten abar otzanak. Sentimenduak sentimenduen ondoren elkarrenganutzen dira, horrexegatik adjektibo subjektiboan isuri oparoa. Sinestesian finkatutako adjektiboak, askotan topiko bihurtzen direnak, irudi bat beste batekin lotzeko gakoak zaizkio, testuaren azpiahari gidari dira:

«itzal gozo...» (28 or.)

«Ezpan gozuok arnasa doguz,
begi barriok izar bi,
esku samurrok kabirik epel,
beso altsuok erruki» (156 or.)

Subjektibotasunak badu bere ahots propioa, hurrengo pertsonifikazioetan ikus daitekeenez ("ona" adjektiboak balio morala du eta):

«argi onaren barruan» (35 or.)

«malko on batek legez» (262 or.)

Sentimenduan erakusle zuzena zirrara da. Emozioaren erreinu sotilean betiko biztanle izan den Gandiagak badaki, jakin ere, zirrarak, bihotzaren arnas-bide korapilatsuak, ñabar-durak dituela, eta horixe bera adierazteagatik adjektibo-maila desberdinak (konparaketa, superlatiboa, "zein" eta "milla" bezalako hitzak) landu eta erakusten dizkigu:

«Zaitetz zu loreago
izotza danean,
zaitetz zu bigunago,
zaitetz gozoago
aize boladean.» (93 or.)

«Epeltasunik epelenean,
arima kabi altuan» (224 or.)

«Gauzak garbiak dira
—ain garbi, ain barri
dira gauzak—, ain otzan
eta ain gaiztoz-urri.» (91 or.)

«Eder. Euria ez ainbat garbi» (153 or.)

«Zein eder ditu zure koroaiak
amabi izarto brintzatu!» (156 or.)

«Milla bedar barri» (176 or.)

Oihartzun urruneko sentsazioa opa dezakeen adjektibazio subjektiboaren ondoan, Gandiagak objektuak hurbiltasunez ere aurkezten dizkigu. Izan ere, aurreko sailaren adjektibo kalifikatzaile subjektiboetan poetak kanpoko objektuak bere nitasunaren araberrako egiaztagarritasunaz deskribatzen zituen bitartean, sail honetako adjektibo kalifikatzaile deskriptiboetan egiaztagarritasuna izen konkretuaren tasunaren araberrakoa da. Adjektibo deskriptiboak bi taldetan banatzen dira: hizketakoak (nolabaiteko balio poetikoa dutenak baina mintzairan fosilizatuak) eta epitetoak. Adjektibook balore denotatiboak dituzte eta erabilera arruntekoak direnez, ez dira bere originaltasunagatik nabarmentzen, baizik eta errepikapenagatik. Baina, bestaldetik, kontraesana badirudi ere, adjektibo deskriptibook zama sinbolikoa ere badaukate, dakusakegunez:

«arkaitz gogorrok» (hizketakoa; 65 or.)

«erpe zorrotzez» (hizketakoa; 113 or.)

«Iturri menditarra» (epitetoa; 78 or.)

«zelaiko orma zaarra» (epitetoa; 236 or.)

Deskriptibotasunak subjektibotasunak bezala bere ahotsa du, bere ahots pertsonifikatua:

«Burdia zaarrak geldiarri» (116 or.)

Lehen samurtasuna eta gogortasunaren binomioa genuen, orain abstraktua (nolabait ere mugagabea) eta konkretua (mugatua) dauzkagu. Azken finean, katea bereko begiak diren elementuokin haztatzen ibiltze-asmo horrek bere gai bihurtu den "nahi eta ezin"arekin harremanak dituelakoan nago. *Elor* -

ri-nsamurtasuna eta abstraktuaren alde joko du, bere geroko emaitza poetikoan ez bezala.

UGARITASUNA

Bai, ugaritasuna da agian, *Elorri* hobekien defini dezakeena, adjektiboaz den bezainbatean. Ugaritasuna, bai kopuruan, bai agertzeko moduetan. Taldeka, banaka zein binaka kausi ditzaiegu, komen bidez lotuta edo "eta" juntagailu kopulatiboaren bidez, elkarren ondoan besterik gabe, substantiboak adjektibo banarekin lagunduta, substantibo bakar bati adjektibo bat baino gehiago egokituta... Aukera guzti honen atzean erritmo mantso eta bizi batek xuxurlatzen du, sentimenduen ur-jauziaren harmonian:

«... bitxi-anpulu ederreri,
kimaen leunari ta lurrin jatorreri.» (92 or.)

«Utsune argi, meia,
bigun ta dirdira» (198 or.)

«Arantzazuko torre txiki, lirain, zaarra» (254 or.)

«itzi-samin bakar,
gomuta argi gozo,
kantu-kili legun,
ames-orpo mardo...» (256 or.)

Adjektibo koloristek zipristinez zipristin salto egiten dute, sentsazio-iturri baten lasterraz, inpresionismoaren izenean:

«aien irudi baltzak
zer apain direan,
gorriz motatutako
urdin aintzinean» (94 or.)

«Ubel et'ori arkaitz zuriak
karezko arri gorritan» (172 or.)

Ugaritasuna ezaugarri desberdinetako adjektiboen topaketan ere, hiru adibideotan bezala: lehenengoan adjektibo sub-

jektiboak deskriptiboekin elkartzen dira; bigarreanean, zama semantikodun adjektiboa, adjektibo subjektiboekin; eta, hirugarreanean, zama semantikodun adjektiboa, zama sinbolikodunarekin:

«itogin-zarata
saltari ta alaia,
klaustroko patio
barru ta gordean.» (79 or.)
«besoan beso lore
ziur ta kutuna» (121 or.)
«ekarri itxaso ziur ta argira» (118 or.)

Laburbilduz, Gandiagaren *Elorri* adjektiboei dagokienez, benetan aberatsa eta klasiko egiten duena bere adjektibazio ugaria da, ugaria zentzurik zabalenean: egiten duen aukeran, erabileran, adjektiboei ematen dizkien zentzu desberdinetan eta bilatzen dizkien musikalitateetan, adjektibo-jokoetan... Eta hau bakarrik hizkuntzaren ezagutza sakona edukita egin daiteke. Gandiaga, izan ere, euskararen barrutik mintzo zaigu.

OHAR BIBLIOGRAFIKOA

- AZURMENDI, Mikel: *Euskal nortasunaren animaliak*. Baroja, Donostia, 1989.
- DURAND, Gilbert: *Las estructuras antropológicas de lo imaginario*. Taurus, Madrid, 1981.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal gramatika: lehen urratsak*. Euskaltzaindia, Iruñea, 1985.
- GANDIAGA, Bitoriano: *Elorri*. E.F.A., Oiñati, 1989.
- IRIGOIEN, Imanol: *Argiaren barne-distantziak*. Ed. Erein, Donostia, 1989.
- KORTAZAR, Jon: *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Descée de Brouwer, Bilbo, 1986.

KORTAZAR, Jon: *Laberintoaren oroimena*. Baroja, Donostia, 1989.

PAGNINI, Marcello: *Estructura literaria y método crítico*. Cátedra, Madrid, 1978.

JASO DITUGU

- AGIRRETXE, E.; BEREZIARTUA, Iñaki: **Zamalbideko elizaren kondairatxoa**. Zamalbide auzoko Frantziskotarrak. Errenteria. 1991. 21 □ 15 cm, 10 or.
- AGUIRRE SORONDO, Antxon: **Estelas discoidales de Gipuzkoa. Origen y significado**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1991. 28 □ 21,5 cm, 128 or.
- APARICIO PEREZ, Celia: **Poder Municipal, Economía y Sociedad en la ciudad de San Sebastian (1813-1855)**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1991. 24 □ 16 cm, 128 or.
- ARBIDE, Ignacio; URCELAY, Jose María: **Bikuñatarrak Legazpiko historian/Los Bikuña en la historia de Legazpi**. Gipuzkoako Kutxa Fundazioa. Donostia. 1991. 21,5 □ 21,5 cm, 128or.
- ARZALLUZ, Nemesio: **Josefa Larramendi Sta. Kruzko Komentu eraiketaren hirugarren mendeurrenean/Josefa Larramendi en el III centenario de la fundación del Convento de Sta. Cruz**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea; Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki-Kutxaren Kultur Ekintza. Donostia. 1991. 21 □ 15 cm, 426 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Drogamenpekoen alorreko Aurre-hartze, Laguntza eta Birgizarteratzeari buruzko Legea/Ley sobre Prevención, Asisten-**

- cia y Reinserción en materia de Drogodependencia.** Herri Erak u n-deen Arteko Drogomenpekotasun-Batzordea. 1991. 21 □ 15 cm, 51 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal kazetarien jardunaldiak.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 24 □ 17 cm, 104 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Geomorfología y Edafología de Gipuzkoa.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Hirigintza, Arkitektura eta Ingurune Departamentua. Donostia. 1991. 30 □ 21,5 cm, 130 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Gipuzkoako Geomorfologia eta Edafologia.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Hirigintza, Arkitektura eta Ingurune Departamentua. Donostia. 1991. 30 □ 21,5 cm, 130 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Hizkuntz normalkuntzarako ekinbideak udalerr mailan. Planifikaziorako orientabideak.** U.E.U.ko Soziolinguistika Saila. Bilbo. 1991. 24 □ 17 cm, 128 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Informe Anual Integrado de la Hacienda Vasca 1989.** Euskadiko Zerga-Kidekaketarako Saila. Gasteiz. 1991. 28 □ 21 cm, 344 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Interes Geologikoko Puntuak. Gipuzkoa.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Hirigintza, Arkitektura eta Ingurune Departamentua. Donostia. 1991. 24 □ 11,5 cm, 170 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Kalabozoak. Ertzantzaren eta Udalen atxiloketa egoitzak/Los calabozos. Centros de detención Municipales y de la Ertzantza.** Ararteko; Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz. 1991. 23,5 □ 17 cm, 244 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Literatur sariak 90.** Amorebieta-Etxanoko Udala; S.A.C. Zornotza. Amorebieta-Etxano. 1990. 21 □ 15 cm, 50 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Oiartzun 91.** Oiartzungo Udala. Oiartzun. 1991. 29,5 □ 21 cm, 144 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Puntos de Interés Geológico de Gipuzkoa.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Hirigintza, Arkitektura eta Ingurune Departamentua. Donostia. 1991. 24 □ 11,5 cm, 170 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Tolosaldeko industri gida/Guia industrial de Tolosaldea/Guide industrielle de la valle du Tolosa/Industrial guide of the Tolosa Valley.** Tolosako Udala. 1991. 21 □ 15,5 cm, 110 or.
- ASKOREN ARTEAN: **URRUZUNO literatur lehiaketa 1991.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 21 □ 15 cm, 160 or.
- BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA: **Irriaren giltza. Mattin Treku bertsularia 1916-1981.** Euskal Herriko Bertsolari Elkarte; Gipuzkoako Argitalpen eta Agerkarien Elkarte. Donostia. 1991. 21 □ 13,5 cm, 272 or.
- BORDA, Itxaro: **Bestaldean.** Susa. Lasarte-Oria. 1991. 20 □ 12,5 cm, 130 or.
- CARO BAROJA, Julio; BERISTAIN, Antonio: **Ignacio de Loyola Magister Artium en París 1528-1535.** Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakunde; Gipuzkoa Donostia Kutxa-ren Gizarte Ekintza. Donostia. 1991. 29 □ 20 cm, 752 or.
- DAHL, Roald: **Georgeren medizina miragarria.** IRIGOIEN, Joan Mari. BLAKE, Quentin. Erein. Donostia. 1991. 19 □ 12,5 cm, 133 or.
- DE MUSSET, Alfred: **Zozo zuriarena.** IGERABIDE, Juan Kruz. MATXIN-BARRENA, Alvaro. Erein. Donostia. 1991. 19 □ 12,5 cm, 76 or.

- ETCHEPARE, Jean: **Mendekoste gereziak**. Erein. Donostia. 1991. 20,5 □ 13 cm, 256 or.
- EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ADMINISTRAZIOA: **Ekonomia-Itun-earen 1991garrenko urtarilaren lehenengorako uneangotutako Idazkera/Texto actualizado del Concierto Económico al 1 de enero de 1991**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 25 □ 17,5 cm, 164 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **1991 Estatistika Buletina 3/Boletín de Estadística 1991-3**. Egile Editore. Gasteiz. 1990. 25,5 □ 21 cm, 96 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **1991 Estatistika Buletina 4/Boletín de Estadística 1991-4**. Egile Editore. Gasteiz. 1990. 25,5 □ 21 cm, 96 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Argitalpen Estatistiko en Katalogoa 1991/Catálogo de Publicaciones Estadísticas 1991**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 24 □ 17 cm, 122 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleria eta etxebizitza behin-behineko emaitzak (Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentzuak 1991)/Población y vivienda resultados provisionales (Censos de Población y Viviendas 1991)**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 56 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren Inkesta Ihardueraren Arabera I-1991/Encuesta de Población en Relación con la Actividad I-1991**. Egile Editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 172 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta Ihardueraren Arabera 1985-1990/Encuesta de Población en Relación con la Actividad 1985-1990**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 146 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta Ihardueraren Arabera II-1991/Encuesta de Población en Relación con la Actividad II-1991**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 172 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Estatistika Buletina 5-1991/Boletín de Estadística 5-1991**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 148 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Estatistika Buletina 6-1991/Boletín de Estadística 6-1991**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 96 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Estatistika Buletina 7-1991/Boletín de Estadística 7-1991**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 96 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Estatistika Buletina 8-1991/Boletín de Estadística 8-1991**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 96 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Industri Kontuak 1989/Cuentas Industriales 1989**. Egile Editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 110 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Industri Prezioen Indizea 1991/Índice de Precios Industriales 1990**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 □ 21 cm, 62 or.

- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Industri Produkzioaren Indizea 1990/Índice de Producción Industrial 1990**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 \square 21 cm, 92 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Irakaskuntza Pribatuaren Gastu eta Finantzaketaren Estadistika 1989/Estadística del Gasto y Financiación de la Enseñanza Privada 1989**. Egile Editore. Gasteiz. 1991. 25,5 \square 21 cm, 124 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Irakaskuntza Publikoaren Gastu eta Finantzaketaren Estadistika 1989/Estadística del Gasto y Financiación de la Enseñanza Pública 1989**. Egile Editore. Gasteiz. 1991. 25,5 \square 21 cm, 124 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Kontu Ekonomikoak 1989/Cuentas Económicas 1989**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 \square 21 cm, 76 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Migrazio-Mugimenduen Estadistika 1989/Estadística de Movimientos Migratorios 1989**. Egile editore. Gasteiz. 1991. 25,5 \square 21 cm, 210 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estadistikak. Likidazioak 1989 Aurrekontuak 1990/Estadísticas Presupuestarias del Sector Público. Liquidaciones 1989 Presupuestos 1990**. Egile Editore. Gasteiz. 1991. 25,5 \square 21 cm, 70 or.
- FERNANDEZ DE CASADEVANTE ROMANI, Carlos: **Historia del Real Unión Club de Irún**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Gipuzkoa Donostia Kutxa-ren Gizarte Ekintza. Donostia. 1991. 30,5 \square 21,5 cm, 408 or.
- GARCIA DE CORTAZAR, Jose Angel: **Euskal Herria Erdi Aroan (II)**. Gaiak. Donostia. 1991. 21,5 \square 17 cm, 239 or.
- GARCIA RONDA, Angel: **La Transformación de la Foralidad Guipuzcoana (1837-1844)**. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones/ Gipuzkoa Donostia Kutxa. Donostia. 1990. 22,5 \square 15,5 cm, 188 or.
- GAZTEENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA: **Atzerrira goaz 1991-92**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 30 \square 21 cm, 84 or.
- GAZTEENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA: **Zer egin dezaket atzerrian 1991-92**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 30 \square 21 cm, 48 or.
- GENET, Jean: **Zaindaritza zorrotza & lau orduz xatila-n**. ANTZA, Mikel. Susa. Lasarte-Oria. 1991. 20 \square 12,5 cm, 90 or.
- GONZALEZ-CARVAJAL, Luis: **Hona gure fedea. Unibertsitarietzako teologia**. Idatz. Donostia. 1990. 21 \square 14 cm, 300 or.
- IBARBURU, Xabier: **Homeopatia eta Akupuntura Geroaldiko medikuntzak?** Gaiak. Donostia. 1991. 21,5 \square 17 cm, 190 or.
- IRUÑA ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK: **Salbamera eta Kristau Bizitza. Poza eta itzaropena**. Idatz. Donostia. 1990. 18 \square 11 cm, 112 or.
- ITURRALDE, Joxemari: **Izua hemen**. Erein. Donostia. 1991. 20,5 \square 13 cm, 240 or.

- IZAGIRRE, Koldo: **Balizko Erroten Erresuma**. Susa. Lasarte-Oria. 1991. 20 □ 12,5 cm, 114 or.
- LINAZASORO, Karlos: **Eldarnioak**. Erein. Donostia. 1991. 20,5 □ 13 cm, 256 or.
- MIGUEL, Isabel: **El comercio Hispanoamericano a través de Pasajes-San Sebastián (1778-1795)**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Gipuzkoa Donostia Kutxa-ren Gizarte Ekintza. Donostia. 1991. 24 □ 16 cm, 140 or.
- MONTOIA, Xabier: **Non dago Stalin?**. Susa. Lasarte-Oria. 1991. 20 □ 12,5 cm, 136 or.
- OLASAGARRE, Juanjo: **Gaupasak**. Susa. Lasarte-Oria. 1991. 20 □ 12,5 cm, 96 or.
- RODRIGUEZ-SAN PEDRO BEZARES, Luis Enrique: **Sensibilidades religiosas del Barroco: Carmelitas Descalzas en S. Sebastián**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Gipuzkoa Donostia Kutxa-ren Gizarte Ekintza. Donostia. 1990. 23,5 □ 16 cm, 368 or.
- SARASOLA, Ibon: **Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia (jabedun-loratzte)**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Gipuzkoa Donostia Kutxa-ren Gizarte Ekintza. Donostia. 1991. 27 □ 20 cm, 740 or.
- SCHIFFLER, Ludger: **Hizkuntza arrotzak elkarreraginean irakasteko**. Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra. HABE. Donostia. 1991. 23 □ 16,5 cm, 88 or.
- SIADeco; UDALEKO EUSKARA-ZERBITZUA: **Euskara Beasainen. Azterketa soziolinguistikoa ren laburpena. 1981 eta 1986ko ZentsuErrolden eta 1988ko neurketen arabera**. Beasaingo Udala. Beasain. 1991. 21,5 □ 14,5 cm, 176 or.
- TELLECHEA IDIGORAS, J. Ignacio: **El vasco Francisco Grandmontagne sus cartas a Miguel de Unamuno**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Gipuzkoa Donostia Kutxa-ren Gizarte Ekintza. Donostia. 1991. 24 □ 16 cm, 196 or.
- TELLECHEA IDIGORAS, Jose Ignacio: **Escritos breves. Obras del Padre Larramendi**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Gipuzkoa Donostia Kutxa-ren Gizarte Ekintza. Donostia. 1990. 21,5 □ 16 cm, 600 or.
- URKIXO, Joanes: **Lurre deika**. Erein. Donostia. 1991. 20,5 □ 13 cm, 184 or.
- VALDIVIESO, Enrique: **Valdes Leal**. Bitez. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia. 1991. 30 □ 23 cm, 216 or.
- VIVES, Gabriela: **Catálogo de los Documentos del Archivo del Monasterio de San Bartolomé de San Sebastián**. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Gipuzkoa Donostia Kutxa-ren Gizarte Ekintza. Donostia. 1991. 24 □ 16 cm, 216 or.
- ZUBIAUR CARREÑO, Francisco Javier: **Bienabe Artia**. Izarlan. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Gipuzkoa Donostia Kutxa-ren Gizarte Ekintza. Donostia. 1991. 30 □ 23 cm, 366 or.
- ZUBIZARRETA, Patxi: **Gabrielle**. Erein. Donostia. 1991. 20,5 □ 13 cm, 120 or.
- ZUNUNEGI, J.M.: **Beti bidari Jainkoaren bila**. Idatz. Donostia. 1989. 21 □ 14 cm, 244 or.